

Paulo Zamarripa

FIRI-FIRI

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoaren irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Firi-firi (ipuin ta naste)*, Zamarripa abadea.
Gaubeka'ren irarkolan, 1935

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00357.htm>

FIRI-FIRI
(IPUIN TA NASTE)

ZAMARRIPA ABADAK
EGIÑIKO
IRUGARREN LIBURU BARRE-ZALEA

BERMEON
GAUBEKA'REN IRARKOLAN
1935

JAUBEDUNA DA

BEAR DAN BAIMENAZ

Berbaurretxua

Ondasun andia da umore ona, Jainkoaren adizkidetasunaz baterakoa danean.

Olangoxe umore ona, Jainkoaren adizkidetasunezkoa, euki gura neunke neuk beti.

Jainkoak Berak gara izan dagiala neuk eta zeuk, irakurla maite orrek, beti beti olangoxea eukitea.

Ta itxi daigula Berak, biar zelango bidetik ibiliko direan eztakigula, gaur, geure ustez, bide okerretik dabilzan lagun urkoen gauzen alderdi barregarria ikusiaz ta erakutsiaz, barretxu bat edo beste egiten ta eragiten.

Euroi, bide okerretik, geure eritxian, dabiltzanoi, ez beste edozein bidazti bide okerrekori,... ezta Jainkoaren Beraren gauzen aurka dabiltzala euron aboz diñoela, agiri-agirian bide okerretik dabiltzanoi be... gorrotorik bape ezteutsegula.

Jainkoak Berak gura dau olantxe ta...

Barreagaz, ez barrearen atzetik ez aurretik, ez deitela sortu neugan ez zeugan eurokanako gorrotorik, irakurla maitea.

Eurok eta geu, guzti-guztiok, eroan gagizala Jainkoak Berak, bide zuzenetik erabillita, bako-txa Berak deritxon orduan, Bere ondotxura... Bere arpegi gozoa erakutsiaz,... negarrezko erbeste onetako barre guztiak baño ohea ta iraunkorragoa dan gozotasun esan-eziñekoaz betetuten.

FIRI-FIRI I

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

GAUZZEA FIRI-FIRI ZELAN JAUSTEN DAN

Badakizu, irakurla maitea, gauzea *firi-firi* zelan jausten dan.

Zarata gitxigaz, bada-ezpadako zaratatxu bategaz, edo zaratarik bapere barik, eta jarra-yan.

Aolantxe jausten da edurra, *firi-firi* jausten danean.

* * *

Beste zertxu bat be eukiten dau gauzeak *firi-firi* jausten dan bakotxean: metasuna edo meaztasuna.

Edurak berak, *firi-firi* jausten dala entzun gura badau, me edo meatz jausi bear dau.

Ba lodi edo zarratu jausten bada, berak ez beste guztiok, auxe esaten dogu euskeraz, bera-ri begira: Ona emen edurra *fara-fara* jausten!

* * *

—Orrek guztiok egiak izango dira, baiña...

Et! Batabatek berbara urten deust urrean, ta ia zer diñoskun ikusi beur dogu.

—Zer diñozu, adizkidea?

—Orrek guztiok egiak izango direala, baiña...

—Zelango baiña?

—Euskeraz eztagoala *efe-rik*.

—Eztagoala *efe-rik* euskeraz? Aor berton berba bi bakotxa *efe* bigaz. Ta arro egon be!

—Nik, *firi-firi* barik, *piri-piri* esango neunke.

—Ez zaituez eroango orregaitik Batara. Baiña neu banintz agindu bear dodana...

—Zer?

—Batara bialdu barik, bata ulertutea gura badozu, bestea eztagizula esan aginduko neuskizu. *Piri-piri* edurrak eztau egiten, adizkidea. Txoriak eta egiten dabe *piri-piri*, orretarako umorea daukienean.

* * *

Irribarre gozo bat ezpan-ertzetan erakusten deuskula, alde egin deusku berbara urten deuskun lagun ezezaunak, neure *firi-firi* polit onen alde erakutsi neinkezan arrazoi guztiak entzun barik.

Eta olan, polito polito, nekerik bape barik, amaitu dogu geure eztabaidatxua.

* * *

Auxe da gauzea txiri-txiri egitea.

Txiri-tik txori-ra alde andirik egon be eztago ta, Txorierrin zarri esaten da nekerik bapere barik egiten direan gauzakaitik... *txiri-txiri* egiten direala.

* * *

Olantxe, *txiri-txiri*, egin gura neunkez neuk, neure GACETA DEL NORTE maite maiterako, gaurtik aurrera, Jainkoa lagun dodala, egingo dodazan *Firi-Firi* izeneko lantxu guztiak.

Eta baita bere gura neunke bertan agertu deitezan guztiak, gaurko onen antzera, zatika, apurka, *firi-firi*, irakurleak *txiri-txiri* irakurri dagian.

* * *

Gaurko lantxuau, berau egiten, nekatu barik egiteko, naikoa lanik euki dot eta, neure ordez, neure ixillzain (secretario) txorierritar zintzoak firmauko dau.

Neure ixillzain txorierritar zintzo au badakizue nor dan, ezta? Ezpadakizue, oraintxe esango yatzue: Txitxu.

Tirok, Txitxu, Txitxu ona, *entxufea* erderaz ez euskeraz zer dan jakin baño lenagotik, papu bietatik barre egiten ta batetik bakarrik jaten mutilla azan Txitxu maitegarria; mezede egiten doan

bakotxean, biotza *pozez dantzari erabilten doan*,
neure ixillzain dubariko txalogarria, egin egistak
oraintxe gaurko lenengo mezedeoa!

Botaik ementxe eure firmea!

Txitxu

(1932-ko Zemendiaren 20'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI

II

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXITXU, ARPEGIA LUZATUTA

Ez neban esango nik, ikusi barik, Txitxuk gaur erakutsi deustan besteko arpegi luzea daukonik.

Baña ikaragarrizko luzea erakutsi deust gaur eta... badiñot... aolangoxe ikaragarrizko luzea daukola ereak aginduten deutsanean.

Arpegi ain luzea eukiteko aginduten deustan erea, gaur beintzat, ikarea da.

—Olangorik... ikusteko be! —diñost berak.

—Eure gaurko arpegi ori ala? —erantzuten deustat neuk, arpegira begira.

—Eztot gogoan neure arpegirik, jauna.

—Ikaratuta agoala esan leik.

—Ez naz egongo ba! Orrekaz... irarkola-langi-
lleokaz... jazoten da gauza bakotxik! *Batara*
iminteko esan geuntsan leku baten,... *batera*
imiñi deuskue barrabanok... geure *Firi-firi* poli-
tean.

—Bai, *batera* imiñi bearrean, *bestera*.

* * *

Gatozan beste gauza batera.

Bizkaiko jaun andi batek esan deutsie lengo
baten izparringikari (periodista) batzui, ta onek
esan deuskue gero, euren izparringietan, berak
esan daunetik, bera bizi dan etxean gauza asko
dagozala egon bear ez leukien lekuetan.

Aspalditxuon, ori gauza askogaz jatozen da
España zabalean.

Ta gauzok olan ikusirik, arpegia zabalduteko
baño luzatuteko egun obak daukaguzala esan
giñei urrean.

* * *

Adizkidea (zu be adizkidea zaitut, langille,
irarkola-langille maitea), *úrrean* esan dot, azen-

tu ta guzti, *urreean* esan gura izan dodala uste izan eztagizun.

Gauzeak bere antza bear dau.

Orretxegaitik, urre gorriak urre-gorri-antza bear dau, antza, ta nire etxean sartutekotan, antz eta guzti sartu bear ei dau ta...

Nik daukidan urre-apurra (urre zuria gero, ez gorria)... ain da apurra ze, ezta aitaturteko be.

Ta aitaturteko ezpada, eztago zetan aitatu. Ezta egia?

Naste asko dagola

batan-bestean?

Ez urre-nasterik

gaur nire etxean,

zuria zuriaz

nastau-ezean.

Ta auxe naste-apur au

ein-eziñean

laster naz aurkitu,

neure eritxian,

gauzak bayoakuz

oraingo antzean.

(1932ko Zemendiaren 27'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI

III

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

AI, UNAMUNO GEUREA!

Ai, Unamuno geurea!

Geure geurea dogun Unamuno Migel jaun ospetsua dot gogoan, irakurla maitea.

Ta geure geurea dogun Unamuno jaun orregaitik, *geure Unamuno* esan barik, *Unamuno geurea* esan bear dodala deritxat neuk.

Ai, Unamuno geurea!, diñot barriro.

Ta, zegaitik eztogu esango barriro, beste bein beintzat, geure geurea dogula?

Egingo al deusagu kalterik orregaz iñori?

Bizkaitarra da; Bilbon jayo ta azia.

Ta Bilbon jayo ta azia izanik, iya iya txorierritarra bere bada.

Artxandaz andiko erri baten, esate baterako, Sondikan, jayo ta azi izan balitz, Txitxu bera dan besteko txorierritarra izango zan.

Baña, zetan gagoz, adizkidea?

Bilbon jayo ta azia izanagaz beste barik, edozelan bere, txorierritarra da, txorierritar-izena bere berean ulertuten dan eran ezpada be.

Ba... bilbotarrai *txinboak* deituten yakie. Ta *txinboa*, txikia edo andia, txoria da beti, jayoten danetik gora.

Olan dala, Bilbo *Txinboerri* da.

Ta *Txinboerri* ta *Txorierrri* arenbaten dabiltz, euron txori ta txori-buru ta guzti.

* * *

Alan, nai olan, ezta basurdea Unamuno geurea. Ta alde onetatik be geure geurea dala esan lei.

Baiña... ai, Unamuno geurea!...

Ibiltaldi batzuk egin dituz basurdeakaz, gizon-jantzidun basurdeakaz, ta... geure geurea

ezpalitzean ibilli da ortik, ezkerreko aldetik, alde orretara alde artuta.

Españara *neskatotxua* ekarten lagundu deusie; ta orain, antza daonetik, damututa dago ori ekarten lagundua.

Ta... ta, ta, ta.

Neskatotxua ekarri aurrean España ez egoa-la onen txarto... ta olango gauzatxuak esan deusiez, erdera garbian, lengo baten, an Madrille aldean, basurdeai ta basurde eztiranai.

Basurdeak asarratu egin yakoz... ta txurupiñak izan dira.

Baiña bera ezta, orraitino, txurupiñen bildur.

Bera eztago atzera begira, esatea ondo dala deritxon gauzak esateko.

Esan ta bakea. Bakea bere barruagaz, inguruan txurupiñak sortuko badira be.

Ta berak daki esaten dituzan gauzak *zelango asmoagaz esaten dituzan*, ta aurrera bolea.

* * *

Beiñola, bilbotarrai, Bilbo bertoko *Teatro Arriaga* deritxon antzokian, auxe esan eutsien, ziñuetan ibilli barik:

—*Conviene que al vascuence le demos por muerto y le demos honrosa sepultura, haciéndole funerales de primera clase.*

Ta orduan bere... txurupiñak izan zirean.

Bilbotarrik geyenak asarratu yakozan.

Ta *mal vasco* deitu eutsien geyenok.

Ta geyago mindutearren, askok *baldrasko* be deitu eutsien.

Nik, *baldrasko*-kontuan ez neban sartu gura; baiña *mal vasco* deitu eutsienai auxe esan neuntsien neure barruan:

Mal vasco dala?

Bai, zera!

Egunen baten

se vera...

Ez ete eban esan gero... esan eban guztia, ordu atan, bilbotarren artean, bere unamunokada baten bitartez, euskalzaletasuna biztutearren?

Beintzat, ordurik gora, artean baño berba
geyago egiten da euskeraz Bilboko urian.

* * *

Madrille aldean emon dituzan unamunoka-
dak, euron asmo ta guzti, bai ulertu ondo, neure
eritxian, ango entzula guztiak!

Basurdeak batez be. Ai, onek sur onak dau-
kiez! Mutil onak dagoz eurok *neskatoagaitik*
esan dituzan gauzakaitik!

(1932-ko Abenduaren 4-an argitaratu zan)

FIRI-FIRI IV

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXITXU, ETIMOLOJIAK ATARATEN

Txitxu, egunokaz, bear barik egon da.

Ta zeozer egin barik bera eztagoala ondo ta, *etimolojiak* atarateari emon deutso.

Berak uste dau olantxe atarako daula burua.

Koipe andirik *etimolojiok* berari itxiko ezpa-deutsie be, berak bai koipea atara edozeinbere berbari!

Etimoloji-koipea ataraten mutilla da Txitxu.

Onean edo txarrean. Onean emoten eztaun berbeari txarrean atarako deutso.

Ez euki bildurrik.

Berak eztauko.

Dan langoa dala, berak deritxon etimolojia emoten eztaun berbeari badaki zer egin.

Aldatu, aldakuntzarik txikiena berari, alegi-ñez, emonaz.

Prieto berbeari, esate baterako, oratuten deutso garri-garritik, eta... kenduten deutso bere *pri* polita, ta *pri* orregaz egiten dau, iñor mindu barik, berak deritxon guztia.

—*Pri-eto*... ezin lei esan *Pirri-eto* dala, jatorriz, euskera garbian? —itandu eustan atzo, oitik jagi nintzaneko.

—*Prieto*, euskera garbian, *Estu* dok, adizki-dea, neure eritxian. Ta ez nagik *prietotu*, ez nagik estutu...

—Estutu barik erantzutea gura dot.

—Tirok, ba! Esaik eure eritxia.

—Neure eritxia esateko, neu berorrenaren billa etorrira? Tira, ba! Nire eritxian, esan lei *Prieto*, jatorriz, *Pirrieto* dala.

—*Defentsa* izeneko lege ospatsuak ez yok eragotziko ori esaten.

—Ez! Esan daigun, ba, jatorriz olantxe dala. Ta *etimolojiak* berez-berez urtengo dau.

—Pirri-pirriak, bai, urteten yok berez-berez. Zarritan, norberak gura yoan baño errezago.

—Eztot gogoan *pirri-pirrik*. Eta bear bere ez. *Pirri* bat naikoa dala...

—Naikoa ta lar. Pirrik, bat bere ezautu ez oba... A! Itxi eidak apur baten kristiñauari oitik jagikeran egitea yagokoan otoitzak egiten. Beingoan nok eugaz.

—Baña *Prieto* eztok euskerazko berbea.

—Aorretantxe dago ba, jauna, nire arrazoyaren indarra. *Prieto* ezta euskerazko berbea. Ederto esan dau berorrek. Baña euskerazkoak izan bear dau; ta *pri*-gaz asten dan berbarik euskeraz eztago ta, *Prieto* berbearen *pri* ori, jatorriz, *pirri* dala esan bearko dogu... edo eztago *lojika* edo *lukainka* edo dana dalako ori munduan.

—Askok *lojikeari* baño *lukainkeari* obeto begiratuten yeutsiek, adizkidea. Eztaukok beste etimolojirik?

—*Azaña* berbearenak, amabi; zein baño zein obagoak.

—Ikustekoak izango dozak.

—Bai, ba.

—Orduan... urrengo baten ikusiko yoaguz.

* * *

Errukia emoteko moduan egon da Txitxu, egunokaz, bear barik.

Baña errukiago deritxat oraintxe, artu daun bear-modu barri orregaz.

Entxufe onari oratu deutso, arrayetan!

U.G.T. DERITXON ZEREKO ZERAK...

Orrako U.G.T. deritxon zereko zerak ikaragarrian dagoz zertuta.

Erkala (errepublikea) zainduteko ardurea artu dabe.

Badaukie zeri.

Koipe geyago itxiko deutsie euroi erkala zainduteak... Txitxuri etimoloji-atarateak itxiten deutson baño.

* * *

Okerrak dagoz eurok gero!

Errege-zaleai begira, argi ta garbi diñoerka-
lari bakean isteko; ze osterantzean, eurok-o...

Kontuz, errege-zaleak, kontuz! Kontuz, diño-
tsuet!

Ba orretariko askok bildurra emon leye.

Yaten dakien baizen polito *yoten* badakie...

(1932-ko Abenduaren 11'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI V

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

KANPOAMOR DIPUTADU NESKATILEA TA BOTOAK

Kanpoamor Klara diputadu neskatilleak bere gogaide (correlijionario) radikalai *agur* ta *or konpon* esan deutsie.

Eurokaz ondo konponduten izan eztalako, antza.

la eurok alkarregaz konponduten direan beragaz egin direan baiño obeto.

* * *

Martinez Barriosek...

—*Martinez Barriootzek...* esan gurako dau berorrek. «Barrios» ori, jatorriz, «Barriootz» da, nire eritxian.

—Ago ixillik, Txitxu!

—Ezta ala? Nik bayetz uste dot. Eta nire ustea sendotuteko, orra or «Barriobero».

—Etxoat ikusten emen Barrioberorik, eu Barrioberotu ezpaaz.

—Barriobero bera ikusten ezpadau be, «Barriobero» izena ikusi edo... entzun egin dau beintzat. Eta, zer deritxo? «Barriobero» izenak berak eztau eskatuten «Barriootz» izena be ego-tea, olantxe, euskera garbian?

—Nik neuk auxe esan neinkek: etxaukadala orain burua «Barriootz» eta «Barriobero» izenok aztertuten berotuteko.

—Urrengo baten izango da orduan, jauna.

—Urrengoan itxi ez deuat egingo emen sartu-ten egun onak emon barik.

* * *

Gatozan Txitxuk etenda itxi deuskun lengo arira.

Martinez Barriosek,... edo Martinez Barriootzek,... Txitxuk gura daun lez esateko,... konpondu gura izan dau gauzea, esanik Kanpoamor Klara neskatilla orrek prisa andia daukola.

—Ezkonduteko ala?

—Txitxu! Ara gero!

—Oraindiño ez el da ezkondu ta...

—Ezkonduta balegok, eleitikek izango neskatillea.

* * *

Kanpoamor diputadu neskatilleak daukon prisa beste gauza baterako da.

Neskatillak eta neskatillak eztiran emakume botodun guztiak botoa emoten ikusteko.

Ta orretarako prisarik ezta artu bear, Martinez Barriootzen eritxian.

Lerrousen erlojuak orretarako ordua eztau markau oraindiño.

Azañaren boltsan daola erloju ori diñost Txitxu barrabanak.

* * *

Doña Klara diputadu neskatilleak gura dauna egiteari ondo deritxo Martinez orrek, baña prisaka ori egitea ez yako ain atsegin.

Botoa euki dagiela emakumeak.

Orretarako emon yakie: eukiteko.

Eukiteko! Onetan badago bera be.

Ta euki dagiela urte askotan, osasun-bakeaz.

Baña,... kontxo!,... euki dagiela, berak edo Lerrousek... edo Azañak esan artean, iñori emon barik, ondo gordeta.

(1932-ko Abenduaren 18'an argiratu zan)

FIRI-FIRI VI

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

GAURKO AIZE FIRI AU TA ALOTERIA

Gaurko aize *firi* onek (olangoxe aize me otzari esaten deutsie Txori-errin *aize firia*), gaurko aize *firi* onek, adizkidea, neurtitzak atarateko zera emoten deust.

Ataraten dodazan neurtitzok... paperean ezarten itxiten badeust, ez naz aserre.

Beti emongo deust orregaz, aloteriak bere suerte ganorabakoagaz emon deustan baño geyago.

Egunak joan eta
egunak etorri,
egunak jarraituten
deutsie egunari,
ta joan doazanak
an doaz kantari,
argiro diñotsela
etzun nai daunari
ikastea ondo yaokon
zerbait jakingarri.

—Egi andia!

—Emen ago i be, Txitxu?

—Bai, jauna. Egun on asko euki dagiala, Jainkoak emonda.

—Baita euk be. Baña ez az etorri orain sasoi onean. Ezteustak itxi *txirlorea* amaituten.

—Zelango txirlorea?

—Egiten asi noana.

—Eztot ulertuten.

—Naikoa dok *txirloretan* eurotan yiñoatana ulertutea.

—*Txirloratzako* zer orretan esanikoa ulertu dodalakoa daukot.

—Orregaitik esan izango dok: Egi andia!

—Bai, ba, alantxe da izan be ta!

—Ta, mira egiten deustak nik egi bat esateari? Guzurrik entzun deustak iñoiz ba?

* * *

—Aloteriak ez yeustak urten...; baña urten baleyeustak, entzungo endun beste egi bat be.

—Ze egi?

—Aloteriak urten yeustala.

* * *

—Neuri be ezteust urten aloteriak, jauna, ta bardin gagoz.

—Jokatu egin dok gero?

—Ez, ba.

* * *

Txitxuk neure ezpanetan irribarre bat ikusi dau.

Ta irribarre onek poztuta, zerbait geyago be esan deust.

Iñor baño *urrago* ibilli dalako edo, *Urren* abizena daukon bateri ukutu deutsalara premio nagusiak, eta Lerrouseri be zeozer yausi yakola, ta... olango... aloteri-kontuko kontuak.

* * *

—Itxi yayogun orreri, Txixu... Ta entzun eidak beste egi bat. Baña lenago... esaik benebenetan: eztok jokatu aloterian?

—Ez, jauna.

—Baña aorretxegaitik berorregaitik urtengo deualako amesik be ez enduan eukiko.

—Ez ba. Yokatu barik zelan urtengo eustan!

—Aiko or ba! Asko yaozak mundu zabalean zeruko aloteri nagusian jokatu barik... zeruko aloteri-premioak urtengo yeutsiela edo ikutuko yeutsiela uste yoenak.

—Zoroak dira orrek.

—Bai, zoroak dozak. Jainkoa aloteri orretarako txantel-opaka dubarik, eta txantel bedinkatu orretariko batxu be artuteko alegiñik egin ez...!

Zer zorakeri andiagorik...! Ez adi izan eu... orren artekoa!

(1932-ko Abenduaren 25'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI VII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

OSTU DEUSKUE ETSERIK ERDIA

Txitxu gurea gaur, beñolako arpegi luzeaz, ta *egunon* barik, *eguerdion*, *loti ona*, diñostala, arrapaladan sartu yat neure logelan.

Eta barrura ezkerro, neuk baimenik emon barik, agiraka egiten asi yat.

—Lo orain be, lotitzarra?

—Geldi-geldi, Txitxu! Ez egik esan *orain be*, ba eztakik len lo egon noan ala ez.

—Egia ori be.

—Ganera, yakin egik bart ez yoatala lorik egin, bost orduko loa gizonantzat naikoa doala Marañonek esan arren, zelan neutzat naikoa izan

layetekean pentsetan. Onetan emon yoat gau guztia; ta gero, goizalderik oraiñartekoa, Marañoneri jaramonagaz konturik ete yaukodan kontuak ataraten.

—Kontua eukiko dau, beti be, zur ibilteaz, ugazaba... Kanpotik izan garean artean, ostu deuskue etserik erdia.

—Orrenbeste?

—Orrenbeste be ez,... baña bai *aputxu bet gitxiago*, Sondikako sakristau Txomin selebrea-ren llobatxu selebretxuak erantzungo eutsan lez. Sondikako landan egiñiko mitin baten baturiko lagunakaitik, *naye egon dozak?* itandu eutsan mutilko lagun bateri olantxe erantzun eutsan onek: *Naye ez; naye baño apurtxu bet gitxiao*. Ta nik, onen antzera erantzuten deusadala...

—Tirok, Txitxu, esaik gauzea zirkimirkietan ibilli barik!

—Ara ba, jauna. Baki berorrek Bilboko *Gasetan* geure etsea daukoguna; ta geure etse orrek *Firi-firi* izena daukona be badaki, iñok yakitekotan, ba berrorrek imiñi be egin eutsan ta...

—Bai, bayakiat.

—Ba iakin begi orain *Firi-firi* orretatik *Fir* bat ostu deuskuela lapur barrabanen batzuk, ezer esan barik.

—Lapurrok atrapau egin bear yoaguz.

—Obeto litzake, nire eritxi argalean, eurok osturiko gauzea atrapetea.

—Bai, egia diñok.

—Baña urruntxu daukagu, ta geurea dala erakusten gatx izango dogu, antza. Ba beste antz bat artuta dabil, antza, an Madril aldean. *Firpe* gora ta *Firpe* bera dabil an jentea.

—Orduan, argi yaok gauzea: geure *Fir* polita ostu yeuskuenok... *Firpe* izeneko ganorabako zer orreri izena zelan emon asmau eziñik ibilli dozan errepublikanuai neke gitxigaz mezede bat egitearren, geure *Firi-firi* politera yo yeuskuen lapur euskaldunen batzuk dozak. Ezteritxak?

—Antza... alan dauko gauzeak. Eta nik orrei...

—Itxaroik apur baten. Azterrenak egiteari ekin bear yeutsaguk. Logureak itxiten bayeuskuk.

JIMENEZ ASUA EZTA ASUKOA

Jakiñik garrantzi (inportantzi) andiko gauzea dala, gauzeari arrantzioa egiten itxi barik, bera nortzuk ostu eikien jakitea, onetara yo dabe gure lenengo azterreneak, bera ostutera lapur barra-banok euron aldian yo eben legez.

Beingorako konturatu nintzan ni, neure logura ta guzti, geure *Fir* polita Estu jaunaren gorputz motroa baizen astuna be eztala ta, lapur batek bakarrik be artu ta eroan eikeala.

Ta onetan Txitxu bera be neugaz baten egoala ikusirik, atzekoaren begira egon barik, berari begiratuta, auxe esan neuntsan berari:

—Jakin egik, Txitxu, lapurra, edozelan bere, errepublikanua edo, gitxienez, sozialistea doala.

—Ta euskeraz dakiana.

—Ez ete dok Jimenez Asua?

—Ez, jauna.

—Zer doala ta diñok ezetz, geyagoko barik? Ez al dok Asukoa?

—Berori lo dago oindiño, antza. Berorrek esan gura daun Jimenez Asua ori... bada Jimenez Asua, baña ezta Asuko semea. Ta Asuen egon be

ezta egin iñoiz. Beti be, *Asu*-tik baño *aza*-tik urrago ibillikoa da.

—Zelan dok ori?

—Ori be itandu? Ezta gomutetan berori zelan Madrillen ikaslari batek igordi eutsan arpegia aza bategaz? Barretxu batzuk egin genduzan ba.

(1933-ko Zezeillaren 12'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI VIII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

DON KITOTE TA GANTXO PANTZA

Don Kitote ta Gantxo Pantza, jayo ostetxuan arturiko izenez, euron izenak erdizka esatea galerazota ezpadago, *Manu* da bata ta *Lezio* bestea.

Banan-banango mutillak eurak, arrayetan!

Ta euron abizenak, apelliduak, susmau izango dozuz, e? Batarena erderazkoa izanik, euskerara biurtuta, *Estu* dala esan lei; ta bestearena, Txitxu argiaren eritxiz, euskerazkoa da, ta bere esakurea, sinifikasiñoa, auxe da, erdera garbian: «Tantos como berzas».

—Iru berbatan, Txitxu? —urten deustat nik, baña, zer?

—Gitxiagotan ezin esan lei, jauna, bere antza kendu barik, —erantzun deust berak, eta bakean itxi bear.

Eurok, don Kitotek eta Gantxo Pantzak, eztaukie bakean egoteko asmorik, alkarregaz ta euron lagunakaz baño.

Zegaitik deituten yakon gurean don Kitoteri *don Kitote* ta Gantxo Pantzari *Gantxo Pantza...* arin esango leuke Txitxuk Bilboko frontoi baten, nai beste leku erazko baten, yan on baten ostean.

Alan nai olan, orainganik esan geinke don Kitote ezta *don Quijote* ta Gantxo Pantza ezta *la Sancho Panza*.

Don Quijotek, beti edo geyenetan, bere atzetik erabilten eban Sancho Panza otzana. Don Kitotek, ostera, geyenetan edo beti, aurretik darabil berari zer egin esaten eta bidea erakusten (guztiak argi ikusten ezpadabe bere), bere Gantxo Pantza.

Au egiaz da gantxoa edo kakoa. Ta gauza bitarako: sozialistak don Kitoten esanera ekarte-

ko ta don Kitote bera bere esanera ekarteko; al izanik, lenengo, auxe yaditxiten dala.

Don Quijotek eta Sancho Panzak bide ezkerretik, okerretik, ez eben ibilli gura izaten. Eskumatarrak zirean.

Onek, ostera, bestera jokatuten dabe.

Noiz-arte?

Jainkoak daki.

Alan nai olan, Gantxo Pantzaren yokoerearen barri badakigu ta, orainganik esan geinke nok irabaziko daun, *ezkerra gora ta ezkerra gora ta gora ezkerra*, don Kitotek eta Gantxo Pantzak erriagaz darabillien jokoan... azkenerantz.

Gantxo Pantzak.

Baña azkenean,... yakiña!,... Jainkoak Berak.

Zori ona, suerte ona, bere eskuan dauko Berak, eta eztauko tranparik egin bearrik yokoa irabazteko.

MAIKOA EZTA NAIKOA

Gitxitan izaten da maikoa naikoa, bear dan baño lagun geyago maira batuten badira.

Ta aorretxegaitik edo, Madrilgo Frontoi nagusian yana ta lana don Kitotek eta Gantxo Pantzak euki dabenean, yanera baño lanera lagun geyago batu dira.

Don Kitoten ta Gantxo Pantzan lana berba egitea izan da. Ta yanera eldu eztirean lagunena, euron berbea entzutea ta... eurok zer yan daben ta eurok diñoen berbeaz zer esan gura daben yakin barik be... txaloak yotea.

* * *

Baria bide okerretik gabiltz gu be, aurki, ordu onetan, gura eztogula bada bere.

MAIKOA EZTA NAIKOA or goyan esan dogunean, agirakalditxu bat geure irarkola-langilleai egitea izan da gure asmoa.

Ta, ia... egiten deutsegun polito polito!

Eztakizue, barrabantxuok, *maikoa* eztala *nai-ko*a? Ez al dakizue, *maikoa m-gaz* dala, *naikoa n-gaz* izaten dala?

Badakizuela?

Orduan, zegaitik imiñi dozue au olan?: *Ganera, yakin egik bart ez yoatala lorik egin, bost*

orduko loa gizonantzat naikoa doala Marañonek esan arren, zelan neutzat maikoa (!) izan leyetekian pentsetan.

Txitxuk eta nik mayan eztogu lorik egiten, oyan baño.

Mayan... lan edo yan.

Auxe da gure *programea*, mayan gagozan artean.

(1933-ko Zezeillaren 19'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI IX

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

SANTXEZ GERRA, SANTXEZ BAKE

Zarata onik egin eban Santxez Gerrak, Alpon-
tsogaz ministro izanikoak, Errepublika zorioneko
au ekarri arteko egunetan.

Baña orain ezta asmaten bere zaratarik, bizi
bada bere.

Esan lei orain Santxez Gerra izateari itxi ta
Santxez Bake dala.

Badauko zeri.

Berak ain maite daun seme Errafaelek leku
ona atrapau dau Alponentsoren ministro izaniko
beste jaun andi baten ondoan ta...

OTXORIO GARIARTO EZTAGO IXILLIK

Au be Alpontsogaz ministro izanikoa edo izan gurakoa da.

—Otxorio Gariarto diño, jauna? Otxorioak badagoz Mugien be. Ez ete da onen senidea, lengusua edo?

—Etxakiat orixe, Txitxu. Gauza bat, bai, baya-kiat: Mugieko Otxorioak eztoazala Otxorio ospetsu au besteko ospetsuak.

—Ori dan giñoko ganorabakoak be ez. *Yo soy monárquico sin rey* Otxorio Gariarto orrek baka-rik esan dau.

—Ganorea bayaukok, mutil, zeozetarako.

—Ez *monarkikoa* dala erakusteko. *Monarkikoa* bada, erregezaleak izan bear dau. Ba zelan izan leiteke monarkikoa erregerik gura eztaula?

—Orrek guztiok egiak dozak, Txitxu. Baña izan layeitikek *yo soy monárquico sin rey* esan eban orduan auxe esan gura izatea: *yo soy monárquico, pero no tengo rey*.

—Eztaukola? Itandu dagiskula geuri non dagoan bat, yazekoa..., ta arin esango deustagu...

—Bada-ezpadan be, itandu barik ez egiok esan..., beintzat Etxeres Kirogak yakiteko lekuan.

* * *

Gatozan barrero Txixu barritsuak eten deuskun ari gozora.

Zer izan dogu gogoan?

A, bai, Otxorio Gariarto be Alpontsoren ministroa izanikoa edo izangurakoa dala!

Goazan aurrera, Txitxuk itxiten badeusku.

—Ni ixillik nago. Olantxe egon bear eban Marañonek politikako gauzetan beti ta leku danetan.

—Txitxu, ago ixillik eu orain, Jainkoarren!

—Ixildu naz, jauna.

—Tirok ba! Otxorio Gariartori ekin yagiyogun, eure baimenaz.

Otxorio Gariarto, ba, Santxez Bake lez *neskatoa* ekarri artean, zarataka ebillen.

Baña Santxez Bake lez ezta ixildu.

Santxez Bakek legez, onek be beronen seme maite bat dauko bere bizi-modua *neskatoaren* beste etxe andi baten ataraten dauna.

Ta eztago ixillik.

Bakotxak daki zelan yokatu.

Santxez Bakek uste dau, antza daonetik, bere semea ondoen yagoten daula ixillik egonagaz.

Ta Otxorio Gariartok, ostera, uste dau bere semea berba egiñagaz ondoen ondoen yagongo daula.

Esate baterako, Azaña beste lau urtean daon lekuan egotea ondo izango dala esanagaz.

—Orrek, bai, mutillak,
yateko opillak!

—Bertsoak botaten be asi az, Txitxu?

—Ai ugazaba, bertsoak baño beste gauzarik bota gura neunke!

ORRAKO U.G.T. ORREGAZ...

Barritsutxu dago gaur Txitxu gurea.

Baña parkatu be egin bear yako gaur beste askotan baño geitxuago.

Izen andia ta ospe ikaragarria emongo deustan zeregin astun bat darabil esku-artean ta...

Beronek emongo deusku beronen zeregin onen barri, asko zirikatu barik.

—Ta, zetan yagok eure bear ori, Txitxu?

—A jauna, orixe berorreri esan-gurarik nago! Badaki zenbat esakura edo sinifikaziño atara leyozan U.G.T. ospetsuari euskera garbian?

—Euk esango dok, etxaukat neuk astirik orretan ibilteko ta.

—Berorren parkasiñoaz, lenengo esango deustat lenengo burutara etorri yatana; ta gero gerokoak.

—Ortik asi bear dok, lenengotik.

—Tira ba, jauna! Lenengoa auxe da: UZKARTI GAIXOTUEN TARRATADEA.

—Naikoa dok, Txitxu.

(1933-ko Zezeillaren 26'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI X

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXITXU GUREA, MADRILERA

Egunokaz ezta egon bakerik Txitxugaz, Madrillera, bere katu Txurigaz, yoatalditxu bat egiteko baimena emon artean.

Ta gaur urten dau arako.

Neure baimena artu ta gero... bere katu Txuri artuta.

Ez al dau beste katurik atrapauko bidean, arantzean ez onantzean!

Ba ori, on-antzean barik, txar-antzean ibiltea izango litzake.

TXURI, TXITXUREN KOLKORA

Eztau nekerik bape euki osteko katurik iñoiz, neuk dakidala, atrapau eztaun Txitxu zintzoak, urre-zalea baño ur-zalea geyago dan Txitxu txalogarriak, bere katu Txuri atrapatzen.

Baimena berari emon deusadanaz batera, Txuri bizkorrak yesarrita egon dan lekura joan ta belaun-ganera igon deutso. Ta belaun-ganetik polito polito bere eskutxuak arkondarearen paparrera botata, erpakaz kolkora-bidea billatuten asi yako; antxe, kolkoan, eroan leikela bera ondoen ondoen ulertu eragiten deusala.

Ta Txitxuk antxe egin deutso lekua.

Madrilgo ateetan ariel-zaiñen batzuk (zeladoreen batzuk) ia an zer daroan itandu badagioe, Gantxo Pantzarentzako pergamino lodi zabal bat daroala esango deusiela diñost Txitxuk, katuari atzeko oiñak mokor bien atzetik sartuten lagunduaz.

Ta katuak, au entzunik, bere bizileku barritik burua atarata, ordurartean iñoiz entzun ezteutsagun lango barre-santzo bat egin dau.

—Katuari grazia egin yeutsak, antza, eure esateak, Txitxu barrabana, —diñotsat barraban oneri.

—A, bai, jaunal Onek guztia ulertuten dau.

—Guztia?

—Berbaz ez beste guztia daki onek, ugazaba. Baña, zer esan dot? Berbaz be baki, nortzukaz esan bear ze. Bere lagunakaz, katu-lagunakaz, zelanbestean egiten dau. Aorretxegaitik eroan gura dot Madrillera, an berba egin dagian Otxorio Gariartoren katuagaz, katu orren bitartez berorren ugazabaren bizi-moduaren barri yakiteko.

—Baña, Txitxu, i ez ago ondo burutik. Zelan jaditxiko dok Txuri ori Otxorio Gariartoren katu ospetsuagaz berbaz imintea?

—Zelan? Otxorio Gariarto zein etxetan bizi dan yakinda. Bein au yakin ezkerro, bakigu nora yoan. Ta yakin dagigun egun berean, gaubaz, Otxorio Gariarto bera Kongresoan daoan arteko ordutxu baten, bere etxearen atzetxura pan... ta antxe, iñok ikusten ez gaituzala, atarako dot kolkotik Txuri bizkor au (ta baye egiten dau beronek), eta arik gorako zeregin guztiak beronen

ganera itxiko dodaz. Bai. Beronen ganera Otxorio Gariartoren etxeko teillatura igotea, ta beronen ganera beronek asmauko dituzan marra-miau egokiakaz Otxorio Gariarto beraren katu ori beronen ondora ekartea... ta katu berorreri, polito polito berba eginda, yakin bear direan gauza-txuak erasotea.

—Olan izatekotan, tirok ba! Joan adi,... joan zaiteze,... ordu onean. Ta eutsie, neure baimenagaz, neure bedinkaziñoa. Ta eztagizuela artu, laguntxuak, ez arantzean, ez bertan, ez onantzean, Asaltoko prailleen bedinkaziñorik.

BESTE KATU BAT AITATUAZ...

Madrillera eldutea ta an gauza ain garrantzi andiko orrek egitea naikoa eztala ta, albait ariñen euren elduerearen barri emoteko agindu deusat Txitxuri, Txuriri bere bizi-leku barriko atea ixi ta, geure bizi-leku onetako atea, kanpora urteteko, zabalduen asi danean.

—Emongo deusat, jauna: E.A.J. *Zazpiterdiren* bitartez. Eguaztenean, gaubeko amarterdian,

Jainkoak gura badau, konperentzi bat emongo dot, diñost *serio serio*.

—Konperentzia diñok, Txitxu?

—Bai, Jauna. Ta konperentzi ori entzun ezke-ro, eztau bear berorrek geyago ondo eldu gareala yakiteko.

—Itxiko deue gero konperentzi ori emoten?

—Gantxo Pantza goratuteko dala esango deutsiet.

—Geirik badaukok konperentzi orretarako?

—Bai, bat, jauna, ta ez makala be gero. Ona emen; ia zer deritxon: *El septimo gato de Gantxo Pantza es oriundo de Artebakarra (Derio), de donde trajo a su abuela como recuerdo de su estancia en dicho lugar a raiz de una huelga revolucionaria.*

—Ondo yaok. Baña ezer entzuten ezpayoat...

—Ezer entzuten ezpadau,... egin lei kontu amaitu yakuzala diruak, eta atzera etorteko lain batutearren, praille sartu nazala, ille beterako, Asaltoko prailleen konbentu baten.

(1933-ko Epailaren 12'an argiratu zan)

FIRI-FIRI XI

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

EZTIRA BIURTU, ANTZA

Txitxu gurea ta bere katu Txuri Madrillera
joan ziran lengo egun baten.

Beintzat, arako asmoz urten eben.

Ta ederto urten be.

Aizea poparean daukiela.

Txitxuk, oiñez; ta Txurik, kolkoz.

* * *

Esan neuntsun urrean, irakurla maitea, arako
urten ebena, zelan urten eben esan ezpaneun-
tsun bere.

Orain, zelan atzera biurtu direan yakin gura izango dozu zuk.

Baita neuk be, adizkidea.

Ba oraindiño ez yataz agertu, neure aurrera beintzat.

Eta sasoya badabe neure aurrera agertuteko, etxeratu badira.

* * *

Okerren bat ez ete yakie yazon an, Madril aldean, gure Txitxu onari ta bere katu Txuri zintzoari?

Bildur bear, an txakur asko dago ta.

GALDU ETE DIRA BA?

Mari Motakoan olloak lez, agertu balediz, *senalleak* onak daukiez.

Mari Motako au txorierritarra zan.

Ta bere olloa be bai.

Bere etxean yayoa.

Neuk ez nebazan ezautu bata ez bestea, neure amama bien amamaren aldikoak zirean ta.

Baña Marik berak ondo ezaututen eban bere ollo ori, antza.

Ba aldendu ei yakon bein, alango baten, berak igarri barik, mutil errondariren batzun eskuz alide eginda, ta aldendu ta gero, ille-betegarrenean be, guztiz galdutzat euki barik, auxe esaten eutsien, seguru be, Mari zurrak bere auzoko andra lagunai:

Senalleak onak daukoz,
agertu baledi.

Txitxu gureak eta bere katuak be ezaugarri onak daukiez.

Txitxuk berak iñok eztaukon lango oraiñen polit-polit bat dauko bere eskumako belarriaren zulo-ganean.

Ta katuak, Españako bandera zarraren antzeko zertxu bat, bere kolore ta guzti, kokotaren erdi-erdian.

Aorixe zertxu ori eukiteak galdu ezpadau...

Asaltoko prailleren batzuk ikusi badabe geure katu ori ta erreparau badeutsie bere kokoteko zertxu orreri...

Ganera, lodi-samar be eroan dituz kokotaren atzeko lepoa ta inguruak eta... jun!

Jun esan dot? *Jan* bere ez ete dabe egin gero?

* * *

Dana dala, ziur esan neinke Txitxu eztala etorriko bere katu ori barik.

Alan emoten dau ulertuten, bidean doazala, Burgosetik bialdu deustan telegramatxu onegaz:

Ugazaba, emen gaur au entzun dogu: Txorierrin euskera barri bat sartu dala. Barrabana!

Onako gure katu Txitxuk, au entzun -orduan, marramia garratz bat egin deust kolkoan, bere asarrea erakusten deustala.

Ta esan deust, entzun dogun barri au egia dala orrako gure «Gaceta» maite orrek badiño, bera eztoala geyago Txorierrira.

Ba gurago daula bizi Katu-errin (Madrillen), Etxeres Kirogagaz, Txorierrin euskera barriagaz baño.

Ta au neure katu maite au Madrillen geratuten bada, baki, ba, jauna, neu be...

EGUAZTEN-GAUBEKO KONPERENTZIA

Eguazten-gaubean, or, amarterdiak inguruan, jo ta su ibilli nintzan neure radio-tresneagaz, E.A.J. *Zazpiterdi*-ren bitartez, Txitxuk bere elduera onaren ezaugarritzat aginduriko konperentzi panparroya entzuteko asmoz.

Baña ez neban entzun bere barbarik, neuk dakitala beintzat.

Ordu orretan entzuten neban berbeak beste batena zala emoten eustan.

Izan leiteke, orraitino, E.A.J. *Zazpiterdi* ori, beste askotan lez, moteltxu ibiltea.

Onenbesteko zoriona zarri izaten da E.A.J. *Zazpiterdi*-gaz. Ta auxe gogoratuteak emoten eustan itxaropen-apur bat.

Izan zeitekean Txitxuk andik berba egin ta bere berbea zan lez ona ez eldutea.

Kontsoletako modua daukogu, moduren baten, gogoraziño onegaz, E.A.J. *Zarpiterdi*-ri eskerrak.

(1933-ko Epailaren 19'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

AGERTU YATAZ TXITXU TA TXURI

Gaur eldu dira ona, euron etxera, Madril alde-tik izaniko geure Txitxu ona ta bere katu Txuri zintzoa.

Txitxu agertu yat lenengo.

Ta Txuri... gero. Txitxun kolkotik urten dau-nean.

Nire poza, biok neure aurrean ikusi dodazan orduan!

Areñegura ezkerro, euron barririk ainbeste egunean eztaukadala konturaturik, galdutzat euki dodaz, ta esan be egin deusat Txitxuri, katua nagiak ataraten ibili dan artean:

—Galdu azala ta egon nok ba, Txitxu.

—Ni galdu? Igarla txarra izango zan berori, jauna, galdu izan banintz. Ba bein baño geyagotan esan deust berorrek: *I ez az legorrez galduko.*

—Bai, egia dok ori. Ta i, oraingoan, ez az yoan Madrillera itxasoz.

—Ai, ugazaba, itxasoz ibilteko ez gara gauza Gantxo Pantza ta ni!

—Ik eztakik Gantxo Pantza gauza dan ala ez.

—Bai, jauna. Dakianak daki nor dan Gantxo Pantza; ta nik ondo dakit bein, Primo Riberan txakurrakandik itxasoz iges egin gura izan eban baten, zelan ibilli zan. Itxasoko zerak ez eban bera ondo artu, lodiegia dalako edo, ta bide erditik atzera etorri bear izan eban Bilbora... Ta gero legorrez egin eban iges, bapere zer barik, praille yantzita.

—Ikusteko mutilla egongo zonan bera praille yantzita, bere buru murri (kalbo) ta bera-begirako begitxu biakaz. Baña itxi yayogun orain bakean...

—Jauna, itxi dagioela berak eta bere lagunak bakean prailleai. Ezteritxo kontua daukola, berak

beintzat, prailleai bakean itxitezaz? Prailleak Españatik kanpora bota ta gero, iges egin bear daunean, eztau gauza izango praille-yantzia iges egiteko.

ZELAN IBILLI DIREAN

Gantxo Pantzak urrengoan, iges egiteko, zelan yantzi bear daun yakitea Gantxo Pantza-ren bururako itxita, andik, Madril aldetik, eurok zelan ibilli direan osan dagistala eskatu deustat neuk, olango baten, Txitxuri.

Ba auxe ez geunke yakingo, Gantxo Pantzari beti ekinda.

—Ibilli ondo egin gara, jauna, diñost berak, baña eztoгу ezer egin.

—Eztozuela ezer egin?

—Egin bei kontu eztoгula ezer egin; ba ez nik emon al izan dot, E.A.J. *Zazpiterdi*-ren bitartez, berorreri agindu neuntsan konperentzia, ez Txurik jadtixi al izan dau Otxorio Gariartoren katu ospetsuagaz berba egitea. Neure konperentzi panparroya emon barik geratutea, ugazaba,

orreri Txuri barraban orreri zor yako. Berbaz asteko yesarri nazanaz, batera, yesarkeran, kili-kili neuk gura eztodala egin deusadalako, edo berau, non gagozan begiratu barik, biderako eroan daun *Kili-Kili* liburua irakurten egon dalako, barre-santzo bat egin dau, ta... agur gure konperentzia. *Burlezar* nabillela uste izan dau bertako ugazabak edo dana dalakoak; eta onek barraban onek ez, baña neuk anka egin bear izan dot. Eta pozik, neure ankarik ez beste neure gauzarik galdu barik, au osorik eta estarian dodala, atea atrapau dodanean. Ta begiratu begio barrabantxu oneri. Barreka dago oraintxe be.

—Orain ez yaukok ba *Kili-kili*-rik.

—Ez; orain, *Zaparradak* eta. Egin deuskun bear txarra eragiteko liburu bietatik bata naikoa dala, biak eroan dituz barrabantxu onek.

—Eta, Otxorio Gariartoren katu ospetsuagaz orrek berba ez egitea zegaitik izan dok?

—Ezbear andi orren errurik eztauko iñok, jauna. Igon dau onek ganoraz Otxorio ganorabakoaren etxeko teillatura, ta marramiau egokiak egin be bai zelanbestean; baña, katu ospetsua-

ren ordez, bere atezaiñaren katuak urten deuto, ta emon deutso ulertuten, katu-euskera garbian, bere ugazaba nagusi ganorabakoaren katu ospetsu ori gaixorik dagoala, gripeagaz,... ta eztagoala iñogaz berba egiteko tayuan; ba, ugazaba nagusi ganorabakoaren antzera, burutik egiten daula...

—Osatu dala yakin dagizuenean barriro atzera yoatekoan geratu zarie?

—Ez neu ortan ortan! Doala berau bakarrik, berbarik emon badau.

—Yoango nintzakek neu ba, astia ta modua baneunkozak. Eta bertan geratu be...

—Ez beite yoan, ta ara be gitxiago bertan geratu... Entzun bei or zoro batek zer diñoan kanta-soñuan.

—Ixillik orain, kтуа! Entzun zuk be, Txuri, zoroak diñoana!

* * *

Ai, ene Jaungoikoa!
Zeruan banengo,
ez nintzake geyago
mundura etorriko!

* * *

—Eztok zorakeria ori esatea, Txitxu.

—Zorakeria bai izango litzake, ugazaba, berorren aboan, gauzak aldatu artean beintzat, auxe esatea:

Ai, ene Jaungoikoa!
Madrillen banengo,
ez nintzake geyago
Asura etorriko!

—*Asue* aitatu deustak, Txitxu barrabana? Badakik barrabantxu orrek, neure biotzari entzunda edo, *Asura* geyago ez etorteko promesik egin ezin nayeikena neuk... ez *Madrillen*, ez *Murtzien*.

(1933-ko Epailaren 26-an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XIII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

MATXALEN, EZKERTARRAK ETA TRENA

Lerrousen eritxian, antza dagoanetik, Errepublikoa triste dago.

Gauza tristea bada, ba, triste egotea, beti be, triste dagoanantzat... Triste dagoanantzat berantzat eta bera maite dabenantzat.

Gauzea argi dagoala esan lei, tristetuteko gauzea bada bere.

* * *

Beste gauza bat be badakigu, Lerrous zurrari eskerrak.

Errepublikak triste onek beronen andra-izena daukola.

Ta *Matxalen* dala beronen andra-izena.

Ba berau triste dagoala esan ta beingoan, argi ta garbi esan dau: *La Magdalena no está para tafetanes.*

—Matxalen Oriubelgorri izango da, ugazaba.

—Oriubelgorri? Zegaitik, Txitxu?

—Bere yagolak ezarri deutesiezan iru kolorea-kaitik.

—Pillosopo andia az, mutil; baña ibili adi arduraz ta kontuz... olango pillosopokeriakaz, laprast egin barik.

—Yausi ezik...

—Aortxe yagok untzea gauza askotan: laprast egin eta ez yaustean...

—Egi andia ori be. Alan egon leiteke bat edo bat bultz egiteko be ta...

—Ta... ta, ta. Gayoazan orain beste gauza batera, beti baten egon barik.

Txori-erriko aita on batek, beste bearrik ez eukanean, bure emaztearen eskutik artuta, eurok ain maite eben amar-amaika illebeteko semetxua, amar edo amaika illebetekoa berau zan artean, zarri be zarri iminten ei eban bere belaun ganean, ta, bera belaunagaz gora ta bera darabilela, auxe kantatxu au kantaten ei eutsan:

Nire semea, semelote!
Martien dauko urte bete.
Beste Martien, beste bete.
Ta orduen bere... semelote.

Aintat bidar kantauko eutson Lerrousek berak ain maite daun *neskatotxu* orreri, orain urte beterartean, bere belaun ganean artuta, Azañak eta itxi baleutsie. Txorierriko aita on orren kantatxu au jakiñik, kantatxu onen antze-
ra, au beste au:

Nire neskatoa, neskatote!
Aprillean dauko urte bete.
Beste Aprillean, beste bete.
Ta orduen bere... neskatote.

Eztakigu gaur zer kantauko leuskion.

Baña... itxi dayoegun onei gauzoi, ta goazan beste gauza batera.

Treanean yoan geintekenez, gura izan ezkerro.

* * *

Orra or Norteko trena!

Aortxe egin ezpagei bijatxu bat Balladolisera, Zuzentasuna ta Azkatasuna, (erderaz, *Justicia y Libertad* izena daukien neskato panparroyak), alkarrereri eskuak emonda, zelan dabiltzan uri orretako kaleetatik ikusten...

* * *

Uri orretan, domekan, ikaslari (estudiante) katoliku batzuk, eskubiderik (deretxorik) ete daukien ondo begiratu barik, jaurlariaren baime-na, gobernadorearen permisoa, badaukiela ta, paper batzuk zabalduten asi zirean.

Eta uri berorretako ezkertarrak asarratu egin yakiezan.

Arrazoyaz ta, ez eutsien ondo eritxi ikaslari katolikuak paperak zabalduten kalerik kale ibilteari.

Anditxua egin be egin dabe ikaslari katolikuok.

Kalerik kale ibilli bear dabela euron paperak zabalduten! Eztago *deretxorik!!*

Teillaturik teillatu, bera yausteko arriskuapur bategaz, ibilli balira,... tira!,... baña, kalerik kale?

* * *

Ikaragarrizko zorakeriak egin dituez gero ezkertarrak, ikaslari katolikuak egiñiko sentzunik bakokeria ikusiaz artu daben suagaz.

Bai, ba.

Orain, ondo izango litzake ara gutariko bat yoatea, ezkertar *arrazoizaleok* euron amurruez egin dabezan zorakeriak ikusi ta gero, Zuzentasuna ta Azkatasuna pozik ete dagozan yakiteko.

* * *

—Yoango gozak, Txitxu?

—Bai, jauna, Norteko trenean. Norteko trenak jentea merke darabil, antza.

—Orain etxagok merkerik ezer, mutil.

—Ba neuk diñotsat berorreri, ugazaba, Norteko trenak ikaragarrian izan bear daula merkeak, Gantxo Pantzaren ardurapean dagoanetik gora. Igazko Zezeillean baño... bost milloa ta laureun milla peseta batu ei ditu gitxiago aurtengoan.

(1933-ko Jorraillaren 2-an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XIV

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

EZ GALDU UMORE ONA!

Gazteak gogoaz zoro da esakunea.

Ta zoro be zoro daukie, antza, euron gogoaz egunokaz Bilbon espetxeratu (kartzeleratu) direan nazionalista gazteak.

Espetxean dagozan artean jan barik egon bear dabela erabagi dabe.

Ori dok umorea!

* * *

Benetan erakusten dabe umore ona nazionalista gazteok.

Baña umore on ori eztae bide onetik, Txixuren eritxian; ta, egia esan, neure eritxian bere ez.

Arerioai bakarrik barre eragiteko bidetik daroela uste dogu geuk, Gantxo Pantxak ezetz badiño bere.

* * *

Umore ona daukonak ondo egingo dau, beti be, umore on ori yagonagaz.

Jan barik luzaroan dagoanak, barriz, gatxeukiko dau bere umore ona yagoten.

Umore txarra bai yagon lei yan barik eta edan barik be.

Egizuez, gazte umore on-zaleok, zeuron umore ona ez galduteko moduak!

Zeuen arerioai kontsejurik eskatu barik.

* * *

Umore onak, gazteak, bere *entxufetxu* ona bear dau, Korderontzako danak itxi barik!

Polito erakutsi eban egi andi au, Tapia olerkari arrikalariak baño aurreratxuago, olerkari sentzun andiko batek, *entxufe*-izenik aitatu barik baña, egi andi berau esangurako berba osungarri onekaz:

Mens sana in corpore sano.

Mens sana. Auxe lenengo.

Aonetan dauko umore onak bere lenengo bizibide nausia.

Baña au eztau naikoa.

Bere *entxufetxua* bear dau: *in corpore sano.*

Ta *entxufetxu* au eukiteko, eztago *sano* jan bearrik; baña bai bada bear-bearrekoa gosea kenduteko beste jatea.

* * *

Ganera, konturatu bear dozue, gazte umore on-zale euskera-zaleok, *biziak bizi-lan egin bear daula*, euskerazko beste esakune jakitun batek diñoan legez.

Ta ez aitzu beste esakune euskerazko batek auxe diñoala entzun gura dabenentzat: *norberantzako eztana ezta iñontzako*.

Alan da ze... norberaren ta norberatarren barre-antzako be ez.

Gauza *serioa* da umore ona yagoteko euki bear dan ardurea.

TAPIAREN TAPEA

Madrilgo Tapia olerkari arrikalari ospetsuak, Errepubliketa bere bertsoetan goratu gurarik, ainbeste bada-ezpadako bertson artean, iñoiz aitzuko ez yakun bertso *panparroi* au yaurtin euskun:

*iQué bien, qué bien, qué bien
va el tren, va el tren, va el tren!*

Baña, antza daonetik, orain *tren* ori berak gura daun lez eztabillelako, edo bera berak gura leukun lez eztabillelako, edo gauza biokaitik, itxi

dau bere bertsoak jaurtiteko artuta euki daun luebana, trintxerea.

Zati baterako, ain ondo irabazita daukon atsedena bere buruari emoteko itxiten deutsalara bere bertsozko lan orreri diño berak.

Baña Txitxuk ezteutso siñistuten.

Ta, bere antzera, bertsoan diño beronen eritxia.

Auxe da Tapiak gaurko
topau daun tapea
estalduteko *trenak*
topau daun topea.

(Au, zerbait geyagogaz,
1933-ko Lorailaren 7'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XV

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

OTXORIO TA BERE SEME POLITA

Bein baño geyagotan esan leyo Otxorio Gariartori, berak ain *polito* egiten dituzan gauzak ikusirik:

—I az semea!

Baña bere semea ezta bera.

Bere semea Otxorio Polit da, *ondradamentean*, Gobernuari ta Errepublikeari lagunduteko.

Otxorio Polit esan dot?

Bai, aurki.

Otxorio Florit ei da, baña politago dala ta,
Otxorio Polit deituten deuntsagu Txitxuk eta nik.

Ta ze polito yarraituten deutson bere aita
ganorabakoari!

Edo... onek berari.

Alan nai olan, biak be... eztira txarrak Gober-
nuaren ta Errepublikaren opillari su egiñagaz
euren etxekoari su egiten.

—Jauna, itxi beist niri bertsoan esaten bero-
rrek orrekaz berbokaz esan daun guztia edo
geyena...

—Tirok ba! Baña kontuz ibilli adi, eure burua-
ri egurrik batu barik. Eurok etxe-kalte eztozala
esaten asi ta, eu etxe-kalte biurtu barik, kontuz
ibilli, Txitxu! Etxeres Kiroga ospetsua Españan
yagok oindiño.

—Badakit, jauna. Jaungoikoak yagon gaizala,
ugazaba! Or doa bolea. Emeretzi egiten ezpadi-
tuz be, katxiña aparauko dau urrean.

Otxorio Gariarto
ta Otxorio Polit,
etxe-kalte eztiran
aita-seme bi,

alkarren antzean
su ta gar dabiltz,
Errepublikarean
opil onari
su egiñaz, su egiten
etxekoari.

* * *

Errepublikak
baukoz lagun bi
orrekaz gaur; baña
biar edo etzi,
ikus dayenean
neskatotxu ori
fi dagola..., biok
eingo deutse *fit*.

TXITXU, KONPLOT BATEN SARTUTA

Neuri ezer esan barik konplot baten ezta
sartu ba Txitxu gurea!

Oraindiño eztoguz ikusteko guztiak ikusi.

Ta, zer ikusi bear ete dogu?

Auxe yakitearren deitu deustat ointxe Txitxuri berari neure ondora.

Ta itandu bere egin deustat.

—Esaik bene-benetan: zer darabilk egunokaz?

—Nik, jauna, soñeko jantzia ta lantzean zigarro bat edo beste. Orain fumetan be ikasi dot eta.

—Sasoi onean, arranoetan!

—Oraingoan fumetan yakitea ondo etorriko yat.

—Zetarako?

—Geure *triunfo*-egunean txapliguak (bolanderak) botateko. Txapliguari zigarroagaz emoten ei yako sua ondoen ondoen.

—Zelango *triunfoa* dok gogoan?

—Bilbon aste onetan irabaziko doguna.

—Nortzuk?

—Geure eskuz, geure buruz asmauta daukugun bear zaratatsu bat egingo dogun euskalzalak; eta geure bitartez, berorrek eta beste euskalzale guztiok. Golpea emon bear dogu, ugazaba.

—Emon barik, artu egin ezpazengie gero...

—Ezpei euki bildurrik. Zur gabiltz. Atan be ni.

Badaki berorrek ni kaikutzat iñok ez naukana. Ba, geure *planak golpe* orretarako berbatuta daukodazan lagunai aitatu bear deutsiedazan eskutizetan, *Kaiku* iminten dot neure firmatzat. Eta noizik-beiñean, poliziakoak igarten gatxago euki dagien, aolantxe: K.I.Q.

—Asti gitxigaz nayagok eta, esaik arin zer egingo dozuen.

—Berba gitxitan esango deutsadaz geure planak. Lenengo, biñan-biñan, ordu bat-baten, Bilboko liburu-denda guztietan atrako-antzeko bat egin, euskerazkoak edo latiñezkoak eztirean liburu guztiak liburu-denda bakotxaren aurrean eukiko dogun autoan edo kamioyan sartuten doguzala. Gero, euron liburuakaz, autook edo kamioyok Artxandara eroan, liburu-dendariai... ara datozala kobretan esanda. Ta antxe, liburu guztioi, pillo baten imiñita, txapligu otsean, sua emon. Ta erre guzti-guztiok, antxe. Bilbok eta Txorierrik ikusi dagien euskereagaitik zelan geu erreten garean.

—Pillo orretatik erderazkoren batzuk apartauko dozuez, orraitino, surik eurai emon barik.

—Batxu be ez, ugazaba!

—Euskerea bera irakastekoak be ez, Txitxu?

—Ai, olangoak, bai, jauna! Etxe-kalte ez gaitazan izan. Bear ona egingo geunke geure GRAMATICA VASCA ta erreagaz! Parkatu bei, ugazaba. Ta ixillean euki bei gauzea, berak geure eskuz zarata egin artean.

(1933-ko Lorailaren 14'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XVI

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

GANTXO PANTZA TA BERE ZORITXARA

Gantxo Pantzak diskurtso bat bota deutsie bere erritarrai Obiedon, lengo domekan.

Dirurik ez deutsie bota.

Tira! Euki be eztauko dirurik berak olan, bota-ka, erabilteko.

Diruaren ordeaz, antxiñako bere zoritxarraren gorantziak emon deutsiez.

Gogoan daula esan deutsie berak *serio serio* zelan zoritxarrak bultz eginda etorri zan andik ona, geure artera.

Zoritxar ori albo batera zelan bota al izan
daun esatea urrengo baterako itxi dau.

* * *

Ezin siñistu dau Txitxuk Gantxo Pantza ori
ona bere zoritxarrak bultz eginda etorri danik.

Onen eritxi argalean, Gantxo Pantza bera
baño apur bat argalagoan, ezin izan leiteken
gauzea da zoritxarrak bultz egitea zoritxarrak
berak bere eskutik dakarren morroyari.

Ta Txitxurentzat argi dago zoritxarrak bere
eskutik ekarri deuskula morroi polit ori.

* * *

Yakingo da biar-etzian zelan sartu zirean
emen Gantxo Pantza ta bere zoritxarra.

Baña, Txitxuren ustez, Gantxo Pantza emen
sartu zanean bere zoritxarra be sartu zala ber-
ton, beragaz batera, egi andi bat da.

Ta, baita bere egia da... aspalditxuon batera
eztabiltzana.

Bera ona ekarri eban zoritxarra aspalditxu onetan zabal dabil geure artean, baña berari ukutu barik.

* * *

Ai, bera ona ekarri eban zoritxarra bera barik etorri balitz!...

Auxe esan dau Txitxuk ointxe... sispurutxu baten erdian.

* * *

Oraindiño geyago be esan lei aurki ta jarraitu daigun aurrera.

Gure eritxian, Gantxo Pantza ona ekarri euskun zoritxar *peste* ori geutzat, bera edo beratarrak ez gareanontzat, da *zoritxarra*.

Baña berantzat beintzat, eta aspalditxuon beiñik-bein, munduan zoriona egiazkoa izan leiten bestean, egiazko zoriona da.

* * *

Bera ona ekarri euskun zoritxar ori, askontzat *zoritxar* egiazkoa dan berori, aitatu ta ospatu ta gero, Gantxo Pantza zorizkoak buruko yoan baten antzeko bat izan dau.

Ta aratiñik yausten asi da.

—Ta ezta yausi? Ezta trageu bein?

—Txitxu, ez adi estutu.

Yausten asi ta gero, zutundurik, gora ikaragara bat yaurtin dau, seguru be.

Biba la Republika! esan ei dau gora orretan.

Aorretantxe be suertea euki dau.

Aratiñik yausten asi danean bere alboan egon direan adizkide batzuk artu dabe euron besoetan, ta zorizko besootan artu daun otsagaz saltu andi bat egin dau bere gorputzak, eta saltu orren indarragaz urten dautso ain indartsu osterantzean makaltxuago urtengo eutson gora zarata andiko orrek.

Eta *gorearen* indarretik neurtuten bada Errepublikaganako maitetasunaren indarra...

Naikoa esan dogu urrean.

—Berorrek bai, naikoa esan dau, geyago esateko gogorik ezpadauko; baña nik...

—Ik zer?

—Nik kontuak eskatuko neuskioz orreri morroi orreri. Lenengo lenengo, ia zegaitik eztaun esan, ondo ikasita dauko ta, arako beño-la liburu baten idatzita itxi eban esakune egoki au: *Buruko miñik* ez. Buruko yoan baten osteko onaldirako, zer esakune egokiagorik ori baño?

—Txitxu, ori baño inportantzi geyagoko kon-turik bayaukok.

—Baña danak eskatuko neuskioz nik banan-banan.

—Orain ez yagok astirik, Txitxu.

—Astoak bai, asko, España zabalean.

(1933-ko Lorailaren 21'ean argitaratu zan)

FIRI-FIRI XVII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

MITIÑA, MOTIÑA TA MUTIÑA

Beti be, agrario-izeneko zerak zer direan ondo dakie eurok,... agrario-izeneko zerok.

Alan nai olan, eztira eurok *zero a la izquierda*.

Zero a la izquierda eztireala... naikoa argi erakutsi eben oraintsurengo botaziñoetan.

Ta *zero a la izquierda* eztireala naikoa argi orduan erakutsiteaz asetu ez ta, orain mitin nausi ikaragarri bat emon gura izan dabe Balladolisen.

Mitin nausi ikaragarri orregaz barriro be eurok *zero a la izquierda* eztireala erakusteko.

Beti orretan: eurok *zero a la izquierda* ezti-reala erakusten.

Ori da orren yokoa.

Ta sozialistak orreri yoko orreri ezteritxie ondo. Arrazoyagaz.

Ba yoko orretan eurok eztabe olgetan bape.

Apur bat geyago olgetan dabe euron entxufe-iokoan.

Ta orretxegaitik, agrario-izeneko zeroi euron yokoa galazotearren, iñon direan zemakuntzak egiten asi dira.

Mitiña agrario-izenekook egiten badabe egin, eurok-o...

Ta Etxeres Kirogak esan dau:

—Kapas kapas dira onek *motiña* egiteko. *Mutiña* agindu dagiogun Agrario-izeneko Alderdiari, *mitiña* galazo dagiogun, beste Alderdi onek *motiña* egin eztagian.

KARLISTAK DAUKIE ERRUA

Naparroako karlistai otu yakien, akordau yakien, egun zorigaiztoko baten, Estellan mitin bat egin bear dabela.

Albait lagunik gitxien batutea gura leukiela esan barik.

Eta beste egun zorigaiztoagoko baten, il onen 21-ean, egin be bai mitiña lagun-pillo ika-ragarri bategaz. Lagun larregaz, kontxo!

Ta, jakiña, Joakiña!, Etxeres Kirogak egin bear zeozer, agrario izeneko burugogorrekoak egin eztagien bardin, aolantxe, lagun larregaz, euron mitiña.

TA ORAIN TXURI... ZER-EGIN-EZEAN

Txitxuren katu ospetsua, geure Txuri, lagun gitxigaz ibilten zalea, Otxorio Gariartoren katu entzutetsua errepublikanotu egin zala entzunik, katurik geyenak errepublikanotu direala ta egoan.

Ta zer-egin-ezean pareu zan.

Ta olantxe, zer-egin-ezean, zer egin eztakiala, egon zan egun batzuetan.

Olango baten, orraitioño, Txitxuk erpetara yaurtin eutsan arrain bat yaten egoala, konturatu zan bera zalea dala lagun gitxigaz ibilten, ta, bere zaletasunaren erara yokatu gura izan ezke-ro, ondo izango daula nondik lagunik gitxien dabilen yakitea, berak be andik yokatuteko.

Ta onetan egoala, laster entzun eban, bera billa ibilli barik, berak yakin gura izan ebana.

Alboko etxe baten, batabatek auxe esan eban berak entzuteko eran, besteren bategazko eztabaidan:

—Karlístak lau katu baño eztozak!

—Ba nigaz, bost —erantzun eban berak, eztabaidakoak entzun ezpaeutsien be—. *Nigaz, bost*, esan dot! Baña, kontuz... Askoko geyago ez gaitetzala izan.

* * *

Ta orain ikusirik asko geyago direala bera ta bere lagunak, katu, gizon, andra, neskatilla,

mutil ta ume, naste geyago barik, barriro pareu da zeregin ezean.

Alan nai olan, karlisten kontrario eleuke izan gura.

Obeto esateko gauzea, dan lez ta euskera garbian, eztau izan gura karlisten arerio... bizi dan artean.

Ta eleuke il gura Madrillera Txitxugaz beste joatalditxu bat egin barik.

An, gora Erre..! (beste Erre... bat), Txitxuren santzoen artean, berak al daun eran, indartsu indartsu esateko.

Esan lei Txurik burua bere lekuan daukola.

(1933-ko Lorailaren 28'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XVIII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

MAZIARI, MAZIA

Mazia Madril aldetik dabil egunokaz.

Ta Gantxo Pantzak apari bat emon deutso uri atako yatetxerik dotoreenatariko baten.

Eurok be dotoreak dira ta..., ezta mirari.

—Ta aparria bera be olangoxea izango zan, ugazaba: dotorea. Dotorea baño geyago izan ezpada...

—Dotorea baño geyago, Txitxu?

—Bai, jauna. Dotore-dotorea.

—Izango zoan, bear-bada.

—*Bear-bada* barik, ugazaba.

—I ez az egon an, Txitxu.

—Ni ez naz egon; baña Gantxo Pantza bera egon da, antza, apari orretan,... ta Gantxo Pantzak apari orretan, Maziarentzako guztia itxi barik, lotsearren be, yango eban berari *tokaten* ekiona. Ta berari *tokaten* yakona, beti be, yateko kontuan, dotore-dotorea izan deiten moduak egiten maisua da ta...

—Orduan, ire eritxian, ez yagok iñori itandu bearrik apari ori dotore-dotorea izan ete doan ala ez.

—Ez orixe! Beste gauzatxu bat bai itandu lei, berorrek baderitxo...

—Zer?

—Apari dotore-dotore orretan, apariko kopau gozoen artean, Gantxo Pantzak berak Maziari berari zelango *mazia* bota deutson agora.

OTXORIO GARIARTORI, MAZUA?

Erromanonesen seule Albarok, bere aitaren izenekoak, Otxorio Gariartori, mazia barik, mazua yaurtin deutso.

Mazua edo... *ma-gaz* asten dan beste gauza bat.

Makillea edo antzekoa.

Makillakada antzeko onik yaurtin deutso.

Bat... polita be polita jaurtin deutso, «Monárquico sin Rey ta católico sin Dios» dalako zera emoten daula esanagaz.

Ta beste bat be yazekoa, auxe egiten daula arpegira boteaz: «uso constante del vaso, llenándolo primero en el *grifo* de un régimen y luego en el otro».

Makillakada guztiak banan-banan esateko astirik eztaukogu geuk, irakurlea, eurok artuteko astia Otxorio Gariartok berak euki badau be.

Alan nai olan, Otxorio Gariarto ori ondo *markauta* geratu dala esan lei.

Baña... *markarik* andiena berak egin dau, berak erabili daun yoko politagaz.

Olango *markarik!*

TA, SOCIALISTAI... ZER? OSTATUA?

Barikua da gaur.

Gaur zortzi lez.

Ta atzo, eguena izan dan atzoko egun zorio-nekoan, errepublikanuak, errepublikea ta sozialistak ondo ezaututeko zio edo motiboa daukon diputadu errepublikanu batek (orretarako da radikal-sozialistea) auxe esan ei deutse Madril-len, askok entzuteko lekuan, bertan egon direan diputadu sozialistai:

«Los republicanos debemos ser dueños de la República, y no vuestros pupillos».

Jaun orren eritxian, errepublikea *ostatu bat* da, errepublikanuak, *ostatariak*, eta sozialistak *ostatuaren yaubeak*.

—Nik zeozer geyago be esango neunke, uga-zaba.

—I ago ixillik, Txitxu, kontu onetan, badaez-padan be, Etxeres Kiroga ospetsuak Españatik alde egin yoala entzun artean.

(Au, zerbait geyagogaz, baña orain geitukoa barik, Txitxuri aitzu yakon egun baten argitaratu zan).

FIRI-FIRI XIX

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

EZTA EDOZELANGOA

Azañaren Gobernua bai ilgo ez ilgo ikusi nebanean, Txitxuk ez ainbeste, baña neuk burua estu ikusi bear dodalako gogorra ikusi neban edo euki neban beintzat.

Ba beingoan susmau neban gobernu ori, bai ilgo ez ilgo egonik, laster *krisisean* agertuko zala.

Ta Errepublikantzako bere gobernua krisisean agertutea lantegia bada, neutzako ezta lantegi txikia krisis izeneko gauza ori aitatu bearra, erderazko izen baragarri orrek esan gura daun berba euskerazko bat erabilliaz.

Gogamen onek buruan daukodazala, aurrean euki dot zabal zabal, yesarleku baten yesarrita, Txixu zorizkoa, Gobernu krisisean dagoala entzun dudan orduan.

Ta atzekoaren begira egon barik, beroneri itandu deusat:

—Zelan esango yoaguk *crisis* euskeraz? Esateko ordua eldu dok, Txixu, ta ez yakiat. Au dok estualdia!

—Aorixe da *krisisa*, ugazaba, iztegi baten irakurri dodan lez bada.

—Zelango aorixe?

—Bai, jauna, aorixe: *estualdia*. Alan da ze, ezbeite larregian estutu. *Krisisa* esateko, *estualdia* esan bei, ta bakea.

—Baña, Txixu, krisisa eztok izaten edozelango estualdia.

—Ez beite ito titera bete urean! Euki bei kontuan Errepublikaren gauzen krisisa be eztala edozelangoa.

BADA-EZPADAN BE, KONSULTATXU BAT

Oraingo krisisa edozelangoa eztala yakiñik, ondo izango dala zelangoa dan yakitea adierazo deustat Txixuri.

Ta ondo pareu yako au, antza.

Baña ez yako ain ondo pareu... zelangoa dan yakiteko konsultatu bat egin bear dodala esatea.

—Olan dala, eztauko berorrek, ugazaba, nigaz bear dan konpianzarik, esan deust.

—Konpianzea, bai; baña...

—Tira! Deitu beyo berorrek gura daunari. Ta gero, baderitxo,... deitu beist neuri.

—Txuriri deituko neuskiok nik orain.

—Ondo dago, jauna.

Txixuk ondo dagoala esan deust, baña eztago ondo Txuri gurea. Elgorri ikaragarri bat dauko, ta eztago berbarik egiteko yazean, Gordon Ordagok diñoanetik. Au berau bai ondo dago, ta ondo dabil ibilli be, antza. Beroneri itandu ezpaneyo...!

ATAN-ORRETAN...

Ai, irakurla maitea! Atan-orretan, yoan yaku astea, lengo aste guztia, geure *Firi-firi* barik!

Baña... poztu gaitezan. Zoritxar orren alderako, zorion yazeko bat izan dogu.

Aste orretako *Firi-firi* gozoak urten bear eban egun berean, ain zuzen be, Txitxuk irakurri dau paperetan zelan deituten deutsien askok Azañak bere gobernuaren krisisari emon deutsan epayari.

Komedi bat izan ei da.

Ta Txitxuk auxe diño gero bere burutik:

—Ez ete da izan *komedia krisisa* bera be!

—Ai, Txitxu, i aiztuta ago Txorierrin komedia-ri zelan deituten yeutsien! Eztok entzun iñoiz erderazko «habrá comedias» esateko, «fañek ixengo dire»?

—Baita au be entzun dot iñoiz, ta berorrek be bai, bear-bada:

*Komediak, Mari, Mugien:
zazpi atso zortzi gurdien.*

—Zarritan yazoten dok, Txitxu, bertsoa egi-tearren, berba bat esateko beste bat esatea.

—Erriaren lepotik yatearren, orrako... orrek gauza bat esateko beste bat esaten daben lez... ezta?

(Au, zerbait geyagogaz,
1933-ko Bagillaren 18-an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XX

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

EUSKALZALEA BADA, AINBAT OBETO

Bilboko «Acción Errepublicana» deritxon moltsoko morroyak batzartxu bat egin dabe oraintsu.

Ta batzartxu orretan erabagi gogor bat artu dabe.

Euron artean euki daben Aldasoro jauna euron Alderdikotzat ordutixek aurrera ez eukitea.

Zegaitik erabagi ori artu daben yakin nai yakin ez bardin izango deutsie askori; baña euron aurrean euki daben Aldasoro jaunak yakin

dagian edo, erabagi ori artu baño lenagotik esan dabe erabagi ori artuten dabela, Aldasoro jaun ori... euron Alderdiko lez diputadu urten ta gero radikal-sosialista izenekoen Alderdian sartu dala-ko.

Aldasoro jaunak, an, esan dau zeozer bere burua garbituteko.

Baña alperrik, bere lagun zarron eritxian.

Ta geure eritxian bere bai.

Ba gure eritxian, orren artean, politika-gauzetan, burua garbituten emoten dan denporea galdua da, eurontzat irabazterik eztagonean.

Ganera, guk uste dogunez, geutzako beintzat, radikal-sosialistok eta Accion Errepublikanakoak bat dira.

Ta Txitxuren amama be geure eritxikoa izango zan, bizi izan balitz gaur eta ori jente ori ezautu.

Olangoakaitik, bere aldian txarkerietan edo okerrerietan bardiñak edo bardiñ-antzekoak zireanakaitik, auxe esaten eban berak, erderaz bere eritxia esaten ebanean:

—Todos erri batekos.

* * *

Olangoakanik apartau egiten dogu guk Alda-
soro jauna geure eritxian.

Beti egin dogu gaur-artean, uste izanik bere
politikan ez tala orrek langoa.

Ta orain Accion Errepublikanakook euron
artetik jaurtinda ikusten dogun egunetik gora,
obeto apartauta ikusten dogu.

* * *

Ta, orain zer egingo dau berak?

Aorixe... bizi danak... ikusiko dau.

Jainkoak gura badau.

Baña nik neuk auxe aginduko neuskio, neure
aginduan balego: euroi agur egin dagioela beti-
ko edo beintzat eurok aldatu artean, bear daben
aldakuntzea eurok artu artean.

Ta euroi agur eginda, datorrela, bide-erdian
geratu barik, artez-artez... artez-artez jokatuten
zaleak direanen Alderdira.

Datorrela... Betor... Etorri beite...

Diputadu-actegaz, nai *acta* barik.

Baderitxo, gure aldetik eztago eragozpenik eta, *acteagaz* etorri leiteke, zabal zabal.

Berari ta bere *acteari*, biai be, atea zabal zabal egingo yakie... ta etorri ta atea yotea baño eztauko... eskuagaz nai *acteagaz*.

Ia, Aldasoro jauna, yo arin atea!

Bear-bada, lengo lagun zarrok esango dabe orrako *acta* ori, bein zeu aldatu ezkeru, eztala zeurea.

Ez yaramon!

Edo... yaramon gura badeutsezu, yaramon egiozu auxe esateko bakarrik:

—Neu aldatutea ezta arrazoya niri *acta* au kenduteko, aldaturik, aldatuta dagozan lez, neuri *acta* berau emon eustien botodunik geyenak.

* * *

Eta euskalzalea ei da.

Txitxuri nonbaiten esan deustie aorixe: Aldasoro jaun ori euskalzalea dala.

Ta ezteust poz txikia emon barri au etxera ekarri deustanean.

Aoraintxe ekarri deust: aste onetako barikuko arratsaldeko bostetan.

*Bostak,
nire lepoan ondo kostak.*

Auxe esaten eban, bostak entzuten zituzan astegun-arratsalde guztietan, Txitxuren aitaitak.

Baña gutzako, Txitxuntzako berantzako ta neutzako, onek... gaur arratsaldeko bostok ondo gozoak izan dira biotzean, lepoan ondo *kostak* izan barik.

Billa ibilli barik yakin dau... berak.

Ta... neuk bere bai.

Olango suerterik!

Euskalzalea dala Aldasoro jaun ori?

Eztago orregaz kalterik.

Kaltea ostera?

Bestera!

Asko poztuten gara Txitxu ta ni ori yakiteaz.

Kontxo, kontxo! Euskalzalea dala Aldasoro jaun ori!

Tira, ba! Euskalzalea bada, ainbat obeto.

Bai, ainbat obeto.

Olan dala, betor..., etorri beite..., datorrela...,
albait ariñen, *acta* ta guzti.

Yesarri beite... Urkijo diputadu euskalzale
andiaren ondoan.

Euskerearen ganean beronegaz eztabaidarik
atara barik.

(1933-ko Bagillaren 25'ean argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXI

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

PEREZ MADRIGAL...

Atzo, Kongresoan, Royo Billanobagaz batera ibilli da Perez Madrigal (*gurea* laster deituko deusaguna), Guallar diputadu abadeari *interrunpiduten* ibili direan diputadu errepublikanuai euron *interruziñoetan interrupiduten*.

Ibilli ta ibilli, azkenean, Royo Billanobagaz edo Royo Billanoba barik, karlisten Alderdira paseuko da.

Begia lez!

Ta baye onik eragin bear deusku, bere lagun zarren lepotik, Urkijon albotxutik euroi zirika.

BAKOTXA FUSIL BIGAZ!!

Korderok, arranoetan, ez dituz txarto armau gura izan bere lagun *sosialista militanteak!* Bakotxa *fusil* bigaz!!

Frantziako «Le Rempart» deritxon izparringi (periodiku) batek diñoanetik, azkenengo ministro-krisisean, erabagita euki dau sozialista millitanteen artean berrogeta amar milla fusil zabal-dutea, eurokaz kea atarateko, bere opillari sua egiteari a bako don Anisetok itxiten baeutsan...

Zorionean, a bako don Anisetok ezteutso itxi Korderoren opillari sua egiteari.

Osterantzean, Jainkoak Berak daki bakarrik España guztiko ogetabost milla sozialista militanteak zelango barrabankeriak egingo zituezan bakotxak fusil bigaz.

—Ogetabost milla direala ta egongo da bero-ri, ugazaba.

—Egon ez nayagok orretan, Txitxu; baña *emon* egin yoat orrenbeste izan leitikoza, bakotxari biña emotearren.

—Kontuak ondo urteteko, iruna be emon bearko leuskiez.

—Kontau egin dozak euk, orretarako, Españan yagozan sozialista millitante guztiak?

—Bai, Bantzo edo Garbantzo diputadu radikalak Zaragozako karlistak kontau dituzan baño apur bat obeto. Eztau esan ba Kongresoan, atzo, *serio serio*, Zaragoza guztian seireun baño geyago eztireala!

ANDIA DA GERO!!

Txitxuren eritxian, *grazia* andia dauko berak aste onetan andra biri entzun deustien berbaldi polit onek, oraintxe berak kontau deustanak, eta berak kontau deustan lez kontau gura neuskizu, irakurla maitea.

Entzuizu, barreka jausi ezaitezana, zezeri oratuta.

Neuri yazo yatana zeuri yazo barik.

Eup! Or doa!

—Bakutsu ori? Ikusten dozu ori, Pantxike?

—Nor, Kontze?

—*Nor* diñozu? Eztozu ikusten, elizpetik ointxe urtenda, onantz datorren gizon ori?

—A, bai, *Urlia!* Ikusten dot.

—Ba ointxe be elizatik dator ori. Jai ta aste dabil elizara ta etsera... Ta karlistea ei da!

—Andia da gero! Karlistea dala beti elizara ta etsera dabillen gizona!! Olangorik!!

(Au, zerbait geyagogaz,
1933-ko Garagarrillaren 2'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

KASANELLAS, MORROI OSPETSUA

Kasanellas morroi ospetsua, beñola bere antzeko lagun biren laguntasunaz, Dato jauna Madrilen il ta gero Errusiara biziten yoan zana, Errepubliketa bein Españan imiñi ezkerroan biurtu leitekeala Españara ta, Errepubliketa emen imiñi zan egunetik egun gitxi barru etorri yakun atzera.

Errepublikako Gobernuak, orraitioño, ez eutsan itxi egote andirik egiten.

Emen sartu-zanekoxe, edo sartuteko asmo-tan ebillela, urrundu eban emetik, eztakigu zegaitik.

Baña berak baekian zer egiten eban, ta atzera etorri zan barriro.

Atzera barriro etorri zanean, Errepublikako Gobernuak beste erabagi bat artu eban: espetxean (kartzelean) sartutea.

Ta orain, egunokaz, beste erabagi barri bat artu dau: espetxetik urtenik, Españatik urten barik, España barruan nondik gura ibilten itxitea.

Ta orain emen yabilku, emen yabilku, España barruan, berak gura daun lekuetatik, zabal zabal.

Oba ez!

Zer ba?

Kasanelas au ezta *arako* Segura kardenala.

* * *

Eztagoz eurok gura leukien baizen pozik Balentziako sozialistak.

Gobernadoreak ez el deutsie itxiten eurok gura daben guztia egiten ta...

Gobernuari, aorretxegaitik, arrazoyaz ta, euron aserretxua erakutsi deutsie.

Ta euron aserretxua erakutsi ta gero, sosia-
lista onak izateko, zerbait eskatu barik ezin egon
ta, Gobernuari berari gobernadore ori kendu ta
beste bat bialdu dagiala eskatu deutsie seguru
be.

Ondo egiña, ze kontxo!

Baña eurok gura daben guztia egiteko, obeto
egingo eben eskatu balebe gobernadore imiñi
dagiala eurotariko bat.

Edo...Kasanellas bera.

Fiai - Fiai 91

KONPANIS, MAZIAREN OTSEIN NAGUSIA

Marinako ministrotasuna artu daunetik gora,
bai dagoala pozik Konpanis, Maziaren otsein
nagusia!

Berak esan dau pozik dagoala.

Ta siñistuten deutsagu.

Berari *troritxua* deituten deutsienak eztira,
bear-bada, pozik egongo.

Ta asko ei dira, Bartzelona aldean, *txoritxua* deituten deutsienak.

Baña, zegaitik deituten ete deutsie olan?

Beste txoritxu batek esanda, Konpanisen beste gauza asko bakiguz, baña aorixe eztakigu oraindiño esateko moduan.

Auxe, bai, esan geinke: beste txori batek kantauko eutsiela askori, Bartzelona aldean, txoritxu ori ezautu ezpalebe.

TXITXU, LIBURU BARRI BATEGAZ

—Jauna, liburu onen egillea errepublikanua da?

Auxe diñost Txitxuk liburu barri bat begien aurrean imiñiaz.

Ta nik eztakit zer erantzun ta, aorretxegaitik, beste itaune bategaz erantzuten deusat.

—Zegaitik egiten deustak itaune ori?

—Liburuan bertan dakazan erregiña ta erre-geari *zuketan* berba egiten darabiltz beste lagun guztiak eta...

—Ori bear ori ez yok egin egilleak, euskera-tzalleak baño. Euskeratzallea bera dok olango *zuzalea*. Ostean euskel idazle gozoa doala, *zuzaletxua* dok, tamalez.

—*Zuzaleegia* esan bei, ugazaba.

—Ostean, zer deritxok bere euskereari?

—Lekurik geyenetan egokia deritxot. Baña *eritxi* aditzagazko berbak, ain zuzen be, eztabiltz ondo *eritxi* orrek erderazko «parecerle a alguien» esan gura daun esakera batzutan. Ez litzakio txarto etorriko berorrek berorren *Gramatika*n 158-garren orrialdean eta urrengoan diñona irakurtea.

—Tirok, mutil! Ekin egiok euk ori liburu euskel usain andiko ori irakurteari, ba eztok damu izango. Euskel esakera ederrik asko aurkituko dok berton.

—Aorixe, *tirok!* ori eztot aurkitu. Ta aurkitu bear neban mutillari iketan, *tira!* esaten yakon leku baten baño geyagotan. Iketan berba egiten yakon lagunari ez yako esan bear, *tira!*-ren orde, *tirok!*, mutilla edo gizonezkoa bada, eta, *tiron!*, neskatoa edo andrazkoa izan ezkeror?

—I, akatz billa asten azanean...

—Ara, jauna: ezteutsat aitatuko geyago akatzik. Aitatu deustadaz aitatutekoak. Yakin begi, barriz, bere lenengo irakurtaldian gozo be gozo eretxinda, bigarren irakurtaldian diñardudala.

(Au, zerbait geyagogaz,
1933'ko Garagarrillaren 16'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXIII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

ABADEAK ONDO BIZI DIREALA...

Bartzelonan, praille dominikuen elizako atee-tan, abade bat limosna eske agertu ei da, ta bera limosna eske agertu dan lekuaren inguruan eskean yarduteko lekua artetik artuta daukien eskekoak, besteak, abadeak eztiranak, ez ei deutsie ondo eritxi.

Arrazoya euki dabe onek, abadetzako ori abadea benetan izan bada.

Ba abadeak, beti be, obeto emoten dau limosnea emoten... limosnea eskatuten baño.

Baña, izan ete da benetan abadea abadetza-ko ori?

Izan ete da egizko abadea?

Ai, eskean ta olan ibilteko, abadeak ondo bizi dira!

Entzun izango dozu zeuk, irakurla maitea, bein baño geyagotan, abadeak ondo bizi direala. Gorra zarealakorik eztaukagu, irakurla maitea. Baña gorra bazara, gor andia ta gogorra euki bear dozu, zeure bizian, bein baño geyagotan esaten dan esate ori ez entzuteko, beintzat, bein edo beste.

Ba abadeak ondo bizi direala esaten dabenak, esate ori berarizko zeragaz (aparteko zeragaz) esaten dabe.

Ta indar geyago euron esate orreri emoteko, *ai!* ta guzti.

Aolantxe:

Ai, abadeak... ondo bizi dira!

* * *

Abadetzako ori abadea dalako gogorra euki badabe oiturazko eskekook, ondo egin dabe euron asarre gogorra erakustea.

Baña obeto egingo eben, ezetan asi baño lenago, abade egizkoa ala guzurrezkoa dan ziur yakitea.

Ta abade egizkoa dala agerturik be, obeto egingo eben, asarrea erakustea geroagorako itxita, ia euron Sindikatoan sartu gura daun ala ez berari itandutea.

Ba gaur-egunean eskean ibiltea *negosio* bat ei da.

Ta *negosioa*, beti be, *sindikatoaz* *negosio* ohea izaten da ta, eukiko dabe, urrean, eskeko oiturazko orrek euron *sindikatoa* euron *negosia* yagoteko.

ALBORNOZ GIZAJOA...

Albornoz gizajoa ezta abadea ez eskekoa ta, eztauko beste zerik, gaur, *Tribunal de Garantías* erderaz esaten deutsien zer orretako presidentetasuna baño.

Ta presidentetasun orregaz eztakigu zeinbat *garantien* kontu emon bearko daun berak; baña berari ez ei deutsie emongo, *garantion* yagola bearragaitik, urtean aloger bat baño geyago.

Urtean eun milla pesetako aloger bat baño ez.

Au entzun daunean, Txitxu gurea, txistua baño ariñago, neure idazmaira (eskritorioko maira) yoan da, papera ta arkatza (lapiza) bear dituzala ta.

—Zetarako bear dozak papera ta arkatza?

—Kontuak atarateko.

—Zelango kontuak?

—Albornoz gizajo orren alogeraren kontuak, ugazaba. Ezteritxo ondo izango dala yakitea urtean eun milla pesetaz zeinbat daukon astean, zeinbat illean eta zeinbat egun bako-txean?

—Txitxu, orren kontuakaz eztok yango, ta itxi eyoek orren kontuai. Begiratuik *jesuitak* aste onetako *chequean* zeinbat mila peseta bota yeuskuen lengo astekoan baño geyago. Ba baya-kiat aste batetik bestera millaka peseta batzun aldea yagoana.

ORREK JESUITOK...!

Jesuitak aberatsak direana askok dakigu.
Badaukie orrek dirua baño eztana!

Ta dirua eztala dirua balio dauna ta dirua
emoten deutsiena be ugari, sekula bada.

Ta euki bear, guri, abade bakotxari, millaka
pesetak astean-astean emoteko.

Lengo baten Txitxuk errepublikanu bateri
entzun eutsan beste errepublikanu bateri auxe
esaten:

—*Jesuitak* diñok, *jesuitak*? Orrek ointxe be
ondo yagozak. Bakotxak irurogei milla ogerleko
yaukiek.

—Ja, ja, ja! —egin eutson Txitxuk.

—Barre egiten dok, Txitxu?

—Etxoat egingo baye bai lk eztakik zeinbat
diru yaukien orrek... Eta neuk be ez. Kar, kar,
kar!

Barreka-barreka, egia esan eutsan Txitxuk errepublikanu orreri.

Errepublikanu orrek eztaki zeinbat diru daukien jesuitak.

Eta Txitxuk beronek be ez.

Ta ezta neuk be.

Irurogei milla ogerleko baño eztaukala jesuita bakotxak?

Apur bat geyago emoten deuskue eurok abade bakotxari urtean-urtean, euren diru ta ondasunak zelango bideetatik irabazita daukiezan esan eztagigun.

(1933-ko Garagarrillaren 23'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXIV

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

LARGO KABALLERO TA

Errepublikanuak asarre dagoz Largo Kaballe-
rok domekako bere berbaldian esan zituzan
gauza batzukaitik.

Batzukaitik; ez danakaitik.

—Euroi txarto pareu yakiezanakaitik.

—Bai igarri be ik, Txitxu!

—Ene! Ara, ba, ugazaba: iñok esan barik iga-
rri dot, igarri badot.

—Ai, ire zurtasuna ez yaukak edonok!

—Zurtasuna aitatu daun ezkerero, gauzatxu
bat itanduko neuskio.

—Zurtasunari yagokona badok gauzatxu ori...

—Bai, jauna.

—Itanduik orduan ardura barik.

—Nortzuk dira zurrago, konplota nondik dagoan igarten dabenak ala konplotik egon ez ta konplota asmau egiten dabenak?

—Konplotik egon ez ta konplota asmau egiten dabenak zurrak be zurrak dozak, eurok asmauriko konplot guzurrezko orreri antza emoten bayakiek.

—Aorretan, ba, ezta ain zurra, antza daone-tik, Andres, Naparroako gobernadore zarra.

—Seguridadeko Buru Nagusia?

—Orixe berori. Ori morroi ori ohea ete dan nago konplotak egiten konplotak asmaten baño.

—Txitxu, aoraintxe esan doanagaz... nortzuk zurragoak doazan ezteustak erakutsi..., baño eure zurtasuna bai erakutsi deustak.

—Neure zurtasunaren erakuspenik geyago bear baleu...

—Etxoat bear; baiña emoik beste bat, irakur-leak be ikusi yagian.

—Berba gitxitan emongo dot. Auxe bakarrik esanda: *guzur-zalea ezta zur-zalea*.

—Naikoa esan dok, mutil.

—Bai, ulertu gura daunantzat, neure eritxian. Eta ulertu gura eztaunari eztago zetan esan.

—Aorixe be egia dok, mutil! Geroago ta zurtasun geyago erakusten dok.

—Daukadan zurtasun guztia ezteutsat erakutsi orraitino.

—Ez ba. Daukoan zurtasun guztia bein erakutsi ezkeru, ez nayeunkek esango geroago ta zurtasun geyago erakusten doala.

—Ta ganera ondo izango da kontuan eukitea beste gauza bat.

—Zer, Txitxu sur luze zur zurra?

—Norbere zurtasun guztia era batera erakustea... eztala zurtasuna.

—Ori dok berba-yokoaren polita!

—Zer uste izan dau berorrek ba?... Ara, jauna: barbarik yaten eztakit; baña berba-yokorik egin bear danean, berba-yokoa egiteko,... euskeraz, beintzat..., eztot bear Unamono ez besterik. Berba-yokorik bear danean, agindu niri.

—Tirok, ba! Ondo yagok gauzea. Baña, *kontuz arto-bero-usaïagaz!*...

—Asmau dau, ba, irakurleak arto-bero-usaïnik?

—Ez, antza; baña, bada-ezpadan...

—Bada-ezpadan, berorrek ezpegio esan.

—Ta neuk esan barik, arto-bero-usaïña bera... surretara bayoakok?

—Aorretxetara eztakit neuk zer esan, ta irakurleak zer esan leiken be ez. Bear-bada auxe esango dau: ostean emoten deuskun atsegiñaren alderako izan daitela.

—Olantxe izan deitoala. Olan izan ezkerro, Gobernuak bere konplotagaz baño zori obea izango yoaguk.

—Gobernuak, konplotagaz eta konpotagaz, biak batera dituzala, atarako dau burua, zapalduen ezteutsien artean.

—Konpotik egiten yok ba Gobernuak?

—Bai, bat, ointxe Lerrousegaz.

—Sukaldari onen bat dok, kosineru onen bat dok Lerrous ori.

—Bai, jauna; ta kosineru ona izan ta gero praille izan gura ei dau. Gobernuko konbentuko

praille nagusi. Oraingo praille nagusi Azañak bere fraile-lagunakaz konbentu orretatik urten dagianean. Izan leiteke, orraitino, Azañak urten eta Lerrous ez sartutea.

—*Olan izan deitela* esango yok batek baño geyagok. Baña, badakik, berbaz-berbaz, gauza asko esan yoaguna geuk *Firi-firi* onetan?

—Bai, asko esan ta askori ukutu be. Baña, iñori kalterik egin deuntsagu? Ez oraiñartean, aginduten be ez gagoz ta.

—Orrek guztiok be egiak dozak, baña, bada-kik?... iñoz egin ez yoagun lango *firi-firia* egin yoaguk.

—Ederra ta gozoa, oyez?

—Luzea, mutil, luzea.

—*Ederra, gozoa ta luzea* esan bei... geutzako. Ta alantxe bada irakurleantzako, eztogu besterik bear, arto-bero-usain barik, txalo-usaiña asma-teko.

—Baña, zer esan yoaguk asikeran?

—Errepublikanuak asarre dagozala Largo Kaballerogaz.

—Ori esan yoagunetik ona adizkidetu be egingo zoazan. Baña ori baño lenago beste gau-zatxu bat esan yoaguk. Eta bertsoan esan be.

—Bai ta alantxe da, jauna.

(1933-ko Garagarrillaren 30'ean argitaratu zan)

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

—Aiko or ba! Gaurko lan au, egin yoaguk txiri-txiri, baña ez yoaguk agertuten firi-firi. Ik ondo dakik geure *Firi-Firi* guztiak, bertsoak yiño-an erara izateko, zatika agertu bear yoaguzana.

—Urrengoa egingo dogu aolantxe, zatika, geu osorik bagagoz. Troski ei yatorku, ugazaba, egun gitxi barru, Española.

—Zer diñok, Txitxu? Troski yatorkuala Española?

—Bai, jauna. Bere lagun trauskien enbajadore lez ei dator. Baña ez al dau ain arin ikasiko geure euskera maitea Madrillen, zoi bietako edo sobieten edo orrako trauski boltxebiki orren enbajadore lez biziko dan urian. Bere lepotik berba-yoko batzuk, berak igarri barik, egiteko modua izango al dogu. Jainkoak euki gaizala bere eskutik.

(1933-ko Garagarrillaren 30'ean argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXV

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

GRANADAKO TXIÑEL BATZUK ABADE BIGAZ

Gobernuak oraintsurengoz asmauriko konplot barregarriari eskerrak, gauza polit bat yazo da Granada aldean.

Gobernadorearen aginduz, Dukal deritxon erriko parrokoa preso artuta, Padul izeneko erri-
ra joan dira Gobernadorean txiñel zintzoak
Gobernadorearen tarrantan (automobillean), erri
onetako parrokoa preso egiten.

Au mezea emoteko gertuten aurkitu dabe.

Ta itxi deutsie mezea emoten, mezea emon ta gero elizatik eurok ikusi barik urteteko modurik ez daula egingo ta.

Olangorik egin ez dagian, bada-ezpadan be, elizpean geratu dira berari itxaroten.

Baña, bera mezea emoten egon dan artean, elizatik eta elizpetik kanpora egon direan erriko lagunak, elizako ateetan Gobernadorearen tarranta ta txiñelok ikusiaz asarratuta, asarre bizian yagi dira txiñelon aurka, euron artzain ona preso eroaten ez deutsiela itxiko argi ta garbi arpegi-arpegira diñotsiela.

Ta txiñel zintzook, alan jentea ikusirik, abade biak bertan itxita, anka eragin deutsie euron tarrantari txistua baño ariñago.

Ta pozik, abade biak eta ganera euron azurrak bertan itxitea gertau ez yakienean.

ARAZOYA EMOTEA IZANGO ZOAN

Atzo Kongresoan, diputadu katalan batek, Royo Billanobari begira, auxe esan dau: *Biba Perogrullo!*

Ta Txitxuk, yakin egin gura izan dau, antza, zegaitik esan deutson ori diputadu katalan orrek Royo Billanobari, ta yakitearren, seguru, itandu egin deust.

Baña, leku onera etorri da ointxe sagarretan!

Nik, barriketarako (bada-ezpadan, badiño-tsut, irakurlea, eztodala gogoan emen barrikarik, barriketea baño), barriketarako asti andirik eztaukot orain eta, al dodanik erantzuerarik ariñena ta errezena emon bear deustat, auxe diño-tsadala:

—Zeozegaitik esango yeutsan.

—Ori... ori... banenkian, ugazaba, diñost berak,

—Diputadu katalan orrek berorrek be yakin yok Royo Billanobak esan barik Royo Billanobak berak berorren lagunai esan yeutsien au zertxu au: *O queréis y no podéis o podéis y no queréis.*

—Yakin badau, *Biba Perogrullo!* esan barik, *ieso ya lo sabíamos!* esan bear eban morroi gazbako orrek erdera garbian.

—Baña ori... Royo Billanobari berari arrazoya emotea izango zonan.

ZER YAZOTEN YAKO TXITXURI?

Txitxuk eztakit zer daukon ointxe, ordu gomutagarri onetan. Zer yazoten yako orain Txitxuri?

Esku eskoyan erabili daun idaztortza (idazteko lumea) idaz-lanetik aldendu ta paperaren ganetik kendurik, mayaren ganera, edo, laburtxuago esateko, mai-ganera bota dau.

Ta gero, neuk esan neinkean baño ariñago, beso biai ta esku biai Uzkudunek baño be yaz obeaz eraginda, esku biai alkar iru bidar yo eragiñaz iru txalo indartsu yo dituz, bere sur luzearen azpian daukon agin bako ao politari auxe esan eragiten deutsalà:

—Aufa! Au da poza! Ondo gabiltz gaur, oyez?

—Osasun apur bat bayaukaguk, Jainkoari eskerrak.

—Osasun ori, Jainkoari Berari eskerrak, uga-zaba, *Firi-firi* lanak egin doguzan guztian euki dogu. Ta umorea be bai. Baña gaur, ganera, beste zorion bat daukagu.

—Bai, eztok zorion txikia eutzat eta neutzat eu aspaldiko pozen egotea.

—Berori be ezta gitxi poztuko gaurko zorionaren barri yakin dagianean. Orretarako, ona, berorrek eta neuk esaniko gauzakaz neuk baltzitu dodazan lau paperotara, begiratutea baño eztauko.

—Alantxe dok. Iñoizko letrarik ederrena erakusten deustak or, Txitxu.

—Nik letrea beti daukot ederra. Ezpeyo begiratu letreari. Begiratu begioe arrayai... ta kontau beiz ia! Bat emen, lenengoan; beste bat emen, bigarrenen; beste bat emen, irugarrenen; ta beste bat emen, laugarrenen.

—Olan doala, paper bakotxean *firi-firi* bat yoak gaur geure *Gaseta* maitera.

—*Quod erat demonstrandum.*

—Mutil, latin be badakik?

—Bai Albornosegaz yarduteko beste.

—Itxi egiok bakean apur baten Albornoseri. Ille betean atsedon egin beur yok, seguru be.

—Atsedon egin bear daula? *Deskantsau* egin bear daula? Emongo neuskio nik orreri mundu onetarako *deskantsua*, bein ta betiko..., buruan

zeozegaz yota. Jesus! Zer esan dot orain? *Quod erat vitandum?* Neuk yo barik, Jainkoak biotzean ikutu dagiola... bein...

(Au, zerbait geyagogaz,
1933-ko Agorrillaren 6'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXVI

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

KONTU-KONTUAK

Gazteizetik asago bako uri baten, aurtengo bertako yayetan egin direan zezenketa bitan, diru asko galdu dabe zezenketok atondu dituezanak.

Bost mille ogerleko ta geyago.

«De veinticinco a treinta y cinco mil pesetas», irakurri dogu guk nonbaiten.

Ta, Txitxuk diñoanetik, orregaz esakera orregaz ulertu lei eurok be eztakiela zeinbat galdu daben. Ta emoten dabe, ganera, ulertuten kontuak eztabezala ondo atara oindiño.

Kontu ohea eukiko eben, edozelan be, zezenketok emon baño lenago kontuak atara bali-tuez... ia konturik ete daukien zezenketak emonagaz.

Apur bat obeto atara dituez euron kontuak Koruñaako uriko kafe-etxeetako morroyak.

Euron kafe-etxe-jaubeai astean larogetamar peseta eskatu deutsiez.

Ta ganera, geyago be eskatu leikiela erakusteko, esan deutsie, orrezaz ganera, eskupekotxu bat,... propina kaskar bat,... gogorik onenagaz eskatuten deusiela.

Ta iñori itanduten ibilli-bearrik euron ugazabok euki eztagien, eurok esan deutsie zeinbaterañokoak izan bear daun eskupekotxu orrek.

Egun bakotxean egiten daben saldukizunetik, euneko ogei.

Lartxu eskatuten deusiela ugazabok esan eztagien, ezteutsie eskatu geyago.

Ugazabok orraitño ezteutsie esan bein ondo deritxiela euron eskari bikotxari.

Olangorik esan barik, ixil-ixillik, euron kafe-etxeetako atea itxi egin dituez.

Asti geyago eukiteko, antza.

Ta aolantxe, asti geyago eukirik, asti geyago-gaz euron kontuak atarateko.

Auxe eztabe euki kontuan, tamalez, morroi kontulari zurrok.

MAZIAREN LAGUNAK TARRAGONAN

Tarragonan bai euki dabela mitin yazekoa Maziaren lagunak!

An izan dira Aiguade, Aragai...

—Orrek gureak dira, euron abizenez, ugazaba. Gauzea argi dago. Bata, *Ai-gu-a-de*. Au de au, da ezpada, ezta ezer. Bestea, barriz, *Ara-gai*. Ezteutsie berorrek euskel-usaiñik asmaten?

—Euskel-usaiña baño beste usain bat asmauko dok euk, Txitxu, ta irakurleak be bai, esateko yaukodana guztia esaten itxiten badeustak.

—Jarraitu bei, jauna.

An izan dira, esaten asi nazan lez, Aiguade, Aragai, Riera, Gales...

—Riera... *Erri-era*... Parkatu bei, ugazaba. Ta yarraitu bei esaten esateko daukona.

—Bai, itxiten badeustak euk, zirin orrek.

An izan dira esan dodazan lau lagunak, eta ganera, beste diputadu asko.

Ta maipuruan, Bentura Gatzol euki dabe maipuruko buru, bere buruko ule luze ta guzti.

Entzula asko euki daben ala ez yakitea ezta gure arazua ta, ezkara orretan asi: baña entzuleen artean *rabassaire* izeneko batzuk izan direala badakigu.

Baña... itxi dayegun onei... bakean.

Ta eldu beyo bakotxak urren daukon gauzeari, ikarearen ikareaz lurrera yausi barik.

Berbalariak *rabassaire* izeneko morroi orrei zer esan deusiela uste dozue?

Gauza garratz asko.

Eurotariko batek esan deusiena, atan be, ikaragarria izan da.

Ezteutsie esan ba igitayak gertu eukiteko!

Barrabaskeriren bat egiteko, antza.

Antza dagonetik, *rabassaire* izeneko morroyok *barrabasaide* izan deitezan gura dau *berbalar* *ago zabal* orrek.

(Au, zerbait geyagogaz,
1933-ko Agorrillaren 15-ean argitaratu zan)

FIRI-FIRI XVII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXITXU GAUR OKERRA DAGO

Gaurko egun au *eguen*a baño besterik danik burutan eztozula asi gara, Txitxu ta ni, *Firi-firi* au egiteko paperak... eta paperok baltzitudeko txi-bizkeriak... lan au egiteko daukagun mai baka-rrera ekarten.

Baña geure eskuz mai bakar onetara ekarte-ko gauza guztiak ekarri ta gero, mayan yesarri-ta, zeri ekingo ete deutzagun pentsetan pareu nazanean, aurrez-aurre yesarri yatan Txitxuri ia ezer otuten ete yakon itandutea otu yat: eta orretarako, berari begiratuten noala, bera baño lenago bere atzean, orman eskegita dagoan

egutegi ederra ikusi dot, eta egutegian bertan, Txitxu konturatu baño lenago, illari yagokon izena ta egunari yagokon kopurua; aolantxe, lerro bitan: egunari berari, asteko eguna dan aldetik, yagokon EGUENA izen gozoa irugarren lerroan agertuaz:

AGORRILLA

17

EGUENA

Orduan, ikuskizun zorizko onek egin deustan zirikadeak eraginda, auxe itaune au egin deustat neuk Txitxuri:

—Badakik, Txitxu, gaur ze egun doan?

—Bai, jauna: Santi Mami; erderaz *San Mamés* esaten deustsiena. Beti izan da, *nire gogoanean*, Santi Mami San Drokerik urrengo eguna.

—I ez ago aiztuta Santi Mami egunagaz.

—A ez, jauna! Benetan dot gomutagarria egun au, neure txikitako egun andi au. Txikitán, edo, Txorierrin esaten dan lez esateko, txikerretan, olgeta onik egiten neban, neure anai ta lengusuakaz, gaurko egunez, aitaita-amamen etxean; ta, *konbidedu* eguna dala ta, arroz-ezne-

platerkada bat edo bi yan be bai... ta gozatsu yan be. A zan sasoya!

—A sasoya yoan zonan, mutil, eutzat eta neutzat.

—Bai, ugazaba; ta Gantxo Pantza ta etorri yakuz.

—Orretxena dok gaurko eguna.

—Ta geurea ez ala?

—Geurea be bai; baña orrena, modu aparteko baten.

—Izan bearko dau modu aparteko baten orrentzat, Santi Mamirik ez beste Santurik ospatu gura ezpadabe.

—Aurten, orrek eta lagunak *Donostiako pactoaren urteurrena* ospatuko yoek, igaz be egin yoen ta.

—Datorren urtean, izan leiteke geuk, geutarraz, euron *urten-urrena* ospatutea. Ai, nire eskuan balego orrei urten eragitea neuk gura dodanean! Gaur berton urten eragingo neuskioe, ta lau-oñean urten eragin be, baña geldiunerik bako ariñeketa ikaragarrian. Ta ez neuskioe itxiko bakean, Endayan sartu direala ikusi artean. Ta antxe sartuta ikusi ta gero, auxe esango

neuskie: ortxe egizue, gura budozue, beste *pacto* bat.

—A, mutil, gauza garratzak opa deusiezak orrei! Apur bat gozoagoak izango zoazan amaren etxean gaurko egunez euk yaten enduzan arroz-ezne-platerkadak.

—Platerkadak, emongo neuskiez nik orrei.

—Arroz-ezne barik.

—Bai, ba. Zetan esan be ez! Eztaukot neuk arroz-eznerik orren buruetara yaurtiteko.

* * *

Okerra dago Txitxu gaur, Gantxo Pantzaren ta lagunen aurka, irakurlea, zeuk ondo ikusidozun lez.

Baña Balbotin be ikustekoa edo entzutekoa egon da, seguru be, Kongresoan, euroi agiraka.

Beste gauza askon artean, auxe esan ei deustsie:

—Vosotros habéis matado, en dos años, más obreros que Primo de Rivera en siete.

Guk eztakigu erderaz... edo... orrek esan gura dauna auxe da:

—Zuek, urte bian, Primo Riberak zazpian baño langille geyago il dozue.

—Parkatu bei, ugazaba; baña Balbontin orrek bere esate orregaz ori ta geyago esan gura dau, neure eritxian. Ta neuk be esango neunke...

—Zer?

—Neure eritxia. Orren Errepublikoa eztabillela ondo...

—Txitxu!!

—Zer, ugazaba? Zerbaiten bildurra dago ala?

—Bildurrik, ez. Baña, bada-ezpadan be, orren Errepublikoagaitik esaten asi azana obeto izango dok itxi esan barik Sondikatik diputadu urten artean.

* * *

Sediles kapitanak, kapitana dalako, edo kapitana ta, ganera, diputadua dalako, edo... berak yakingo dau zegaitik, auxe esateko moduan ikusi dau bere burua:

—Este Gobierno es capaz de hundir esta República y siete Repúblicas más.

—Neure eskuan balego...

—Txitxu!!

—Zer, ugazaba?

—Kontuan euki bear doala... oindiño Sondika inguruetako erriak ez auela diputadu atara.

—Orraitiño, esan geinke euskeraz morroi diputadu orrek erderaz esan daun gauzea bera.

—Etxakiat lekurik orretarako eukiko ete yoagun. Bakik berbea emon yeutsaguna alkarrereri... ez yoagula boskarren paperik baltzitu bear gaurtik aurrera... ta obeto izango yoaguk ementxe amaitutzat itxi *Firi-firi* au, berba geyago barik.

—Aolantxe, amaituta, berba geyago barik, betiko mututurik geratuko al dira berorrek eta nik eta irakurleak dakiguzan pizti ta gauza batzuk!

* * *

Esan deutsut, irakurla maitea, gaur Txitxu okerra dagoala.

(1933-ko Agorrillaren 20'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XVIII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

AUTONOMIA TA...

Kataluniako *Eskerrako* morroi andi batek barribatzalle baten auxe esan deutso, lengo baten, Bartzelonan:

—Claro que no hay arreglo. No hay dinero, y sin dinero la autonomía resulta una broma de mal género.

Antza daonetik, orrentzat autonomi guztiak eztira onak.

Eta diru bakoa beti da txarra.

Zelango gauzak yakiten direan *ponporeaz*, geure txikitako Anton Zoro Asukoak esaten eban lez!

Bartzelonan bertan, bertako poliziako otsein bik, kanpotarrak direalako, edo eurok yakingo dabe zegaitik, iru kanpotar lotu egin dituez.

Baña kanpotarrotariko batek, Olibet deritxonak, txiñelotariko bateri, beronek zelan eztakiala, ukabilkada ikaragarri bat emon deutso bera lotuten dabillega.

Ta ukabilkada ikaragarri orregaz albo-agin bat tutarrez kanpora atara ei deutso.

Albo-agiñean olango bearra egin deutso-nean, agin-alboan be egingo eutsan zeozer.

Emon olangoai autonomia... ta dirua ganera!

ASTURIETAN...

Asturietan beste eliza bi erre dira... oraintsu. Ez berez.

Batabatzuk sua emonda.

Baña berez erre balira leztxe... geratu da gauzea.

Su-emolleak nortzuk izan direan eztakie Gobernuaren otseñak eta...

Nok au *gora* au edo bestea yaurtiten daun yakiteko eukiten daun suertea eukiko baleu Gobernuak elizai sua emoten deutsienak nortzuk direan yakiteko...

—Baña, billatu dituz ba?

—Zer diñok, Txitxu? Eztok entzun iñoiz suerteak billa ibili barik etorri bear yoala?

—Orraitiño, batabatek berak galazonda daukon *gora*-ren bat yaurtin daula entzuten daunean, asten da *gora* ori nok yaurtin ete daun basterrak arakatuten.

—Ori besterik dok, Txitxu.

—Bai, ondo agiri da.

—Eliza-erretzalleak baño obeto.

—Atrapau leiz orrek orraitino...

—Bai, *gora*-erregeka edo olan... olango suemoteak egingo baleyezak;... baña olango zarata barik egiten yoezak eta...

TXITXU, BILDURTUTA

«Dos meses más de Azaña, y... esto se acabó», diño Barriobero diputaduak.

—Esto ya se *hisó* —esango eban *Klinklonek*, bilbotarren euskera-erderaz.

—Ta... euk zer diñok?... Ia, Txitxu!...

—Nik... zer esango dot? Nik, neure buruz, bada-ezpadan be, Santi Etxeres nondik dabillen yakin barik, eztot esan gura ezer. Baña bai... esango deusat esate orregaz... auxe esan gura dala euskera garbian... Baña... esango ete dot?

—Aorixe yiñoat neuk. Esango ete dok bein? Tirok, esaik zer esan gura yoan Barrioberok bere esate orregaz!... Esaik.

—Onenak egin daula.

—Noz-edo-noz esan doanean!

—Esan dot ba bein, ugazaba. Orain... bildurrez nago esan dodalako... *neureak egingo daula* ta...

—Ez euki bildurrik. Santik ezer badiñeusk, esan egiok berari... euskeraz euk zein ondo dakian ikustearren, neuk erasonda, esan doala. Ta gero orixe berori esan kartatxu baten Indaleziori. Bakik Indalezioak antxiñatxurik yakiana «buruko miñik ez» ta olango esakune euskerazkoak esaten..., ta onezkero ikaragarrian euskal-

zaletuta egongo dok, bide-erdian geratu ezpa-dok.

—Burua yazekoa badauko... bere erretratuetan beintzat.

(Au, zerbait geyagogaz,
1933-ko Agorrillaren 27'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXIX

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

LAIKOAK ETA LAUKOAK

Bilborantz goaz tarranta baten
Txitxu ta ni ta... ainbat lagun.
Ta euron artean, morroi bat dator
berbaldun bere berbaldun;
ta indartsu berba egiten daula,
guztiok entzun dagigun;
ta geure aldera begira daola,
geuk ondo ulertu dayogun.
Laikoa dala bera esan deusku
olao baten, ta guk... entzun.
Eta ikusirik eztautsola iñok
ezertxu ezertxu be erantzun,

«*laikoak* izan bearra dago,
ta eztao besterik» diñosku.

—Besterik bago, adizkidea,
Txitxuk urten deutso sutsu.

—Zelan besterik edo?

—Beingoan

erakutsi egingo yatzu.

Geratu beite apurtxu baten
autoa...

—Arin dau geratu
txoferrak, ugel orreri tenka
bein ondo egiten botsazu.

—Ein deusat tenka ugelari ta...
tarrantau geratu yaku.

Eta orain tenka zeuri egin bear...

—Tenka zuk niri?

—Bai, kaiku.

Tenka neuk einda, beti be emetik
ariñao urtengo dozu.

—Nik urten?

—Bai, ba. Neuk atarata.

—Gero!

—Gero ez. Oin, barritsu.

Onei astia galazo barik,

arintxu ibilli bear dogu.

* * *

Sasoitxarreko barre-santzoak
urten eztaistan bildurrez,
makurtu ein dot nik neure burua
errezu-liburuan aurrez.

Ta eztot ikusi *laikoa* urteten
autotik Txitxun indarrez.

Ta urten ta gero zer yazo yakon
yakiten be eztot euki errez.

Baña barreak bai entzun dodaz...
auto-barruan,... asko,... eurrez.

Txitxu gureak laikoan lepotik
erainda... zetan esan be ez!...

* * *

Lepoa baño apur bat berao
zeozer gomutagarri,
jenteari barre asko eragiñaz,
emon deutsalala berari...
jentean barre ta esanetatik

bakarrik ein dot igarri.
Berak esanda eztot yakingo
beingoan. Bera ezta agiri!
Txitxuk berari emona artuta,
emon ei deutso igesari.

* * *

Sartu da Txitxu atzera autoan.
Yarri da arteko lekuan.
Ta txoferrari, yarraitu! esanda,
geuri au diñosku beingoan:
—Berak gura daun guztia esaten
itxiko yakolakoan,
astakeriak diñozan *laiko*
orrek euki bei kontuan...
laikoak izan-bearra baño
besterik baola munduan...
ta ostikada bat emon deutsal
Txitxuk *atzeko laukoan*.

* * *

Bilbora eldu ta beingo beingoan
badiñost Txitxuk:

—Ta, jauna,

Firi-firi-a noiz eingo dogu?

Gaur izan dogu ba eguna;...

baña...

—Bañarik etxagok, Txitxu.

—Bakit ezingo doguna.

Bijan gabiltz...

—Ba, ain zuzen bere,

bijan ein dok euk bat... ona,...

atze txarren bat ezpayakaskuk.

—Ezta etorriko gugana

atze txarrik, ez; baña, baletor,

bakit zer ein, ugazaba,

atzetxu orreri, *laikoanari*

egin deitsadan erara.

Baña, badaki *laiko* andi orrek

eztauna euki *laukorik*

atzekoa baño besterik? Eta

orretzek nauko arriturik.

Emon deitsadan ostikadeaz

ondotxu eragin deitsat nik;

baña iñondik be, neuk dakidala,
ezteutsat entzun diru-otsik.

(1933-ko Irailaren 3'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXX

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXITXU, UGAZABA BILBOTIK DALA

Bilbo-ingurutik urruntxu, baña España-barruan, erri koskortxu baten, anditxua yazo da egunokaz edo oindiño egun asko eztala, eskola-ispetore errepublika-zale zintzoegi bateri eskerak.

Jaun andi au, erri orretako eskola-maisuari otoz-otoan, artetik ezer esan barik, sartu yako eskolan. Ta atrapau dau eskola-maisu gizajoa umeai eskola-gauzak irakasten, baña mai-ganean izparringi eskoatar batzuk daukazala.

Ez yako ondo pareu ispetore errepublika-zale andi orreri maisuaren mai-ganean olango pape-

rak ikustea, ta badiñotso maisuari agiraka-soñuan.

—Pero ¿qué? ¿Es usted monárquico? ¡Hombre, parece mentira! Sepa usted que ningún maestro de España puede ser monárquico, una vez que el Magisterio español ha mostrado claramente su ferviente adhesión al nuevo Regimen.

Maisu gizajoa, agiraka garratz au entzunik, ikaratu egin da apur bat. Baña ikararik al izan daun bestean urtenda, bildur apur bategaz be, zelan edo alan erantzun bear deusala ta, aolan-txe erantzun dautso bere nagusi asto nagusi orreri:

—Permítame, señor Inspector, que le diga que yo no soy maestro de la República, como tampoco lo he sido, antes, de la Monarquía. Yo soy maestro de la Nación, maestro nacional, y no conozco ley alguna del Estado que me invida profesar estas u otras ideas. Procuro cumplir fielmente los deberes que me impone mi cargo de maestro, y creo que, como maestro, no estoy obligado a más.

Ispetore dotore orrek eztau ezer erantzuten onetara.

Umeak aztertuten (esamiñetan) asten da, maisuaren aurrean, baña maisuari berari orretarako baimenik eskatu ez olango kunplimenturik egin barik. Bere *edukasiño laikoak* galerazo egiten deutso, antza, olango kunplimentuak egitea.

—Oye, niño, diñotso umeetariko bateri: ¿cómo se llama el Presidente de la República Española?

Badaki ume orrek nor dan Lendakari ori; baña inspetore dotore berorrek bere maisu maiteari egin deutsan agiraka ganorabakoagaz ikaratuta, berari agirakea egin ta ganera ostikadaren bat emon edo beste astakeri andiagoren bat egin leyola ta, bildur da esaten.

Zarragotxu batek, orraitino, arin urten deutso, atzeari begiratu barik, bizkor ta urduri:

—Ya sé yo, señor Inspector. Se llama don Niceto Alcalá Zamora.

Au entzunik, asarre bizian sututa, gora-goraka, geuk, asti geyago daukagunean, Jainkoak gura badau, euskerara biurtuko doguzan berba gomutagarri onek esan dituz ispetore errepublika-zale zintzo zintzoak:

—Se dice «Excelentísimo Señor don Niceto Alcalá Zamora». ¿No les enseña a ustedes el maestro a dar el tratamiento que corresponde al primer magistrado de la Nación?

Ta beste itaunerik geyago egin barik, beste ezetan eskola atako umeetariko batxu be aztertu barik, eskola bereko «libro de visitas» izeneko liburuan *serio serio* onetxek berba biok ezarri dituz: «Instrucción deficiente».

* * *

Orrekaz berba biokaz eskola orretako maisuaren lana guztia-bearrekoa edo guztia-bearrekoa baño txarragoa dala erakutsi gura dau ispetore dotore orrek.

Baña eskola berorretan berorrek egin daun lana zelangoa dan esateko eskubidea ete daukondan yakin gura neunke neuk...

Irakurla bakotxak esango dau, orraitioño, bere eritxia, bakotxak bere barruan.

Ta gatxaren andiaz, barre batzuk egin bere bai, bear-bada.

Nik neuk beintzat egin dodaz batzuk.

Ugazabari itanduko neuskio ointxe ia zer deritxon onenbestegaz amaitutzat erakutsi neyon *Firi-firi* oneri.

Baña, ain zuzen be, bera etxean eztagoalako izan da dana dalako au neuk egitea ta...

Berak esan deust goizeon:

—Bilbora yoan-bearra yaukat gaur eta etxaukat *Firi-firi*-rik egiteko astirik. Euk egin bearko dok. Ia zelan portaten azan, Txitxu!

—Badoa berori orduan.

—Ointxe yoan bear yoat. Badakik zortzirak ganean yoaguzana... ta zortziretan urteten yok Turubion tarrantek.

—Bai, *aberirik* eztaukonean.

—Emen ez yok euki iñoz be, neuk yakitala.

—Ez Bilbon be, neuk dakidala, gaur artean; baña bada-ezpadan ba esan deustat.

—Ire kontuak!...

—Ganera, egia esan, Turubiok berak ez beste iñok kalterik ez izatekotan, poztu egingo neintek gaur bere autoak *aberia* eukiteaz, berori atze-

ra etorri deiten, gaurko bija ori urrengo baterako itxita. Ba bildur naz *Firi-firi*-a berori barik egiten.

—Naikoa dok barriketarik, Txitxu. Ez egistak autoa galdu eragin. Banayoak. Ondo ibilli emetik!

* * *

Bakizu zeuk, irakurlea, zelan nabillen neure *Firi-firi* onegaz.

Firmeu be neuk egin bearko dot, antza.

Txitxu

(1933-ko Iraillaren 10'ean argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXXI

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

KANTA ZARRAK KANTATEN TA

Txitxu gurea gaur ikusi gura daunak kantaten ikusiko dau.

Kanta zarrak kantaten.

Ta yaza dauko berak gero onetan!

Benetan.

Ta euron ganeko eritxiak emoten be bai.

Kantau bear daun edo kantau gura daun kantea kantau ta gero emoten dau kantau daun kantearen ganeko eritxia, alan bear dala ta.

Niri lenengo kantau deustan kantea auxer izan da:

*Asue ta Erandio,
Sondike ta Loyu,
alegiñek eiñ arren,
arto gitxi koyu.*

Ta kantau ta gero, badiñost:

—Zer deritxo, ugazaba?

—Ederto kantau doala. Arranoetan, ori dok bularra!...

—Bularra ta burua... biak be eztaukadaz txar-rak gaur-artean... Baña... ezteritxo au kantatxu au apur bat guzurtitxua dala?

—Orain izan leitekek guzurtia; baña eguno lenengoz kantau zoanean, bear-bada, ez zonan izango.

—Guzurtia orain dana edozeñek daki... edo beintzat edozeñek ikusi lei, bertara arto-sasoyan yoan ezkerro,... urtaro txarren bat izan ezean. Baña... eguno lenengoz kantau zanean be gaur dan langoxe guzurtia izango zan.

—Ez yoat ikusten aorixe ain argi.

—Aointxe ikusiko dau. Entzun bei.

*Sondike ta Erandio,
Leyoa ta Loyu,
alegiñek eiñ arren,
arto gitxi koyu.*

—Entzun yoat kanta ori, baña ikusi ez yoat egiten euk besteagaitik esan deustana.

—Berorrek biak entzun dituz.

—Bai, mutil, zarritan entzun yoataz.

—Ta gaur oraintsurengo.

—Ori ezin ukatu neinkek.

—Eztau ukatuko alkarren antzekoak direana be.

—Ez, ba. Ori argi be argi ikusten yoat eta...

—Tira, ba! Ta... alkarren antzekoak direala ikusten daun ordu berean eztau ikusten bardiñak eztireala?

—Baita.

—Ba... aortxe ikusi lei berorrek... guzurtiren batek asmaurikoak direala kanta biok.

—Ez yoat aorixe, arrazoi geyago barik, ondo ikusten. Berbea aldatuta, zer diñostak Azañagaitik?

—Orrentzat be baukot kantatxu bat. Orrentzat esan dot? Tira! Orreri, moduren baten, polito yatorkona esan gura izan dot.

—Esaik bein, bein entzuteko.

—Orra, ba.

Din, dan!... Nor il de?

—Manu zapatarie.

—Nik *Txomin zapatarie* entzun yoat beti *din-dan*-go kanta txorierritarrean.

—Berorrek *Txomin zapatarie* entzun izango dau; ...baña, *Manu* ezteritxo ba Azañari?

—Bai, ori egia dok, baña...

—Bañaka bagabiltz, eztogu iñoiz amaituko, ugazaba. Ta euki bei kontuan oindiño eztodala esan esatekorik erdia.

—Esaik ba... guztia.

—Guztia esateko,... asikeratik esan bearko dot.

—Egi andia!

—Arena beste kanta biena baño andiagoa.

—Mutil, itxi egiok olango zirki-mirkietan ibiltari, ba osterantzean aitzu egingo yakuk zer yoagun gogoan.

—Berorreri aiztuten bayako, galduak gara. Ba neuri beintzat aitzu yat.

—Aitzu yak esaten asi azan *din-dan*-go kanta ospetsua? Ire burua! Bularra ta burua euk onak daukoazala esan dok orretarako!

—Ai, jauna! *Txomin* kenduta, *Manu* sartu dot kanta orretan, ta orretxegaitik izan da guztia. Yakin bear neban nik *Manu* ori sartuten dan lekuan gauza onik eztagoana.

—Ia, ba, esaik *Txomiñ*-egaz, dan legez!

—Olan, aurki esan al izango dot. Entzun bei ia...

Din, dan!... Nor il de?

—*Manu zapatarie.*

—*Manu* ostera be?

—Parkatu bei, jauna... *Manu*-gaz aitzu-bearra daukot, kantea aitzuko ezpayat. *Manu* barik, *Txomin* da aitatu bear dodana... ezta? Tira, ba! Egingo dot alegintxua...

Din, dan!... Nor il de?

—Txomin zapatarie.

—Zer egin dau pekatu?

*—Auzoko txakurre urketu,
ta eleizara daroela,...
kakarraldoak uxetu.*

—Ederto kantau dok. Bape utsik ein barik.

—Bildur-apur bat euki dot ba! *Kakarraldoak* esan-bearrean, *sosialistak* esango ete dodan egon naz.

—Ori kanta ori sortu zoanean, ez zoan egon sozialistarik munduan.

—Ez *Manu* ori be.

—Olan baño gazteagoa dok ori.

—Bai, alantxe. Baña zar-antza be artuta dago ta... guzurtitxua be bada ta,... iya egon naz ba esateko berak ez ete dituzan asmau arek beste kanta biak.

—Ik esateko ez tok asko.

—Ez orrek egiteko be.

—Ori dok miña, Txitxu!

—Miña ainbateri egin deutso orrek. Eztituz gitxi mindu batan-bestean.

—Ori be egia dok, baña.

—*Baña* diño, ugazaba? Bere alde urten gura daula esango leuke berorreri ori entzuten deutsanak. Egitzat dauko orraitino esan dodana. Ai, ni ez nau atrapauko guzurrian! Ori *Manu* ori, barriz, atrapau egitekotan, guzurrian atrapau bear, beti dabil guzurragaz ta.

(1933-ko Irailaren 17'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXXII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXURI, ZARRIZERA BIDEAN

Gaur neuk, Txuri deituten deustien katu giza-jo onek, egin bear dot, antza, gaurko *Firi-firi* au, aste onetan; artekoan lez, *Firi-firi* barik zeu, irakurla maite ori, geratuko ezpazara.

Nire ugazaba Txitxuk ez ei dauko astirik, eta beronen ugazaba nekatuta ei dago.

Ta nik astirik eztaukodanik ez nekatuta nagoanik ezin esan nei ta..., egin bearko dot zeozer, adizkidea.

Ganera, neuri yagokit aste onetakoa egitea, Zarrizen zelan ibilli nazan esateko baño ezpada

be. Ba zuk eztozu yakingo, bear-bada, baña Zarrizen egin dodaz egun batzuk.

Ta, bear-bada, *Zarriz* zein erri dan be eztozu yakingo, ta auxe be, bada-ezpadan, esan egin bearko deutsut.

Auxe beartxu au daukot ganera, Txitxuri eskerrak.

—Txuri, Arabako uri nagusira yoan bearko dok gaur —esan eustan lengo asteko astele-nean.

—Gazteizera?

—Gazteizera ez; Zarrizera. Ordua dok, mutil, uri orreri *Zarriz* deituteko, ba urte batzuk bayau-kozak onezkero.

—Deitu beyo, Txitxu jauna, berorrek gura daun lez, baña ez beist agindu niri orra uri orretara yoaterik. Nik eztaukot or zer-egiñik. Badaki berorrek ni ogi-zalea ez nazana. Arraiña edo okelea euki ezkerro... Eskatu al deutsat iñoiz ogirik berorreri, ugazaba? Ogia geyagoko barik eskatuten daun umeari auxe esaten deutso bere amak Txorierrin:

Ogie?

Araban dauko begie.

—Ba ik eure begia edo begiak biak, ain zuzen be, aurreko zortzi egunean, antxe euki bear dozak: Araban; eta Araban bertan be, uri nagusi orretan: Zarrizen. Ta an eure begiak eukiteko..., bertara yoan bearko dok urrean.

—Bai, begiak bizirik an eukiko badodaz.

—Ba bizirik, bizkorrik eta zurrik euki ta erabili bearko dozak an. Badakusk, ikusten dok... au pardeltxu au?

—Maletaña esaten deusie orreri batzuk, uga-zaba.

—Itzat bardin izango dok *pardeltxua* deitu nai *maletaña* deitu. *Maletaña* deitu arren, eztok doan baño andiagoa izango.

—Beti be, neu baño andiagoa bada.

—Alantxe dok; baño bai bear be, eu beronen barruan yoango baaz.

—Ni or yoan? Ezpeist agindu olangorik olgetan be.

—Olgetan barik, bene-benetan yoan bearko dok, Txuri. Olgetako, leku gitxi geratuko yak emen, ugazabak berton sartu yozan gauzen ganean.

—Orduan, ugazabak dauko bija Zarrizera.

—Bai, ba.

—Ba beyoa bera ordu onean. Ni ez nau bear bija orretarako.

—Baña neuk bear aut, neu andi-andirik yoan barik, ugazabaren bija orretan, eta atan be, Zarrizen yagoan bitartean, bitarte orretan an... ugazabak eta bere lagunak zer egiten yoen ikusteko. *Ejersisiotara* yoala esan yeustak, eta yakin egin gura yoat zelango *ejersisioak* dozan orrek. Bildur nok orrekaz *ejersisiookaz* ez ete yeuskun ekarriko buruko miñen bat... Lerrousek edo Azañak yakiten bayeutsiek yakin zer yarabillien... Eurok baño lenago neuk yakin yagidala, Txuri. Geure ugazaba on au an fusillagaz edo ezpateagaz edo makilleagaz ejersisioak egiten ikusten badok ikusi, etorri adi arin ona, neugana, neuri esaten, lau-oñean baño ezpadok be, olango ejersisioetatik sasoiz berari alde eragiten yoan naya-txakion.

—Txitxu, artuik pardeltxu ori, ta ator beingoan. Urten yagigun... —deituten dau Txitxun ugazabak.

—Bai, jauna: ointxe... Ia, Txuri, ator ona ixilixillik. (Au Txitxuk belarrira diñost neuri).

Eta lepotik polito polito oratuta, pardeltxuan sartu nau txistua baño ariñago. Ta ez naz neu konturatu... pardeltxuaren giltzaren zulotik bera, eskutik pardeltxu berau daula, ugazabaren atzetik etsetik urteten ikusi artean.

Emetixek, giltzaren zulotik, entzun deusat Txitxuri bere azkenengo onu (kontseju) eder au:

—Ez egik egin alegiñik pardeltxu onetatik urteten, ugazabak berak beronen atea zabaldu artean. Ta orduan be, ugazabak berak igarri barik urteteko, oba itxaron ia noiz berak urteten yoan bere logelatzat an bertan, kuartelean, artuko yoan gelatik. Orduantxe izango dok polito polito bere atzetik urteteko ordua, albadituta (distraduta) bayagok; eta egongo dok, lengoa badok.

—Txitxu! diñotso, onetan, Txitxuri ugazabak.

—Zer, ugazaba?

—Giltzpean eukiko dok gero Txuri. Katu ederra yaok bera... apari bat beragaz egiteko, ta badaezpadan be, norbaitek edo norbaitzuk orre-

tarako ostu ez yagien,... ez egiok itxi etxetik urteten.

—Ezpei euki bildurrik. Giltzpean dago; ondo gordeta, bedinkaturik.

Olantxe erantzun dau Txitxuk *serio serio*.

Ta ni... iya egon naz, ez ain *serio* be, baña bai gura neunken baño *serioago*, beñola Iparragirre geureak kantau eban antzera, auxe, neuk ointxe atonduriko kantatxu au kantateko:

*Giltzapean sartu naute
poliki poliki.*

Ai, Otxorio Gariarton
katuak baleki!

Txuri

(1933-ko Urriaren lenengoan argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXXIII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXURI, ZARRIZEN

Miau! Marramiau!

Emen nago.

Emen, esaten da, Zarrizen.

Ta oindiño neure ugazaba Txitxuren ugazaba
jaun onen pardeltxu politetik urten barik.

Eta yakin ez noiz artean.

Yakin baneu yakin, Txitxuk berak emen sartu
nindunean, bertotik urten barik onen luzaro egon
bearko nebana...

Baña sartu nintzan bein, ta orain bildur naz
berton zartu egingo ez ete nazan... egonaren
egonagaz.

* * *

Ointxe ta ointxe be burura etorriko balitzakio, deskuidu baten, oneri, geure ugazaba jaun oneri, pardeltxu onetatik bertan daukon labañoa atara bear daula...

Esate baterako, bizarra kenduteko...

Baña eztago antzik.

Txitxuk, ondo egiteko, errezuetaiko liburua be bertan sartu bear eutsan.

Olan, ostatura eldu ta laster zabalduko eban kartzel estua dodan pardeltxu onen atea... Baña, emen sartu bearrean, eskura emon eutsan ta...

Alan da ze, errezuetaiko liburuagaz eztaukot neuk probetxurik, ugazabak berak eukiko dau baña.

* * *

Ixo! Badator bera. Badator, badator! Atara dau nonbaitetik giltz koskor bat. Oratu deutso pardeltxu oneri. Sartu deutso giltz koskor ori «emen nago» esaten egon yakon zulotik. Tira!

Zabaldu deutso noiz-edo-noiz atea... Ni neu batu-batu egiten naz polito-polito albo batera; erdi-inguruan nagoala, bear-bada, ikusi egingo nindukela berak eta.

Olango esturarik!

Tira! Ez nau ikusi.

Neu ikusi barik atara dituz bizarra kenduteko bear dituzan txibizkeri guztiak.

Eta nik, berak atzea emon dauneko, atzekoaren begira egon barik..., zapart! saltu polit bat egin eta txistua baño ariñago atrapau dot gelatik kanporako atea.

Ta, orain zer egin? Nora joan?

Arin pentsau bearra dago, oyez?

Tira, ba!... Nora yoango gara?

Nora? Suetera noa.

Bertatik surretara yatordan usaiñaren bide gozo-gozotik.

Bidean noala, ainbat lagun ikusten dodaz, abade yantzita.

Ta eurok be ikusten nabe neu urrean; baña bake-bakean itxiten deustie... neure bidean yoaten.

Kanpotarrak dira danok, eta etsekotzat naukie eurok, antza.

Sueteko jentea, bear-bada, konturatuko da bertan sartu naiteneko. Baleiteke.

Baña ain zuzen be, bear-bada, bear izango nabe katua lez katu-bearrak egin dagiodazan.

Gertu naitean, ezpan-alboetako bizar zuriok albo bietara begira dotore-dotore imiñiaz.

Atea zabalik dago.

Tira! Sartu naitean bertotik.

* * *

Ordurik onenean sartu nazala esan lei.

Etseko katuak euron bazkaria yateko imiñita daukien orduan, antza.

Ba orretan diardue eurok, ekiñalean.

Pillo bitan ikusten dodaz.

Ta ni, neure kontuak beingoan atarata, pillorik andienaren erdian sartuten naz.

Emen jenteak neu kanpotartzat eukiten gatxago eukiko daula ta.

Emen sartu naz ba.

Ta ondo artu nabe neure lagun barriok.

Atan be, eurotariko batek.

Oneri, bigarren kopaua yan dodanekoxe, begi-begiko egin natxako, ta irugarrena ahora daroadala, bayatort ondora, ta badiñeust:

—Kontxo! I be emetik? Asko poztuten nok. Botaik ona bosteko ori, Txuri!

—*Bosteko ori*, diñok? Etxakiat ointxe zeinbat atzamar yaukodazan. Gosearen gosez, ikusi be etxoat egiten iya-iya artuteko yaukodan kopau gozoa baño besterik.

—Yan egik, orduan, orain, asetu artean, beste ezeri yaramonik egin barik. Bazkal ostean egingo yoagu berba.

Ta auxe esanda, arteko lekura yoan da, neure aurre-aurrera, ta an ekin deutso barriro bere lanari, neuri ta beste maikide miau-egille guztioi yarraipide (ejenplu) ederra emoten deuskula.

* * *

Bazkal-ostean, lagun txeratsuak, eskutik artuta, bere gelara eroan nau.

Ta araxe yoan gara biok, baxotxa iru ankan ganean, iñoizko edertoen. Txitxuk ikusi baginduz...

—Txuri az eu, antza —esan deust, bera legez aulki baten, katuentzako egiñiko berarizko aulki baten, yesarri eragin ta gero.

—Bai, bat... Baña... eu nor az olan iketan adizkide barru-barruko bateri lez neuri berba egiteko?

—Nor izango nok! Eure txikitako lagun andi bat.

—Neure txikitako laguna izateko, txorierritarra izan bearko dok.

—Bai, txorierritarra nok; eta aorretxegaitik, *Txori* deituten yeustiek emen guztiak. Eta olan-txe deituko deustak euk be, jenteak beste gauzarik pentsau ez yagian.

—Ondo yagok. Baña, nor az eu? Zelan daukok izena, eure txikitako izena?

—Neure txikitako izenagaz aiztuta nayaok. Apur bat azi nintzoaneko, *Lapurtxu* asi yaatan jentea deituten ta...

—Amaika barrabankeri Derio aldeko suetee-tan egiñiko mutilla az eu, mutil, *Lapurtxu* baaz.

—Bera nok ba, apur bat aldatuta baña.

—Ez ago txarra. Esan leik jenteak ondo esaten deuala emen. Baña, zelan izan dok eu ona etortea?

—Badakik zarritan yazoten doana suerte txarrari eskerrak suerte ona izatea, ta auxe berau yazo yatak neuri be. Ijito batzuk atrapau nayoeke, apari baterako ederra nayaola ta. Baña euron eskuetan yaustean artu yoadan ikareaz argaldu egin nok ordu batetik bestera. Ta orduan, euron yanaririk onenak neuri emoten asi dozak, tamala doala neu lango katu bat alperrik galdutea ta. Ta olantxe, eurok euron yanaririk onenak neuri emoten ta neu orrek yanariok yaten, sentika sentika Zarrizeraño eldu gozak, eta ostatu andi onen aurreraño eldu gozanean, igarririk ordurako yanariok amaitu-aiñik yagozala, euron burditik, eurok igarri barik, urtenda, onaxe etorri nok ixil-ixillik; eta berton sarturik, miaukada batzuk euskeraz egiñaz, bertoko morroi abadegei euskalzale baten biotza irabazi yoat..., eta orain..., emen naukok...

—Suertetxua euki dok gero!...

—Bai, mutil. Ta eu zek ekarri au ona ba?

—Mutil, nire etxetik onako ipuiña luzea dok, eta etxakiat astirik eukiko ete doan euk guztia entzuteko.

—Astia... zeinbat-gura yaukat nik emen. Etxaukat beste bearrik saguak eta arratoyak uxatutea baño. Ta au bear au euk be ondo dakik arnaseaz beste barik egiten yoaguna..., geuk gura izan ezkeru.

Imiñi deutsaladan atxakiak, antza dagoanetik, ezteust bape balio, ta besterik asmau egiteko, Txitxu gurea urrun daukot eta, kontau egin bear-ko deutsal neure ipuiña Txoriri, bakerik eukiko badot beronegaz.

Gero, bear-bada, damu izango dot kontaua baño.

Txuri

(Au, zerbait geyagogaz,
1933-ko Urriaren 8'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXXIV

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXURI, TXITXUREN ONDORA BIURTUTA

Nik, gizajo andi onek, alan bear dala ta, neu zorizko pardeltxuan sartu bear naula Txitxuri otu yakonetik, Zarrizko ostatu nagusiko suetean neuk neure ointxuak imiñi artean, yazo yatazan yazoera guztiak kontau deutsadaz neure lagun zar Txoriri.

Kontateko ta kontateko ekin deust berak eta...

Baña, zelango zerak ez deutsadaz eragin berari bere esana egiñagaz?

Zorizko pardeltxuan egin neban bizikera luze ta estua gogoratuteak biotza ausi deutso.

Ta errukizko begiakaz neuri begiratuten deustala ta besoak bere papartxuaren ganean kurtzetuten dituzala, auxe esaten izan deust, txitean-pitean, samur-samurrik:

—Txuri gizajoa! Txuri gizajoa!

Baña neure bija ospetsu au, beste alde bate-tik, Txitxuri eskerrak, barre eragiteko zirkimirkiz beterik aurkituten izan dau ta, barre onik be egi-ten izan dau neuri begira ta neuri atzea emonda, bietara; zelan ereak agindu ta alan.

«Txuri gizajoa!» esaten izan eztaun arte guz-tian barreka ibilli da, kar, kar, kar, gelea betean, ta ito-bearrean, ta... iya... neu minduteko bes-tean.

* * *

Atan-orretan, afal-ordua eldu yaku.

Ta gauzak euron orduan egitea ondo dala ta, afaldu egin dogu afal-ordua eldu yakunean.

Ta polito eldu be bakotxak an suetean ager-tu yakun yan-naizuko afariko yaki-zati bakotxari.

Afaldu ta gero, lo be egin gura izango dodala ta, logela panparroi batera eroan nau.

Ta nik orduan, auxe dala auxe esateko ordu-rik egokiena ta, auxe esan deusat:

—Txori, etxe onetan naikoa egin yoat lorik; eta lorik geyago egin barik, itzartu egin gura yoat. Esan egistak bein: Ostatu onetara etorri dozan lagunak, abade yantzita yabiltzanak, euron ejersisioak ezpateagaz ala fusillagaz ala makilleagaz egiten yoezak?

—Kar, kar, kar!..

—Egingo neunkek ezkerreko belarria, Txori barretia, ik orregaz barre orregaz auxe esan gura doala: orrek... emen euron ejersisioak ez yeituezala egiten olango tretxuakaz. Ondo yagok. Baña, badaezpadan be, beste itaune bat egin bear deuat. Ez yarabilliek orrek olango tretxurik?

—Ja, ja, ja! Aorixe ez yakiat ba. Bear-bada, euron errezuetao liburuetao euki leyezak... ondo tolestuta.

—Neu zorizko pardeltxuan egon noan baño zabalago, edozelan be, euki leyezak, adizkidea.

—Umore ona daukok, Txuri.

—Baita euk be, Txori... Pozik egongo nintza-
kek emen euk gura einkean arte guztian; baña
ona ekarri nayoan egikizuna onako yazean bete
yoat, eta etxaukat emen geyago zer-egiñik.
Yakin yoat ointxe (zorionez, Lerrousek eta Aza-
ñak baño lenago) berton yakin bear izan yoata-
na, ta ointxe, beingoan, etxera yoan bear yoat
ixil-ixillik, neure ugazaba Txixu yakitun iminten,
bion ugazaba jauna konturatu baño lenago...
Derio alderako ezer gura badok... Gorantziak
edo...

—Gorantziak an norentzat? Nire lagun zar
guztiak, angoak, il dozak. Eta euki yoadan seni-
de bakarra, lengusua, Madrillen bizi dok orain.

—Madrijen daukok lengusua?

—Bai, gizona. Gantxo Pantzaren zazpigarren
katua dok bera.

—Arranoetan! Zelan yaukok izena?

—Oba izango dok ik orren izenik ez yakitea.
Ba ik, bein yakin ezkerro, Txixuri esango euskio.

—Bein baño eneuskiok esango.

Auxe esan ta guzti be ezin erason izan deu-
tsat katu ospetsu orren izena neure lagun zar
Txoriri.

Olangoxe buru gogorrekoa da Txori au, asten
danean.

* * *

Bakotxak berea bear dau, orraitino, beti be; ta bakotxari berea emoten neu asten banaz asi, esan bearko dot, baita be, Txori ori buru gogorrekoa badala, baña biotz bigunekoa be bai, Jainkoari eskerrak.

Bere biotz bigunak eraginda, beingoan imiñi nau, neuk eskatuta, etxera-bidean.

Ta ganera, biderako zeozer emon be bai; buzkantzak ordeaz izaten direala ta, barre batzuk egin ostean beste batzuk neuri eragin ta gero.

* * *

Eldu naz Txitxuren ondora.

Auxe be, buru gogorrekoa dala, naikoa da biotz bigunekoa.

Apur bat gogorragoa izan da beronek Zarrizera eragin deustan bijatxua.

(Au, zerbait geyagogaz,
1933-ko Urriaren 13'ean argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXXV

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXURIK DAUKO SUERTEA!

Zorizko bijatxua egin dau Txuri gureak Zarri-zera.

Lenengo-lenengo, gerokoak gerorako direala, eskutitz bat artu dau, Txorik Zarrizetik bertatik bialduta.

Ta ezta izan, lenengo-lenengo, suerte makala berau artutea, bialdurik Txorik bialdu daun moduan, txantxetan-benetan, estalkian auxe zuzenbide au, auxe direziño au, imiñita:

Bizkayan

Txuri Katu ospetsu Jaunari

Txitxu Jaunaren etxean

Berlodion

Zarrizko Korreo-etxean, suertez, euskeraz berba egiten eta ulertuten eta igarkizunak asmaten dakian morroi bat dago.

Ta suertea izan da, ta ez txikia, eskutitza, olango estalkia ganetik daula, morroi onen eskuetan yaustea.

Morroi onek berealaxe susmau dau *Berlodion* orretan igarkizun-gei bat dagoana.

Ta igarkizun-gei ori igarri daula erakusteko, ta bide batez, bideko korreo-morroi guztiak ikusi dagien norako izan bear daun eskutitz-estalkiak bere eskutitza barruan daula, zurtasun andiko berba onek ezarri deutsoz bastertxu baten:

Ojo! — Aquí hay gato encerrado. En BERLODION, seguramente, LODI esta por ME. Hágase la prueba remitiéndolo al pueblo vizcaíno cuyo nombre tiene ME precisamente entre su inicial BER y su final O.

Ta onenbestegaz, geyagoko barik, amazortzi-garren egunean, iñon galdu barik eldu al izan da

Txori olgeta-zalearen eskutitza Txuri suerte andikoaren eskuetara.

Ta onen eskuetatik etxeko guztion eskuetara eldu da, beronek poz andiaz irakurri ta gero.

Ta neuk be irakurri bear dot.

Eta zeuk be, baderitxazu, irakurla maitea, bide batez...

Nik neuk olan irakurten dot:

Zarrizetik,
1933-ko Iraillaren 30-ean
Txuri katu txorierritar ospetsuari
BERLODION

Neure lagun zarra:

Baketu dozak orain apur bat baña, asarre egon dozak emengo nire katu-lagunak.

Ez eurok alkarregaz, eugaz ta neugaz baño.

Eugaz, euk euroi ezaupiderik emon ez deutsealako; ta neugaz, orretarako, euron eritxian, egin bear izan yoatazan alegiñak egin ez yoatazalako.

Esan yeutsiet ik gatx euki doala emen egin doan baño denpora geyago berton egiten, ta berton egin doan denporan, barriz, ez yoagula euki astirik egin yoaguna baño geyago egiteko.

Baña ez yeustiek siñistu gura izan.

Miau! miau! egin yeustiek, esaten yakun gauza bat siñistuten ez yoagunean, geuk, katu euskaldun guztiok, egiten yoagun soñuan miaukada biak egiten yeustiezala.

—Siñistu gura ezpadozue, zer egingo da ba? esan yeutsiet nik orduan.

—Bakit nik zer egin bear dan —urten yeustak *Betokertxu* deritxon gazteenak.

—Zer egin bear dan zeuk badakizu, zeuk esango dozu.

Emengo katu guzliok, adizkidea, alkarrren adizkide andiak izan ta guzti be, alkarreri zuketan egin gayeinkiola ta, aolanxe, zuketan, egiten yeutsaguk berba alkarreri. Saguai ta arratoyai egiten yeutsaguk iketan, agiñetan emotearren; alan be, geure agin-artean atrapatzen yoaguza-

nean. Yaten emoten yeuskuen beste guztiai beroriketan egiten yeutseguk. *Yaten emoten yeuskuen beste guztiai* esan yoat eta ondo esan yoat urrean; ba saguak eta arratoyak eurok be emoten yeuskuek, bakotxak bein eta berean gogo andi barik baña...

Baña itxi yayegun orain bakean saguaita arratoyai, ta gayatozan barriro Betokertxugaz yarabilgun berbaldira.

Betokertxuk, *berak badaki, berak esango daula* entzunik, auxe esan yeuskuk:

—Neuk esango dodala? Ondo dago. Banik au diñot: Txuri emen egon dan artean, Txuri zeuk bakarrik ikusi dozun ezkerorain beste guztiok yoan bear dogula Txuri orren exera Txuri berori ikusten.

—Ori askotxu eskatutea da —urten yeutsak albotik Erpatxu izeneko beste katu batek.

—Zelango askotxu?

—Bai, gizona. Yakin bear dozu Txuriren mairako gu danok askotxu gareana.

—Eztau barriketeak balio. Txuri ikusten yoatea ezta Txuriren lepotik yaten yoatea.

—Ez zeure asmoz. Baña, lotsearren be, ezteusku itxiko bere etxetik urteten goazan guztioi bere mayan bazkari eder bat edo afari eder bat beragaz batera yan eragin barik. Eta zeinbat eta lagun geyago yoan...

—Onena izango da guztion izenean Betokertxu berau yoatea —yiñoat neuk orduan.

—Neu, geyagoko barik? Ez orixe! Zozketea egin bear dogu. Suerteko zotza ataraten dauna bera doala.

—Ondo dago —erantzun yeutsaguk guztiak. Eta beingoan egin yoagu geure zozketea.

Saguak atrapateko kayola antzeko zer bat zar eginda ikusi yok, suertez be, Betokertxuk beronek neure atzetik orain yaukodan eskapori andi baten.

Suerteia izan dok auxe be!

Kayola antzeko gauza berorreri kendu yeutsazak Betokertxuk beronek zozketea egiteko bear yoaguzan beste zotz; bat beste guztiak baño andiago ateraten yoala.

Beingoan erabagi yoagu, auxe zotz au beste guztiakaz neure esku eskoyan neuk sartu ta gere, neure eskutik zotz berau ataraten yoan katua izango doala geu guztion izenean ikusten orra yoango yakan katu zorionekoa.

Ta beingoan egin yoagu zozketea.

Ta beingoan atara be Betokertxuk berantzako gordeta suerteak euki yoan zotz zorizkoa.

Olango suerterik!....

Baña eztok suerte txikia eutzako be, Txuri laztana, suerteko zotz on Betokertxuk ataratea.

Gura-aiña barre egingo dok beronegaz.

Ikaragarritzko selebrea dok.

Betokerra begi batetik dok, gaur artean.

Baleitekek biar edo etzi batetik be ez izatea.

Bietatik izatea akordaten ezpayakok.

Ba aorrenbeste be akordau leikiok oneri.

Ain dok selebrea!

Errepublika etorri artean, bere begi okerra, ezkerrekoa, surrera begira euki yok; baña Errepublika etorri doanetik gora, ezkerrera begira yarabilk barraban onek, alderdi orretan ikusi layeikezan gauza barregarriak obeto ikusteko. Berak gura yoana guztia egiten yok bere begi okerragaz. Ta beste ainbeste egiten yok begi berorregaz atrapatzen yozan gauza barregarri guztiakaz.

Barre eragin gura yoan guztian, barre eragiteko artuten yoan gauzeari bayakik nondik eta zelan eragin, berak gura yoan beste barre aurrean yaukanari eragiteko.

Etxiñoat geyago. Or ikusi dok eure begiakaz...

Sayetsai ondo eutsi, bada-ezpadan be, berba egiten deuanean.

Agindu eure lagun zar

TXORIRI

(1933-ko Urriaren 22'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXXVI

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

MAURA SUTSUA EZTABIL FIRI-FIRI

Betokertxu, Txori onak bere eskutitz gozoan aginduriko Betokertxu katu barre-eragille nagusia, ez yaku etorri oindiño.

Beintzat, geure aurrean, geuk ikusteko lekuan, geuk dakigula ezta agertu.

Domekan etorri ezpada, suertez be, geu Maura sutsuak Burgosen bota eban diskurtsoa radiotik entzuten gengozala...

Izan leitekean, gure etxeko atera eldutea, suertez be, bitarte orretan, ta berak atea yo

arren, guk ez entzutea, Maura sutsu orren zaratakaz.

Olan izatea, beti be, oba izango da gaixorik dagoala ta aonetxegaitik etorri-eziñik egotea baño.

Geuk olan uste dogu, ta berak be bere eskuan dauko olantxe uste izatea, geure eritxi argalean. Maurak berak berbea lodi bota dau. Arranoetan, mutil ori ezta ibilli *firi-firi!*

ESAN DEUSKU TXURIK BERE ERITXIA

Tira! Bota dau Maura orrek berorren diskurtsoa, ez beingo-beingoan baño.

Denpora gitxiago bear izan dau Txuri gureak Maura berorren ganeko eritxia emoteko.

—Ta, Txuri, zer deritxak berbalari (oradore) orreri? —itandu deutso Txitxuk, berbaldi zarata-tsua amaitu daneko.

—Zer eritxiko deusatsat! Berba asko egin daula.

—Ta ondo, oyez?

—Ondo... Tira! Batzuetan, bai. Baña ez nau ni lorindu... Ori, morroi ori, berbalari ona ta guztia izango da, baña...

—*Baña* diñok?

—*Baña* asko aurkituten dot nik morroi orre-gan, jauna. Baña, Betokertxu noiz ikusiko ete dodanezko zeragaz, eztaukot burua geyagotara-ko euki be ta..., bat bakarrik esango dot...

—Esaik ba, esango badok.

—Ara ba... Ointxe esango dot, baña, ez gero niri agirakarik egin! Nire eritxian..., Maura ori... *katolikuentzako* baño obea da... *katu laikoentza-ko*.

EMON DAU TXITXUK BERE BERBEA

Eldu gara barikura, Jainkoari eskerrak.

Baña Txitxuri, eldu garean egunera eldu, ta bitartean, lau edo bost egun igaro ta guzti be, ez yako aiztu Txuriren arrazoi zurtasunez betekoa; ta gaur berton be, zazpi bidar gitxienez esan dau

Txurik bere arrazoi orregaz Maura sutsua bere lekuan imiñi daula: berari yagokon lekuan.

Ta orain auxe diñost, Maura ta katua, biak, euron lekuetan itxita:

—Ezteritxo, ugazaba, ondo izango dala orain geure gauzak gogoan izatea?

—Geure gauzak asko dozak, guztiak era batera gogoan izateko —diñotsat neuk.

—Danak era batera ez, baña banan-banan... Orain, lenengo, ardurarik geyen emon bear deuskuna.

—Ta, zein dok ori?

—Zein izango da! Orain esku artean darabilguna.

—*Firi-firia* izango dok, oyez?

—*Firi-firia*, bai, *firi-firia*. Lenengo-lenengo, badaki gaurko au zeinbakarrena dogun?

—Nik ez yaroat konturik.

—Ez ba. Berorrek *firi-firiak* egin ta egin ibiltea baño eztau besterik gogoan.

—Nik naikoa egiten yoat orregaz...

—Bai, ba. Argitara urteteko lekura bialdu egi-teko ardurea neure ganera itxita dauko ta...

—Bai, ta ik ondo betetu be ardura ori.

—Al dodan lez. Baña biok be... zeozer geyago egin bear dogu.

—Euk esango dok.

—Orain egin bear doguna auxe da: kanpoan dirua atarata baño ezpada be, gaurko *Firi-firi* au arteko danakaz batu ta guztiokaz liburu bat egin, *Kili-kili* izenagaz atara gendun bestekoa.

—Euk diñoazan *Firi-firi* guztiokaz euk gura doan lango liburua egiteari ondo yeritxat, Txitxu. Baña orretarako kanpoan dirua ataratea ez yatak ain ondo paraten; atan be, kanpoan atarabearrik ez yaukagula. Jesuitak, euron gauza ixillekoak ixillean euki yaiguzan, astean-astean bialduten yeuskuezan diruakaz eurokaz... dirurik naikoa ta lar euki bear geunkek.

—Euki bear geunke. Baña baki ba... Nik badiñotsat: kontuak neuk ondo atarata daukodaz. Gaurko *Firi-firi* au bape luzea bada, arteko guztiak beroneri erantsita, badaukagu *Kili-kili* izenagaz atara genduna besteko beste liburu bat egiteko lain.

—Etxakiat ba.

—Egin daigun ta aorduantxe ikusiko dogu.

—Egia diñok orregaz. Bai, mutil. Egin ta gero ikusiko yoaguk. Baña, igarten ezpadok...

—Igarten ezpadot igarri, parkatu egingo deusadaz nik berorreri berorrek zor izan leistezan neure orain arteko, oraingo ta bizi nazan arteko aloger guztiak.

—Zer diñok, Txitxu?

—Emon dot berbea.

—Ta, eure berba orregaz... zeinbat berba uste dok egongo dozala orain-arteko *Firi-firi* guztietan, gaurko au barru doala?

—Nik dakit ba? Ainbeste dira ze...! Baña utsik egiteko bildur barik esan neyo, orraitiño, izango direala eurok, gitxien-gitxienez, ogeta zortzi... mile.

—Orrenbeste berbagaz zeozer egin geinkek. Gitxiagogaz egin yoek diputadu izan dozan morroi batzuk euron diputadutzea.

(Au, zerbait geyagogaz,
1933-ko Urriaren 29-an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXXVII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXITXUK BADIÑO ZEOZER

Blasko Ibañez errepublikanu illaren azurrak, edo autsak, ataute dotoreren baten ekarri dituez errepublikanu bizi batzuk Balentziara.

Ba irurogei mille peseta kostau el da ataute ori.

Dirua da gero!

—Irurogei mile peseta amabi mille ogerleko eztira, ugazaba?

—Bai, Txitxu, ogerleko bakotxak bost peseta yaukozan artean.

—Nik eztaukot orrenbeste.

—*Orrenbeste orregaz ogerlekoak beste esan gura izango dok ik, barraban orrek, bear-bada...*

—*Bear-bada* barik, ugazaba. Nire praketako boltsak eztira ausiko diru lar erabilliagaitik.

—Esku artean ainbat erabilten dok, ba.

—Erabilli bai, baiña euki ez. Zelan etorri, alan yoan.

—Ori dok garbi yokatutea.

—Errepublikanu askok eta sozialista askok gura daben lez.

—Olan yokatu gura yoek?

—Olan yokatutea gura dabe. Gauza bat da, berorrek ondo dakian lez, olan yokatu gura izatea ta beste bat olan yokatutea gura izatea. Olan yokatutea gura daunak bape neke barik gura izan lei, berak olan yokatu barik, besteak olan yokatutea.

—Euskeraz berba egiten badakiala esan leik, Txitxu. Alde andia yagok, bai, beti be, aditza *tea-gaz* erabilterik *tea-barik* erabiltera. Baña euskel idazle batzuk etxakiek, antza.

—Euskeraz ondo eztakielako.

—Zeozegaitik izango dok.

—Baña, zegaitik itxiten deutsie euskeraz ondo eztakien idazleai euskerazko lanak egiten? Eztago multarik orrentzako?

—Ezaututen dok euk olango idazlerik ala?

—Ez al da naikoa ta lar euron lanak ezaututea? Onako papertxu onetan dagoana be olango-
ren batek egiña izango da. Suertez be, aoraintxe irakurri dot neuk, eta neuk irakurri ta gero berorrek be irakurri dagian gura neunke. Berorrek... berorren pekatuen parkaziñorako irakurri gura badau, beutso. Ostean, obeto izango dau yaramonik egin ez. Baña gaur berton aurki egin dituz pekatutxu bi, neuri zer andi barik, katua dala katu, egin deustazan agirakaldi biakaz; ta artu bei, ta irakurri bei, alde orretatik ona baño obea izango dau ta... Bakit berorren eroapenari bear eragiteko beste atsekabe emongo deutsana.

—Luzea dok?

—Olangorik! Luzea ete dan itanduten deust eskuan daukon gauzeagaitik?

—Eskuan artu baño ez yoat egin, Txitxu. Ez yeutsat oindiño begiratu. Albadiberea (distraindua) banok, baña ez orrenbestean.

—Neu baño geyago ez beintzat. Andia yazo yat neuri, gaur goizeon ain zuzen be, ugazaba. Baki Patxo Baketxu neure lagun andia il dana.

—Bai, ta bayakiat *Baketxu* ezizena zegaitik imiñi yeutsien be... Beñola...

—Itxi bei, mesedez, gerorako ipuin ori; ba ostean, neu albadituko naz, bere arimearen aldeko elizkarian bertan egin nazan lez. Yoan naz elizara, ta lutu-aulkiaren atzeko aulkira yoan be, trapa-trapa. Ta lutu-aulkian ainbeste lagun ikusirik, asi naz ia euron artean Patxo Baketxu bera ete dagoan begiratuten; ta eztagoala ikusi dodanean, «au beste illen baten elizkaria dok, antza» esanda, geyagoko barik, atzera etorri naz etxera trapa-trapa, elizkaria bertan bera itxita.

—Ik egiteko eztok asko.

—Ez, jauna. Irakurri bei, orain, eskuan daukon orritxu ori.

—Lenengo-lenengo, eskuan ete yaukodan begiratu bear yoat... Emen yagok.

* * *

—Ta, zer deritxo, ugazaba?

—Zer yeritxodan? Penitentzi makala ez deus-
taala euk emon neuri ipuin au yagoan eran ira-
kurri eragiñaz. Ai! Olango penitentzi barik iraku-
rri nayoan neuk ipuin berau antxiña baten, erde-
raz, orain aiztuta yaukodan leku baten, Txixu
maitea.

—Orduan, ori euskeraz olan imiñi dauna biur-
tzalea da edo izan da lan orretan.

—Bai, antza.

—Eztauko biurtzale onaren antzik. Antza dao-
netik, biurtzale biurra da. Biurra edo okerra edo
oker biurtuten dauna.

—Okerra be okerra az eu, Txixu, eure eritxi
zuzenak emoten.

—Geyago be emongo neuskie nik olango eus-
kel idazleai. Esate baterako, geyagotan euskeraz
ez idazteko baimena.

(1933-ko Zemendiaren 5-ean argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXXVIII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

AZAÑAREN LEPOTIK

Azaña andia, bere loba neskatila bat ezkon-
duten dala ta, Zaragozara yoan da... gizajoa.

Ta bere loba neskatila ori, ezkondu teko, eli-
zara yoan da, ta bera be ara.

Baña, berantzako, ez ordu onean, antza.

Antza daonetik, bere arpegiko garauak agi-
rian dituzala agertu da elizan, ta bere loba nes-
katillea ezagututen izan eztaben batzuk ondo
ezagutu dabe bera; ta, berak entzuteko eran,
marra-marra asi yakoz, ta olan onek asirik, jen-
tea parra-parra asi yako olantxe marra-marra.

—Jentea marra-marra asitea ezta izan bakarririk, ugazaba.

—Zer izan dok geyago ba, Txitxu zurra?

—Ekitea. Luzaroan ekin deutso jenteak olan.

—Ta bera ixillik, eztok?

—Auxe esan dau agin artean, euron artean atrapau baleu, birrindu egingo eban jente marra-marralariari begira:

*Ai, or zabiltze marra-marra,
ta orain nik ezin amarra!*

—Baña ori bertso ori ez yeutsak entzun jenteak.

—Ez, ba. Ez deusat esan agin artean esan daula?

—Ondo yagok.

—Bertsoa ala? Bayetz nago. Eztau egin Azaña orrek bertso obagorik bere bizi guztian.

—Eu be ez az txarra bertsoak egiten.

—Botako neuskioz nik ointxe berari, berorrek itxi-ezkero, iru edo lau.

—Tirok, bat bota egiozak. Baña berari atsegin izan leikion soñuan botako deusazak gero.

—Baki berorrek arako

*España, España,
la Monarquía...*

—Entzun yoat iñoiz.

—Ba kanta eder orren soñu *panparroyan* kantauko deusadaz gizon *andi* orreri berantzat oin-txe egingo dodazan bertso txu onek. Beyoaz, bidean galdu barik, neure burutik neure ezpanetara, ta neure ezpanetatik berak ain bero daukozan bere belarri bietara!

*Azaña, Azaña,
gizajo andia!
Ai! Zure aldia
birrindu da!
Garbitu egizu
zeure arpegia,
beste bat ia
dirudian.*

—Naikoa dok, mutil.

—Naikoa ta lar.

—Lar diñok, Txitxu? Nik ez yoat esan lar danik.

—Baña neuk diñot, neure eritxian, lar dala Azaña ori gaur dan lango gizon batentzako.

—Berari marra-marra Zaragozan, an, elizan, egin yeutsienak ez yeutsiek eritxi lar ez naikoa alan marra-marra berari ekiteari.

—Ez, antza.

—Gero, elizatik urten ta gero, beste soñu bat be entzun bear izan yok gizajo andiak. Txistu-soñuan artu ei yok kaleko jenteak.

—Bai; txistuak yo ei deutsiez. Baña bera eztabe yo orraitño.

—Aorixe bai lar izango zoala!

—Zer izango zan lar?

—Bera yo egitea.

—Bego ixillik, ugazaba. Bera yo-ka ibilli da nagusi izan dogun arte guztian. «Aquí yo mando, yo dispongo» ta olantxe yo egiten ekin dau. Ta orain bera yo egitea eskatuten dau bardintasunaren legeak.

—Ezteritxak naikoa ekin yeutsagula gaur Azaña gizajo orreri?

—Bai, bein. Ta eztiñot lar ekin deutsalunik...
baki zegaitik?

—Ez euk esan barik.

—Urrengo baten be ekiteko eskubidea euki
dagidan. Au da *juridisialdea!*

—Ori dok burua, Txitxu! Ori berba ori be ikasi
dok?

—Bai, jauna. Zeozetarako aitatu deusku
Otxorio Gariartok ainbeste bidar.

—Ta orain ik, bide batez baño ezpadok be,
Otxorio Gariarto bera aitatu gura izan deustak.

—Bai, ba. Beste iñok ez daula aitatuten ikusi-
ta...

—Itxi yayogun gaur bakean Otxori Gariartori;
ba orregaz asten bagozak asi, Jainkoak berak
yakik bakarrik noiz itxiko yeutsalun.

(1934-ko Urterrilla'ren 7-an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XXXIX

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

PORTUGALETE TA PORTUGALETEKO GAUZAK

Portugaleteren entzuterik badaukazu, irakur-
la maitea?

Berak badauko bat, eta ez txikia.

Beti euki dau Portugaletek entzute andia.

Batez be, Txorierrin.

Erria da bera be.

Erria edo uria.

Baña, uria izanda bere, erria da, seguru be;
ta guzurrik esan barik esan geinke *Portugalete*
gogoan dogunean izen ori daukon erri bat dogu-
la gogoan.

—Ugazaba, ezaututen dot nik emen morroi bat *Portugalete* deituten deutsiena.

—Portugaletetarra izango dok morroi ori, Txixu.

—Bai, jauna; angotarra da.

—Ba egik kontu *Portugalete* deituten yeutsiela, ain zuzen be, aorretxegaitik: portugaletetarra doalako. Baña emen ez yoaguk gogoan portugaletetarrik, Portugalete bera baño. Ta Portugalete bera erria dok.

—Edo uria.

—Txixu, zer yan dok gaur, olan ibilteko?

—Parkatu bei... Ondo esan dau berorrek. Uria izanda be, erria izan bear. Ta nik ixillik egon bear, oyez? Tira! Azaña Albiñanaren aurrean baño be ixillago egongo naz neu berorren aurrean, berorrek berba egiteko baimena emoten ezteustan artean.

—Euk uste izan einkean baño lenago emon bearko deuat, zer izan yoagun gogoan esan dagistan. Ba aitzu yatak garbi-garbian eure zero-kaz.

—Portugalete entzute andiko erria dala esan dau berorrek.

—Atan be, Txorierrin, eztok? Ez yoat esan au be?

—Bai, jauna. Ta eztau esan orregaz be guzurrik. Txorierrin txorierritar garbi guztiak ete dakien nago onako kantatxu au:

Portugalete,
vino clarete,
edango neunke
basutxu bete.

—Portugaletek, kantatxu orregaz, entzute andia artu yok txorierritar kantarien aboen bitartez. Baña erri orrek, bere entzutea zabalduteko, bayaukok gauza geyago be geure Txori-erri Barre-erri maitean.

—Neu ez naz gomutetan...

—Aiztuta egongo az ta.

—Orixe izango da, ugazaba.

—Entzun egingo enduan ik iñoiz zeozer an, Sondikan ta inguruetan, Portugaleteko atsoakaitik.

—A, bai, jauna!... Eguraldi onean negar egi-ten dabela, onaren atzetik txarra etorriko dalako

bildurragaz, ta eguraldi txarrean dantzan egiten dabela, urrengoa ona izango dalako pozagaz.

—Ta orrezaz ganera ipuiñak be bayabiltzazak txorierritar jatorren aboetan Portugaleten bertan yazorikotzat esaten dozanak. Arako arratiar gaztai-yalearena ta.

—Entzun dot iñoiz nik ipuin ori, ta barre onik egin be bai berori entzunik. Esan bei beste bein berorrek, irakurleak be entzun edo irakurri dagian.

—Itxaron beyegik apur baten...

* * *

Portugaleten zapatari-bizikeran bizi zan arratiar batek, goiz baten, ainbeste urtean ikusi barik eukan bere erritar bat aurkitu eban Portugaleten bertan, bertara bere erritar ori txarriak salduten etorrita.

Txikitako mutilko-laguna eban bere erritar ori, ta olan ainbeste urtetan ikusi bako lagun zarrari egiten yakozan txerak eta zerak egin ta gero, bere txarriak salduten lagundu ta azkenen-

go txarria saldu ostean, etxera eroan eban konbidedu.

Arratsalde-erdia eldu yakien atan-orretan, ta bazkalduteko belu zala ta, azkaritxu bat jatea otu yakon zapatariari.

Emaztea ez egoan ordu atan etxean, ta gertuen egozan yakiai bota bear eskua.

Gertu egozan gauza bi: Balmasedan egiñiko tremes bat eta Burgosekotzat erosiriko gaztai eder bat.

Ogia be ez zan txarra baña, gaztaya benebenetan egoan jan-naizuko.

Eder-ederra egoan.

Eta oso-osorik.

Asteko, zatitxu bat kendu eutsan zapatariak berak.

Eta berak besteko zatia kenduko eutsalako amesagaz emon eutsan eskura txarri-saltzalleari, berak kenduriko zatia ebagi eban aiztoagaz batera.

Txarri-saltzaleak gogotik eldu eutsan esku bategaz aiztoari ta besteagaz gaztayari, ta beingoan, neuk esan neinkean baño ariñago, kendu

utsan oneri beronen yaubeak kendu utsan lango biko edo iruko zati bat.

Ta au zati au berealaxe yan, ta beingoan beste zati andi bat kendu ta au be artekoa eroan eban lekura... bota eban... ziñu gitxigaz.

Ta bada-ezpadan be,... ogi gitxigaz.

Zapataria ikaratuten asi zan.

Baña txarri-saltzalea bera ez zan ikaratu.

Geroago ta zati andiagoak kenduten eutsazan bere lagun zar zapatari gizajoaren gaztai gozoari.

Olango baten, gaztayaren apurrik be ez eutsala itxiko ostean ta, zeozer esaten azartu zan zapatari gizajo ori.

Baña bai erantzun be bere lagun txarri-saltzalle gaztai-yale azarriak.

—Esan leik aspaldion eztoala yan olango gaztairik —diñotso zapatariak txarri-saltzaleari.

—Aspaldion diñok? Iñoiz be ez onen gozorik —erantzuten deutso zabal-zabal txarri-saltzajeak zapatariari, yateari itxi barik.

—Bakik gero orregaitik zeinbat diru emon yoan nire emazteak?

—Nik yakiat ba? Zeuek yakingo dozue.

—Amar erreal, mutil.

—Olango gaztai on batek orrenbeste ta geyago balio yok.

—Baña... bakik gero?: berori baño ez yaukaguk.

—Bear be ez yoat nik geyago. Naikoa yaukat beronegaz.

* * *

Txitxuk, irakurleak barrerik egin ete daun begiratu barik, berak barre batzuk egin ta gero badiñost *serio-serio*:

—Portugaletoko gauzak guztiak azaldu barik emon bearko dogu amaitutzat *Firi-firi* au, antza; ba baltzitu dogu azkenengo paperik geyena.

—Zer egingo yakok ba?

—Nik eztakit zer egin leyon paper oneri. Baña luzatu al baneu, luzatuko neunke.

—Zetarako?

—Portugaletoko bertoko diputaduakaitik zeozer esateko.

—I *kapas kapas* izango az orrei *omenaje* bat egin dagioela portugaletetarrai eskatuteko.

—*Omenajea* diño? *Omenaje* yazekoa egingo neuskie nik orrei; baña, bear-bada, ez litzake izango euron gogokoa.

—Yazekoa izan-ezkero...

—Yazekoa, bai; elizako kanpatorretik eskegi-ta... Jesus! zer esan dot?

(1934-ko Urterillaren 14'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XL

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

PORTUGALETE AITATUAZ, ZERBAIT GEYAGO

Portugaletoko gizon batek Txixuri eskatu deutso, arren, erderara biurtu dagoiola lengo domekako *Firi-firi* gozoa.

Ba gozoa be gozoa dala, antza dagoanetik, Portugalete berak legez maite-maite daun edozeinbere portugaletetarrentzako, ta bere gozotasuna dan bestean artu gura daula bera guztiguztia ulertuta.

Tamalez berak, Txixuri mezede ori eskatuten deutsan gizonak berak, eztaki euskeraz, ta eztau besterik ulertu *Firi-firi* guztitik auxe baño:

*Portugalete,
vino clarete.*

Txitxuk eztauko orain astirik erantzuteko; baña erantzun dagionean, urrean esango deutso ezin leikeala berak astirik atrapau a *Firi-Firi* guztia erderara biurtuteko, esku-artean darabiltzan ainbeste bear esku-artetik kendu artean.

Alan da ze, Portugaleteko gizon orrek berak bear daun bear ori egiten Txitxu gurea beingoan imiñi gura badau, *atrakadoretxu* bat edo batzuk bialdu bear ko deutsoz oneri esku-artean darabiltzan bearrok esku-artetik kenduten.

* * *

—Txitxu, bayakiguk i igarlari ona azana.

—Izan be banaz ta. Baña berorrek eztiño orain geyagoko barik badakiala ni igarlari ona nazana. Igarkizunen bat gertuta dauko ointxe nitzat, begia lez.

—Igarri dok igarkizun bat eutzat gertuta yaukotana.

—Ta ori igarteaz... yazean erakutsi deutsal igarlari ona nazana, ezta, ugazaba?

—Bai. Baña, igarriko ete dok eutzat gertuta yaukodan igarkizuna bera?

—Esan bei, ta ikusiko dogu ia antzik artuten deutsaladan.

—Ona emen ba... Plasentzia deritxon erriko alkateak bere erri orretako eliza baten bonba bat imiñi yok. Ezetz igarri alkate ori anarkistea ala zer doan!

—Karlitatea.

—Ez, mutil. Sozialistea dok, sozialistea. Eztok igarri.

—Ez, ba. *Ezetz igarri* esan dau berorrek eta, ori esanda, nok igarriko eutsan?

* * *

Gresia aldean ba ei dagoz ezkertarrak, emen lez. Baña, emen leztxe, an be bizi dira eskumatarrak, seguru.

Ta eurotariko asko, esku eskuma onagaz, antza dagoanetik.

Lengo baten, eskumatarrok eskatu barik, mitin bat emon dau ezkertar batek.

Eta bere mitin ezkertarrean iñon direan zantarkeriak esaten asi da eskumatarrak maiteen dituezan gauzen aurka, guzur ta naste.

Baña eskumatarrak ezteutsie luzaro itxi berantzako ain gozoa izan dan lan orretan yarduten.

Beingoan yoan yakoz ganera ta goitik bera emon deutsie,... lepo bete... ukabilkada ta ostikada ta naste... emoten deutsiela.

Txixuk diñoana egia bada, orreri morroi orreri ondo irakatsi yako, il barik, zelan bizi bear daun bere alderdikoak eztiranakaz.

—Ta geyago be badiñot, jauna.

—Zer geyago?

—Danon artean... morroi orrek ikusi gura izan eztaun kurtze bat egin dabela.

—Zelan?

—Berak lenago ezkerretik eskumara ekiñik, gero besteok, eskumatarrok, goirik bera ekiñagaz.

(Au, zerbait geyagogaz,
1934-ko Urterillaren 21'ean argitaratu zan)

FIRI-FIRI XLI

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

IPUIN ZAR BAT ETA GAUZA BARRI BATZUK

Gaubon-aurreko aloteriko yokaldiko egu-
nean, amaikak inguruan, *E.A.J. Zazpiterdi*-ri
entzuteko baño amaiketako on bat artuteko
obea zan orduan, Radio-estasiño orretatik alote-
riko numerutxuak entzungo dodazala ta, poz-
pozik zabaldu neban neuk neure radio-tresna
polita.

Poz-pozik zabaldu nebala esan dot, eta ezto
esan guzurrik orregaz be, baño guzurrak urten
eustan.

Ez neban entzun neure numerurik.

Eta... au zori txarra!... beste iñonik be ez. Neuk dakidala beintzat.

Ordu betegarreanean, gogait eginda, neuk diñodana entzuteko belarrietakorik eztodala bear ta, belarrietakoak neure belarri biotatik kendu ta gero..., entzun ezpaeustien be, argi-argi esan neuntsien... an, Diru-etxean edo, eurok ataraten zituezan numeruak eta sariak kantaten iarduen mutilkotxuai:

—Ia, aingerutxuok! Ataraizuez bein, alkarren atzean, bat orrek *E.A.J. Zazpiterdi* beronek yokatuten dituzan numeruetarik bat, eta beste orrek amabost milloiko lopea... Ia, olantxe, datorren urtekoak obeto entzuten doguzan!...

* * *

—Zer imiñi deustak or, Txitxu?

—*E.A.J. Zazpiterdi*-gaz berorreri yazoniko ipuin bat.

—Ipuin zarra dok ori.

—Zarra, baña polita.

—Ipuiña, zarra izan arren, izan leitekek polita. Baña ire ipuin ori, berorren geyak yaukon

baliorako, zarregia ete doan nayagok. Olango balio gitxiko ipuiñak yazon ta beingotxuan kontau bear dozak.

—Kontau eban berorrek izparringi beronetan, oraintxe dala iru urte inguru.

—Ta, neuk bein bere aldian yazon ta beingotxuan kontauta yaukotsadan ipuiña kontau deutsak euk beste bein irakurleari? Zer esango yok?

—Zer esango dau? Zeozegaitik kontauko neuntsala neuk ointxe, berorrek lenago kontaurik euki ta gero.

—Beste bein ez egik olango bearrik egin; berari baimena eskatu barik, beintzat.

—Beste bein, ez...; baña beintxu ba...

* * *

Au da bat!

Bakit, beronek zer egin daun yakin dagianean, irakurleak, *ori dok bat!* esango dauna, ta orregaitik esan dot neuk, *au da bat!* lenengolenengotik.

Eztakigu ziur laiko utsa ala laikoa ta maikoa izan dan, bizi izan dan artean.

Laikoa izan ezkerro, alan nai olan, beti be, ni baño urrago egongo zan sozialistea izatetik. Eta izan be urrean izan da sozialistea.

Orain... il da, ta batek baki zer dan ordu onetan.

Jainkoak errukia izango al eban beragaz... bere eriotzako ordu estua eldu yakonean..., erioztzearen eskuetan guztiz yausi baño lenago!...

Baña, moduren baten, barreak eragiteko beste gauza negargarri bat, bai, egin dau gizajo andiak.

Ilteko ordua eldu yakola ikusi daunean, *konfesiño eder* bat egin bear daula ta, ezteutso deitu ba juezari!

Jakiteko gagoz oindiño... jueza yoan yakon ala ez.

Baña, yoan bayako ta bere *konfesiño ederra* entzuten pareu bayako, biokaitik be esan lei zeozer.

A ze bi!

—Naikoa dok, Txitxu.

—A ze *bi!* esan dot.

—Bai, mutil. A ze *bi!* esan dok, eta ez *aza bi!*

Boskarren paperaren erdia be baltzitu dogu, irakurlea.

Paperaren erdia ta paperik erdia.

Ta Txitxuk eztau esan esateko daukanik laurena. Ez, ba. Ainbeste sozialisten ipuiñak daukoz esateko ta...

—Orrena be eztot esan guztia, ugazaba.

—Zer itxi dok esan barik ba?

—Aragoiko erri baten yazo dala.

—Tirok, ba! Esan dok orain... eta bardin dok.

—Baña orain beste gauza bat yatort burura.

—Zer, Txitxu?

—Gauza ikaragarria izango dala *Ara... goitik ara... bera* yaustea.

—Yaustea beti dok txarra, edonondik be, *ara... bera...* Baña, bear-bada, ori ez zoan yausiko. Sasoiz adizkidetu badok Jaungoikoagaz... Jau-nak euki gayazala bere eskutik!

(1934-ko Zezeillaren 2-an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XLII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

SOSIALISTA-KONTUAK ETA KARLISTA-KONTUAK

Toledoko probintziko erri batek Torrijos dauko izena ta sozialista bat alkate.

Ta alkate sozialistek, guzurra dala esan lei baña, bere neskamea dauko.

Ta bere neskame orreri, bera zeozetarako dala erriko alkate erakusteko, erriaren lepotik erregalu polit bat egin gura izan deutso.

Ezta milegro.

Tira! Egon be eztago ezetariko milegrorik sozialistentzako.

Sosialista alkate onentzako, beste sozialista askontzako lez, naikoa da gauzea non dagoan ikusi ta gero, gauzeari eskua yaurtiteko modua eukitea..., bai norberaganduteko, bai norberak gura daunari emoteko.

Ta alkate sozialista onek, ikusirik, olango baten, bere erriko neskato-eskola bat maistra barik dagoala, arin konturatu da an daukola *entxufe* yazeko bat bere neskameantzako ta... jakiña, ba, Joakiña!... bere neskameari emon deutso *entxufe* ori, bera bertako *maistra* egiten daula.

Tamalez, bere maistretzearen alogera kobrateko, onetarako egiñiko papertxuan bere firmea botateko esan bear izan deutso au esan leyon bat edo batek, eta orduan yakin da maistra barri orrek eztakiala firmetan.

Ostean, orra or neskatoa beingo baten *maistra* eginda.

Beingoan egiten dabe sozialistak euron *karrerea*.

* * *

—Ai, ugazaba! Sozialistak arin egiten dabe euron *karrerea*, atzekoaren begira egon barik; baña ariñago egiten dabe beste gauza bat.

—Zer, Txitxu?

—*Karraderea*.

—Bakutsu?

—Ikustekoa izango da Portugaleteko diputadu lodiak Frantzi aldera edo Portugal aldera egingo daun *karradera* ariña, bere erreboluziño barriaren erre-egosiak txarto urteten badeutso.

—Guk ez yoagu ikusiko ori karraderarik egiten.

—Izan leiteke orrek oraingo karraderea geuk ikusi barik egitea. Orain artekoak be geuk ikusi barik egin dituz ta.

* * *

Granadako probintziko «Puebla de don Fadrique» deritxon erri baten, gora-bera bat izan dabe Hoyos Jose Mari ta Martinez Felis sozialista amurrutuak.

Martinezek, amurru andiaz, bere aurrean belauniko pareu ta berari parkeskatu dagiola esan deutso, olango baten, Hoyoseri.

Ta ariñago belaunikotu deiten edo, belarri ondoan belarri-ondoko eder bat ezarri deutso.

Baña Hoyosek Martinezeri, txistua baño ariñago, berak baño amurru geyagogaz erantzun deutso, belaunikotu barik, zutun-zutunik dagoa-la, berari tiro bat yaurtin eta tiro berorregaz bera illagaz.

Orra or orren *igualdadea!*

Jainkoari sasoiz parkeskatuko al eutson illak, il baño lenago; baño... zeinbat bidar parkeskatu ete deutso berak iñori, parkeskatu eragin gura izateko bere lagunari?

Ta, belauniko, atan be!

Ikusi ete dau bera iñoiz iñok belaunikotuta olantxe, belauniko, egon bear izan daun lekuan?

Ta beste orrek be bardintasun ona erakutsi dau, arranoetan, belarri-ondokoari tiroaz erantzunagaz!

* * *

Txitxuk esan deuskun guztia entzun ta gero, lekurik badago, beste gizon baten ipuin bat kontau bear dot.

Au gizon au ezta orrekaz bat.

Izena be beste bat dauko ta...

Margarit Benito deritxo: Margarit abizenez, ta Benito bateo-izenez.

Onek, Margarit Benito jaun onek, Kataluniako erri baten, bera bizi dan errian, lantola bat dauko.

Ta bere lantola orretako langile guztiai, aurtan, bateri be bere aurrean belaunikotu deitela agindu barik, alogeren ganera, igaz lantoleak itxiriko irabazteen zati bat dala ta, bakotxari brein mille erreal emon deutsie.

Itanduko neuskio nik ointxe Txitxuri ia au gizon au zer dan: sozialistea ala...

—Ugazaba, itandu barik be esango deusat, berorrek gura badau. Bakit karlistea dana.

—Nok esan deusk?

—Yakin nik! Orain artean be olango bearrak egin bakoa ezta ta...Urtean-urtean egiten dituz, Largo Kaballerori baimenik eskatu barik.

—Kontxo!

—Ganera, badakit kontzejala dana be.

—Kontzejal karlistea dok, oyez?

—Bai, jauna. Ta esango deusat nongoa be, ugazaba. Olesakoa.

—Bere erria dok, izan be, Olesa.

—Egin leyo oyes Olesa orrek olango seme onari.

(Au, zerbait geyagogaz,
1934-ko Zezeillaren 11-n argitaratu zan)

FIRI-FIRI XLIII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

SOSIALISTAK AITATUAZ, ZERBAIT GEYAGO

Orrako Errepublikoa etorri ta gero be *Ciudad Real* deituten yakon, Ciudad Realgo probintziko uri nagusiko guardia zibillak kajatxu batzuk atrapau dituez; eta kajatxuotan, ogetazortzi pistola.

Probintzi bereko erri baten alkate dan Maestre Jose izeneko morroyantzat bat edo batek bialduta.

Maestre trastek bera alkate dan erri berorretako txiñelentzako (aguazilentzako) direala ogetazortzi pistolok esan deutsie guardia zibillai, onek zeozer itandu deutsiengan.

Baña ezteutsie siñistu.

Bada-ezpadan be, ondo da alkate sozialista siñiste bakoari, olango gauzetan, ez siñistutea.

Atan be, bere izenean datozen pistolak berak aitaturiko txiñelak baño geyago direanean.

* * *

Austriako zirri-parra ikaragarrian yokoak txarto urten deutsie bertako sozialistai.

Esan lei, emekoak euroi lagunduten ez yoa-kiezan bitartean, irabazita daukotsiela yokoa Gobernuak eta Gobernuko buru dan Dollfuss biotz andiko gizon txikiak.

Olango jenteari irabazten gatx badago egon baña, tira!... tiro ortik, tiro emetik...

Sosialistotariko askok txiñel jantzita ekin deutsie tiro-otsean Gobernuko gudariai..., ta olantxe egin al izan dabe zeozer denpora apur baten.

Gobernuko gudariak konturatu barik egon direan artean.

* * *

Denpora gitxitarako balio izan deutsie txiñel jantziriko sozialistoi txiñel jantzita ibilteak.

Laster igarri deutsie gudariak sozialista zurroi sozialistak direana.

—Usaiñetik igarriko eutsien, ugazaba.

—Zelango usaiñetik, Txitxu?

—Ardao-usaiñetik.

* * *

Arin esaten daki gauzea Txitxu gureak.

Eta oraingoan be arin esan dau Austriako Gobernuaren gudariak euroi tiro-otsean ekin deutsien sozialistoi ardao-usaiñetik igarriko eutsiela sozialistak direana.

—Arin esan bakarrik? Diñodana on egiten be bakit gero... Sozialistak ondo ezaututen dituzan morroya da Zozaya Antonio, idazle ezkertarra. Bera be erdi-sozialistea da ta. Ta baki zer esan eban bein sozialistakaitik? Ba... denpora lartxu egiten dabela ardaotegietan.

—Españako sozialistakaitik esango yoan ori.

—Bai, ba. Baña sozialistak, Españakoak eta Españakoak eztiranak, danak dira erri batekoak. Euskal-erriko erderaz esaten dan lez, *todos erri batekos*.

(Au, zerbait geyagogaz,
1934-ko Zezeillaren 18'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XLIV

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

ELDU YAKU RADIO MOSKU

Emen ebillen bart, or amarrak inguruan, Txixu gurea, neure radio-tresnearen eragiteko tre-txu guztiai eragin ta eragin, nondik Radio Bartzelona entzungo.

Ta olango baten, entzun gendun, ba, entzutekoa. Ta birritan entzun be.

Habla Moskú! Habla Moskú!

Aolantxe, birritan; eta indartsu.

Nik beingoan esan neuntsan Txitxuri:

—*Radio Moskú* yaukoguk berbaz ortxe, Txixu.

—Bai, antza..., *Donostia* ezpada... —erantzuten deust Txitxuk.

—Zelango *Donostia*?

—Nik dakit ba? *Habla Moskú* baño lenago *atean zion* entzun dot eta...

—Ondo ulertu deutsak gero?

—Ez neutsan ulertuko ba! Birritan esan be egin dau ba ta!

—Ire belarriak! Ez ete yok esan, gero, *atean zion* barik, *atención* edo olangoren bat...

—Aorrenbeste be izan zeitekean, ugazaba. Baña baki, gero, *Donostiak* be budakiala esaten beste orrenbeste.

—Ori be egia dok. Baña, bakik euk orain tresna ori ixildu yakuana?

—Bai, ba, neuk ixildu eragin deutsat eta. Baki, ba..., berorrek diñostana obeto entzuteko...

—Ondo yagok. Begiratu izango dok, orraitño, non urten yuan Moskukotzat yaukodan estaziño orrek.

—Bai, jauna. Ona emen. Begiratu bei berorrek be. Ta apunteu bei papertxu baten estaziño panparroi orrek urten daun lekutxu au. Ondo

izango dogu beratu apuntetea, beroneri ikutute-ko arrisku gitxiago izan dagigun.

—Oneri zataitxu oneri be...

—Bai; orreri palankatxu orreri be ondo izango da begiratutea.

—Berengo mallan ikusten yoat orain.

—Ba euki bei kontuan, aortxe, berengo mallan ori daola, urten leikeala gu berengo mallan baño berago sartu gura gaituezen boltxe-bikien estaziño orrek.

—Orduan, Txitxu, bada-ezpadan be, ondo izango yoaguk berengo mallan iñoiz be ez eukitea ori zataitxu ori bein gaubeko amarretara ezkerroan.

—Ni neu, bada-ezpadan be, gaurtik gora, gaubeko amarretara ezkerroan, zataitxu ori, berengo mallan badago, berengo mallatik kenduta, oira yoango naz, berorren deskuiduren bategaitik *Habla Moskú* entzunda, *Habla Moskú* ori neure erruz sartu dala etsean pentsau ez dagidan. Ba gu, biok be, albadiberak gara, uga-zaba; Radio Mosku bera baño geitxuago.

—Gaur ez az yoango orren arin.

—Ez, ba. Amarterdiak badira ta... Baña amai-
kak entzun baño lenago yoan gura neunke, orrai-
tiño, gaur berton be. Gaubon, ugazaba.

—Gaubon, Txitxu. Ta lo ondo egin.

—Baita berorrek be. Baña, zer? Papera ta
lumea artuta, bertsoak egiten asi da? Eztauko
logura andirik.

—Asi, egin nok bertsoak egiten, baña etxa-
kiat ba...

—Ezpadaki, neuri itandu. Nik neuk egin dot
neurea, txarto edo ondo. Entzun bei, ia zer deri-
txon...

Iñongo Radiok ez al deusku
esango iñoiz be *Habla Moskú!*

—Ta *Donostiak* bayiñoskuk?

—*Gaubon* egingo deutso Txitxuk.

* * *

Artu dau, trapa-trapa, Txitxu gureak oirako
bidea.

Baña, bidean doala, logureaz ganera, beste
gauza bat etorri yako burura, ta beste gauza ori,

loak aitzu eraginda, esan barik geratu eztaiten bildur da ta, beingoan yatorrt atzera.

Ta badiñeust, «parkatu bei» esan ta gero:

—Ugazaba, eztaukagu zetan entzun Radio Moskuri, boltxebikiak euron agindupeko Errusia errukarrian, amar urteren barruan, aonetxek guztiok il dituezala yakiteko: 6.575 irakasla, 8.800 mediku, 54.850 gudari-agintari, 260.000 gudari, 1.243 jaupari (saserdote), 105.000 txiñel (aguazil), 48.000 jendarme, 12.850 enpleadu, 355.250 idazle, 192.000 beargin ta 815.000 lur-langille. Eztaukagu, ez, olango gauzak yakiteko, zetan entzun Radio Moskuri ez Radio Muskiri. Ze arrano!

Ta berak, ze arrano! esan daun orduan, ezta-
kit ze arrano egin deutzan berberak, konturatu
barik, antza, neure radio-tresnari, barriro
entzun dogu lengo *espikerraren* berbea.

*Ahora viene la sección de preguntas y res-
puestas* edo olango zeozer esan dau, ta gu, zer
entzun bear ete dogun, arrituta, ixillik gelditu
gara berton, bertsoak egin-gurea ta logurea albo
batera edo bitara yaurtinda.

Lagun bien berbea entzun dogu gero: *espike-rrana* berana, ta onek beargiña dala esan deuskun beste morroi batena.

Eztabaida antzeko itaune-erantzuketa polita egin dabe bion artean.

Guk, arpegirik ezteutsegu ikusi ta, ezin esan gei barrerik egiten izan daben ala ez entzuleen lepotik.

Baña Txitxuk euron eztabaideari usain txarra, bai, artu deutso, antza.

—Zer eritxi deutsak, Txitxu, orren eztabaideari? Polita izan dok, oyez?

—Politegia. Orren eztabaida ori yoko bat baño ezta izan, nire eritxian. Prietoskiren belarri bat egingo neunke, neurerik ezetan loitu barik, alkarrerik orrek ondo erakutsita eukiko eutsiezala, batak bere itaunak eta besteak bere erantzunkizunak, egin daben barriketa ori egiten asi baño lenagotik. Itaunegilea erantzuntzalea bera izan ezpada. Ba orrenbeste be yazo zeitekean.

—Tripatik berba egiten yoanen bat ezpadok *espiker* ori...

—Ara gero! Tripa zitalak asko eragiten dau ta!...

FIRI-FIRI XLV

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

LARGORI TA GAUBEKARI ITXAROTEN

Gaur-artean ixillean euki dogun erabagi garratz bat artu gendun Txitxu gureak eta biok, umorerik onena euki gendun arratsalde bada-
ezpadako baten, Txuri testigu dogula, katu ospe-
tsu au testigutzat sutondoan yesarrita egoan
lekuan bertan artuta: *Firi-Firi-rik* geyago ez egi-
tea.

Geroago, Txitxuri damutu egin yakon erabagi
ori artua, erabagi orretara bere burua lotuta iku-
siaz. Ta erabagi berorretatik bere buru *Firi-firi-*
zalea azkatuteko erabagi berori austea izango

dala onena ta, ia auxe egin ezpagengi ba esan eustan umore onean aurkitu nindun urrengo egunean.

—Ez! erantzun neuntsan neuk.

—Ezetz diño? diñost berak arpegia luze luze eginda.

—Bai, bein.

—Ba ezpeist birritan esan, bein esanagaz nai-koa emon deust atsekaberik eta.

—Zer egingo yeutsaguk ba?

—Biribiltasuna kendu.

—Zeri?

—Zeri diño? Berorren ezezko biribil orreri, nire biotzarentzat ezpata zorrotza izan deiten gura ezpadau.

—Biribilla badok, zelan izan leitekek zorrotza?

—Ai, berorrek eztaki, antza, nire biotzaren barri! Ta yakin bear leuke, ba berorrek egin nau onen *Firi-firi*-zale.

—Ta neu enok ala?

—Baita. Aorretxegaitik berorregaitik eskatuten deustat, ain uzen be, kendu dagiola ezezko biribil orreri daukon biribiltasuna.

—Baña... zelan kenduko yeutsaguk ba?

—Luzetuta.

—Ta... zelan luzetu?

—Kondiziño batzuk ezarrita.

—Kondiziñoook gatzak izan bearko yoek, geyagoko barik yaten yoagula emoniko berbea iñok esan ez yagian. Tirok! Esaik bat.

—Iru esango deutsadaz, baderitxo. Lenengo, Largo Kaballerok berak geuri aginduriko errebolusiñoa egitea; bigarrena, Gaubekak berorrek berari aginduriko liburua irarritea (inprimidutea); irugarrena...

—Naikoa dozak aitatu dozan biok.

—Ta naikoa dira gatzak, oyez?

—Zein baño zein gatzagoak. Ai, ire burua! Asmau be egin dozak, gero, kondiziño bi!...

—Tira, ba! Luzetu dagigun berorren ezezko biribilla, kondiziño panparroi biokaz, aonetara: «Eztogu ausiko *Firi-firi-rik* geyago ez egiteko artuta daukagun erabagia Largo Kaballerok berak geuri aginduriko errebolusiñoa eginda edo Gaubekak berorrek berari agindu eutsan liburua irarrita ikusi artean».

—Ondo yagok.

—Ondo dagola diño? Ondo dago. Baña... neu ez nago ain ondo.

—Zer daukok ba?

—Neure kondiziñoek neuk eskeiñi deusadazan leztxe berorrek ontzat artuaz artu dodan poza besteko andia dala eurotariko bat beteta ikusi artean ointxeganik igaro bear dodan egarria. Ta egarri onek ito ezpanengi... Beintzat, eztot bakerik eukiko kondiziño bata edo bestea beteta ikusi artean.

—Zelango bata! Biak, Txitxu!

—Ai, ez, jauna! *Edo*-gaz batuta eskeiñi deusadaz neuk kondiziño biok, ugazaba.

—Ik egiteko eztok asko.

—Geyago be egingo neunke nik, ointxeganik *Firi-firi* bat egiten asi al izatearren. Beste egiune bat (beste tratu bat) egin ezpagengi, ugazaba...

—Ez, mutil.

—Orduan, Gaubekagaz egin bearko dot laster bat, berari yagokon kondiziñoa len-bai-len berak betetu dagian.

—Egik bija on bat, Txitxu.

—Barre egiten dau, barre?

—Bai, ba; berak egingo deuan irribarreaz pentsetan.

—Burletia al da gizon ori?

—Ez, ba... Yoadi bildur barik. Ondo artuko au.

—Neu ondo artutea ta neuk eskatuko deutsadana arin egitea gura neunke.

—Orrek gauza bi dozak.

—Gauza bi... ta *edo* barik, ugazaba.

* * *

Yoan da Txitxu gurea Gaubeka gureagana. Ta zuk, irakurla gurea, eukiko dozu, urrean, zetan geratu direan yakin-gurea.

* * *

—Ta, Txitxu, ezetan geratu az Gaubekagaz ba?

—Ondo artu nau, ugazaba.

—Neu be ondo artuten nayok, Txitxu.

—Ta, ganera, berorrek berari aginduriko liburuia laster irarriko daula esan deust.

—Laster egingo yoala neuri be esaten yeus-tak; baña beti yagok egiten asteko, ta asi barik ez yakiat zelan aingeru egingo yoan.

—Aorixe yakin baneu yakin!... Banoa barriro beraganal... Ze arrano!

—Zer esaten?

—Laster egingo daula esan deustala baña,... nik lasterrago gura dodala.

(1934-ko Agorrilla'ren 26-an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XLVI

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

MAURA GARRANDI TA AZAÑA GIBELTXIKI

Maura Garrandi, Konbentuerretako Markesa, Txekoeslobakiara edo olango leku urrun batera joateko asmotan dago, seguru be.

Guk, geu seguruago egoteko, asmotan geratu barik, len-bai-len yoan deiten gura geunke.

Ta gauza txarrik ezteutsagu opa ta, bija on bat egin dagiala.

—Ta atzera ez daitela etorri, esan bei, ugazaba.

—Ik esateko ez tok asko.

—Nik esateko ezta izango asko, baña Maura Garrandik berak egiteko bai. Ori ezin bizi leiteke, berorren gogoz beintzat, Españatik kanpora luzaro... Drogan ibilteko, emen dago ondoen.

—Ez yakiguk oraindiño bakarrik ala lagunagaz yoango doan.

—Euki ez el dauko lagunik. Baña nik neuk imingo neuskio bat, yazekoa.

—Nor?

—Azaña Gibeltxiki.

—Itxi egiok bakean Azaña gizajoari.

—Ai, ugazaba, itxi bearko, berorrek agindu ezkerok! Baña, nor lagun yazekoagorik Azaña Gibeltxiki berau baño Maura Garrandintzako? Lenago alkarren lagun izanda, ta bata eta besteak lagun asko eukita, biok dagoz orain lagun batik. Ba, lagun barik biok dagozan ezkerok, biok izan deitezela alkarren lagun.

—Iri akordauko ez yakanik!...

—Txorierriko kanta zar bategaz akordau gura neunke ointxe. Miñaren puntan daukot ba... Nok leukon orain nik txikitan Txorierriko kantakaz akordetako neunkan burua! A, bai ointxe akordetan naz! Or doa.

*Nok leukon gurdi zar bat
txirrinke zar bigez,
botateko Pantxi Baltz
Martin Eperdigez!*

—Txitxu, ik burutara ekarri gura izan doan kanta zar orretako Baltza ez zoan Pantxi, Mari baño, nire eritxian.

—Mari beintzat ez zan izango. Katalunian ei dabiltz orain batzuk *Mori* gora ta *Mori* bera.

—Ai, Txitxu! Kataluniako berbeitean, *mori* bera, *bera!* dok.

—*Bera!* bada, ezta izango, *gara!* Baña guk, ori gora bera, egin geinke aldakuntza bat geure kanta txorierritar politean, Azaña orrek eta Maura orrek España ederrean egin daben aldakuntzeaz besteko kalterik iñori egin barik.

—Zelan, Txitxu?

—Aolan, ugazaba: *Mari*-ren lekuan *Azaña*, *Martiñ*-en lekuan *Maura*, ta *Eperdi*-ren lekuan *Garrandi* imiñita. Begiratu ia aldakuntza onegaz gatzik galtzen ete daun...

*Nok leukon gurdi zar bat
txirrinke zar bigez,
botateko Azaña Baltz
Maura Garrandigez!*

—Ik urrun botako eunkez.

—Bai, ugazaba, neure eskuan euki ezkerro; ta ostikopean euki ezkerro, ainbat obeto.

*Al izanik, betiko
urrunduko neunkez,
España urundu eztayen
nekearen nekez.*

—Bertsolari ago eu gaur, Txitxu.

—Ai, ugazaba! Nik orrekaz bertsolaria ta ostikalaria izan gura neunke.

* * *

Azaña gizajoari andiak yazon yakoz, ostikada billa bera ibilli barik, bere gibela osatutearren yoanda, laikoa dala, uste barik Kataluniako San

Ilario izeneko errian, ur-etxe baten urak artuten dagoala.

Bera sartu dan *hotel* izeneko ostatu anditik, bera sartuaz batera, ainbeste andikik beste ostatu batera yoatea erabagi dabe.

Alkateak, onek andikiok egin deutsien bearrak emoniko atsekabea kenduteko, yai eder bat egitea gura izan dau erriko zelai nagusian, bertara erriko jente guztia batuta, gazteai an sardana-yantzea egiteko dei egiñagaz; Azaña udal-etxeko balkoitik eurai begira dagoala, Azañaren ondrazako euron sardana-yantzea izan zeitean.

Baña jenteak ez entzun egin deutso alkate biotz onekoari.

Alperrik yo zan tanborra, bere aginduz, jente dantzaria ta ostekoa ara batuteko.

Domeka bat, etzi-amabost igaro zan domekea, egon zan orretarako imiñita. Ta arratsalde guztian egon zirean Azaña ta alkatea dantzarien begira, ta aorixe suerte ori euki eben: dantzarien begira egoteko suertea; baño dantzariai begira egoteko suerterik ez eben euki.

Ondo begiratu ezkerro, arin ikusi be egin lei, Txitxun eritxian, ezin euki eikiela bigarren suerte eder au.

Txitxun ustez, sardana-yantzzea,... *serio serio* egiteko yantzzea da.

Ta, nor da kapas, diño Txitxuk berak, Azañaren aurrean, sardana-yantzan ez beste edozein yantzatan, bere arpegiko garauai begira yantzan *serio serio* ez erdi-*serio* yarduteko?

Alkate kaiku orrek, iñor orretan iminten asi barik, berak egin bear leuke pruebea.

la bera kapas bada!...

(1934-ko Iraillaren 2'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XLVII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

EZTIRA GUZTIAK LOTIAK

Egun bakotzeko egutegi-orriari urrengo egunerartean bakean itxiteko oiturea daukot nik neuk, etxean nagoan artean.

Eta Txitxuk be bai, urrean; neu kanpotik ez nazan artean, beintzat.

Eguna bera norberaren aurrean dagoan artean atzea emon barik dagoala ta, uste dot eztala ondo, egunak berak atzea emon artean, berari yagokon orriari atzea ikustea.

Ta aorretxegaitik, eztot ikusi Agorrillaren 7-an nire egutegi biak ekarri daben ikusteko gauzea urrengo egunerartean: 8-rartean.

Baña urrengo egun onetan euron lekuetatik kendu ta biak imiñi dodaz (suertez be, biak bate-ra), neure begien aurrean.

Eta, neuk uste eztodala, Txitxuren begien aurrean be bai.

Txitxu, neuk igarri barik, neure atzean egon da, antza, orriok euron atzean zer dakarren ikus-teko neuk besteko egarriaz.

—Olangorik... ikusteko be! Batau euskeraz-koa ta besteau erderazkoa direala, gauza bardi-ña dakaskue biok eta, suertez be, egun bat-baten.

—Izkirimiria da gauza ori,... oyez?, diñost Txi-txuk.

—Bai, antza.

—Bayetz esan lei, ba barretxu bat edo beste be eragin deutso.

—Bai, ba.

—Baña berorrek eztau irakurri ondo ez bata ez bestea.

—Zer diñok, Txitxu?

—Ondo irakurri balituz, ez ebala berorrek barre egingo geyagoko barik.

—Zelango geyagoko barik?

—Ez ebalá egingo barre, izkirimiri-egille bion uts andi bat aitatu barik.

—Utsen bat egin yoek izkirimiri-egilleok?

—Bat ez txikia. Begiratu begio lenago euske-razkoari ondo... ia zer diñoan.

—Auxe irakurten yoat nik emen:

—Ulergatxa benetan guri yazoten yakuna. Gaixo bardiña daukagu, ta osagille bardiña, ta... niri ardaoá edatea galera-zo egin deust eta zuri ez. Zelan izan leike au?

—Nik Patxikonetik edaten dodalako eta zuk barriz osagillearen aitagiñarrabane-tik.

Baña..., itxaroik apur baten..., emen zeozer oker yagok.

—Ikusi dau zeozer oker dagoana. Aointxe len baño obeto irakurri daula esan lei orduan. Baña, ikusi dau non dagoan okerra? Ez al dago osagillea ardaoá edatea bere aitagiñarrabane-tik ardaoá gastaten daunari galerazoten agertu-tean?

—Bai, alantxe dok.

—Ba irakurri bei barriro erderazko orria be...

Beutso.

—Tirok, bai!

—No me explico lo que pasa. Tenemos la misma enfermedad y el mismo médico, y a usted no le prohíbe beber vino y a mí sí.

—Pero es que usted compra el vino en casa del suegro del doctor.

—A, mutil, emen be oker bardiña yagok. Emen be osagilea ardaoa edatea bere aitagiña-rrabanetik ardaoa gastaten yoanari galerazoten agertuten dok.

—Aointxe egin bei baye, esanik: izkirimiri bardiña dakarre orri biok, eta biok uts bardiña-gaz.

—Uts andia dok, izan be, egille batentzat... eta bientzat be... zur-antza emon gurarik egille berak edo eurak asmauriko ipuiñeko lagunari, orretan asi ta gero, loak artuta, zoro-antza emotea.

—Ez eban loak artuten, botaziño-egunetan, guk Txorierrin ezagutu gendun taberneru zar bat, erriko gizonak diputadu-geyen edo kontzejal-geyen lepotiko gastua egiten bere etsera joan deitezan alegiñak egiteko kontuan.

* * *

—Gero, bakizu, e?.. Bazkalduten, neure tabernara —esaten eutsien, kolejiotik urteten ebeneko, polito polito lepoan yota.

—Ondo dago —erantzuten eutsien baltzen alderdira botoa emonda urteten ebenak.

Eta bora pozik, ori entzuten ebanean.

Ba bera baltza zan, ikaragarritzko baltza; bere tabernako ardaoa baño baltzagoa.

Ta berari *ondo dago* erantzutea, baltzai botoa emon yakielako senallea zan berantzat.

Baña danak ez eutsien erantzuten *ondo dago*.

—*Nik karlistai emon deuntsiet botoa*, batek baño geyagok erantzuten eutson.

Berak gura eikean baño geyagok.

Baña ez zan orregaitik ikaratuten.

Baekian onekaz be zelan yokatu.

—Zer esan dozu, adizkidea? esaten eutsien.

—Nik karlistai emon deutsiedala botoa. Eztot iñor engañeu gure; eta orregaitik, yakin dagizun diñotsut... karlistai emon deutsiedala botoa, ze arrano!

—Karlistai emon deutsezula zeure botoa? Tira! Ezkara orregaitik asarratuko, adizkidea. Ni neu baltza naz; baña neure suiña, bakizu, karlista andia da, munduan iñor bada. Alan da ze, karlistai botoa emon badeutsezu, zoaz neure suiñaren tabernara, suin ori dogu senitarteko karlista andia ta. Eztaukazu zetan yoan beste taberneru karlisten tabernatariko batera be. Bakizu: nire suiña karlista andia da. Zoaz bere tabernara.

(1934-ko Iraillaren 9-an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XLVIII

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

TXURIK TXITXU ALKATE IZATEA GURA DAU

Txitxuren katuak, Txuri ospetsuak, zeozer emongo leuke bere ugazaba ona, Txitxu bera, alkate izatearren.

Ta esan be egin deutso berari, gaur goizeon, neu eleizatik izan nazan artean:

—Ugazaba, zeozer emongo neunke nik neuk berori alkate izatearren.

—Alkate izatea baño gauza obagorik bayagok munduan, Txuri, —erantzun deutso Txitxuk beingoan, neu noiz etorriko ete nazan begira egon barik.

—Obagorik egongo da. Baña nik, larregi eskatu barik, aorixe eskatuko neunke, neure eskuan balego: berori alkate izatea.

—Ta... neure eskuan bayagok alkate ez izatea?

—Berorren eskuan alkatearen zartea (barea) egongo litzake ondo. Surteko autsa batuteko ta neu lepoan yoteko bartzuna egoten dan baño obeto.

—Baña... nok egingo nayok ni alkate, neuk gura ez yoatala?

—Ez al dau izan gura alkate berorrek?

—Ez, ez yoat izan gura.

—Eztaula izan gura? Ezta izango!

—Ez, enok izango.

—Esan gura dot... eztaula izango egia berorrek alkate izan gura eztauna.

—Bai, egia dok.

—Ba, orduan, atrapauta daukot berori; berorren atzean ziñuka ointxe dabillen sagua baño apur bat obeto. Alkaterik bear bada, berorrek izan bear dau alkate, aorretxegaitik berorregaitik: alkate izan gura eztaulako.

—Txorierriko gizon selebre batek auxe esaten yoan kontzejal-botaziñoetako egunetan *serio serio*: Gizonak, entzuizue ondo: alkate izan bear leuke... alkate izan gura eztaunak. Ta begiratu ondo nik neugaitik zer diñodan: nik eztot izan gura alkate!

—Berorrek eztauko zetan esan orrenbeste; baña alkatetasuna opetsi egiten badeutsie, artu barik geratu be ez geyagoko batik.

—Opetsi nok egingo yeustak niri ba?

—Emon leikeanak.

—Botaziño barik?

—*Botaziño* barik, *nonbraziñoz* egin lei berori kontzejal orretarako eskubidea daukonak; eta nonbraziño orren ostean egin leye berori alkate berorren kontzejal-lagunak, botaziñoz, txistua baño ariñago.

—Nitzako eztok egongo kontzejal-nonbraziñorik orain, Txuri. Katu gizajo orrek, ez eik egin txakur-amesik. Eztakik ni karlistea noala?

—Ezpeist barrerik eragin, ugazaba. Kar, kar, kar!

—Negar eragingo deuat eskuan yaukodan bartzunagaz..., enoala karlistea erakutsi gurarik

barreka yarraituten badok yarraitu apur baten be.

—Badakit ondo berori karlistea dana, berorrek egin nau karlista neu ain zuzen be ta. Barre egiteaz eztoz esan gura izan berori eztaukadala karlistatzako. Esan gura izan dodana auxe izan da: karlista izatea ezta gaur eragozpena. Eragozpena barik, karlista izatea, gaur, artu-eraipe-na ei da, ugazaba. Agiri da, berorrek kalerik kale ibilita baño, nik, tellaturik tellatu ibilita, gauza geyago yakiten dodala. Berorrek entzungo bali-tuz etxe askotan euron tellatuetatik eta balkoye-tatik entzuten dodazan gauza asko! Baña kalee-tera euro tara be elduten da, urrean, kontzejal-nonbrasiñook orain monarkikuentzako, karlisten-tzako ta radikalentzako direalako zurrumurrua. Ta orain begiratu bei ondo: zurrumurru orren arrazoiz, berorreri iru aldeetatik yagoko, emoten bayako, kontzejal-nonbrasiñoa artutea. Ba berorrek iru gauzok daukoz: monarkikutasuna, karlis-tetasuna ta radikalitasuna, izanik, dan legez, monarkikua, baño ez edozein modutakoa, karlis-tea baño; ta karlistea be (neu leztxe), onenetari-koa, radikala.

—Barrabantxu orrek, ibilli ta ibilli, urrean imingo nok kontzejal-nonbraziño ori artuten.

—Ibilli gaitezan geldiro geldiro. Oindiño ezteutsie emon ta...

—Ez yeustiek emon. Baña, emoten bayeustiek emon ta artuten bayoat artu, ez yoat neuk itxiko kontzejaltasun ori geyagoko barik.

—Eta alkate egiten badabe egin, asti geyago artuko dau alkatetasuna itxiteko.

—Bai orixe! Lenago beintzat argi ta garbi erakutsiko yoat neure alkatetasunean neuk zuzen yokatu yoatala ta erria be zuzen erabilteko alegin zintzoak egin yoatazala. Ba egi andia esan yoan, erdi-euskeraz, erdi-erderaz, txantxetan-benetan (benetan erdia baño geyago), auxe esan yoanak:

*Alkate es kalte,
si no es zuzen como burduntzi.*

—Jauna, zuzentasuna erakusteko, burduntzia baño beste gauzarik eztauko? Burduntzia ezpeist erakutsi; beintzat, lukainka-zati bat, txoriso-zati

bat, okela-zati bat edo urdai-zati bat bere punta zorrotzari biribilgarritzat ezarri barik.

—Ik olango biribilgarria laster kenduko euskio.

—Bai, berorrek itxi ezker. Baña berorrek ezpei itxi alkate izateko erea aprobetxeu barik, eskura bayatorko etorri.

—Euk gura gura dok, orduan, ni alkate izan neitoan.

—Bai, ba; ondra andia izango litzake nitzat berori alkatea izatea ta. Ezta edozein katu alkate baten katu. Ta, ganera, probetxua be eukiko neunke, ugazaba. Bake geyago bai, beintzat. Erriari aginduten deutsan artean, ezteust neuri aginduko... Ene, ezpei eskua bartzunera eroan! Esku orretan gurago dot ikusi surteko bartzun motz ori baño erriko alkate-bara polita.

* * *

Txitxu biotz biguna, esku eskoyan bartzuna daula, surtera begira pareu da. Ta esku eskoiko bartzun orregaz suari eragiñaz batera, esku ezkerregaz bere buruari eragiten asi da, bere

katu ospetsuari gustua emotearren, zer asmauko.

Ta, ibilli ta ibilli, auxe asmau dau.

Ia ezin ete leikean berak, katu bateri gustua emotearren, alkatetasuna artu, Maura Garrandik, lau katuri gustua emotearren ainbeste barrabaskeri berak egin eta egiten itxi eban besteko *juridicidadegaz*.

Otxorio Gariartori itandu deutso, aointxe, ia zer deritxon. Ariñago erantzun dagion, bere katu nagusiarentzako gorantziak bialdu ei deutsoz.

(1934-ko Iraillaren 16'an argitaratu zan)

FIRI-FIRI XLIX

*Lana egin daigun
txiri-txiri,
ta agertu deigun
firi-firi.*

Atean da batabat ointxe.

Bai, ba barriro be yo dau atea.

Ondo kontuz yo be gero!

Txitxuk, daukon gorragaz, ez gor andirik daukolako baña, ez eutsan entzungo.

Baña entzun deutsal neuk, eta, Txurik entzun ete daun ala ez begira egon barik, banoa neu atera... ia nor dan.

—Nor da? diñot neuk, nor dan yakin gurarik.

—Esan barik be igarri bear eban berorrek, ugazaba; ba yakin bear leuke berorrek, aitzu ezpayako, nik zelan yoten dodan atea; baña esan bear badeutsal, esango deutsal.

—Eu az, Txitxu?

—Bai, jauna. Zabaldu bei arin atea, ugazaba, neu estutu baño lenago.

—Ator, ba, gizajo andi ori. Zabaldu yak atea. Baña ik zabalago bear dok, urrean, oraingoan. Zelango zorroak dakazak besapeetan? Mutil, ez yakiat estutuko ete azan eu naikoa eurok eta guzti barruan sartuteko. Ondo zabal ator eurokaz!

—Itxi beist bakean barrura sartu artean.

—Kostauko yak olan, aurrez, sartutea. Errezago sartuko einteke alboz.

—Bai, surra okertuta!...

—Ba okertuik, barruan sartu arterako.

—Ona daukot euki be ointxe berau, beronegaz ziñuetan ibilteko ta!...

—Gorrituta daukok.

—Bai, ba; atea yoten ainbeste bidar erabilli ezkerero...

—Orduan ik, Txitxu, kanpotik izanda ona etsera atorreanean, atea Txurik edo nik irigi yagigun, surragaz yoten dok emen atea?

—Bai, ugazaba. Ez giñean geratu orretan ba? Ai, berorren burua!

—Orain eu ez adi geratu or. Ai, ire surra! Izerditan daukok. Ekarri egik arin barrura, otzitu barik.

—Itxi beist zorrook, barrura sartu al izateko, erarik onenean edo errezenean iminten.

—Polito imiñi be egin dozak gero, bata zilborraren ganean ta bestea mokor bien goitik. Ze polito!.... Sartu dozak, eta eu be sartu az eurokaz, mutil. Ai, ire burua! Surra erabilteko baño geyagotarako doala esan leik.

—Bearko da burua, ugazaba, Txurigazkoa ta norbere barruagazkoa (kontzentiagazkoa), bata bestearen kalte barik, zabal zabal egiteko. Zorioneko kontzejaltasun orrek ardurak emoten deustaz.

—Txitxu, kontzejala ez azala, nondik nora emon leisk ardurarik kontzejaltasunak?

—Ai, jauna! Kontzejala ez naz; baño izateko arrisku andian ikusten dot neure burua. Ta aorretxegaitik, kontzejaltasuna artu ta urrengo egunean damutu egin leikidala kontzejaltasuna artua ta, ordurako, bada-ezpadan be, kontzejaltasuna bear dan eskubideaz zelan itxi neinkean pentsetan asi naz.

—I, pentsetan asi baaz, ez az geratuko pentsau barik.

—Eta, badaki zer pentsau dodan?

—Ez euk esan barik.

—Neuk esango deusat ba. Ara zer pentsau dodan: neu kontzejal atarateko *kandidaturak* edo zerak egiteko ardurea Txurirentzat berantzatzat itxita, aolangoxe *itxidaturak* edo direanak egitea. Beutso bat. Irakurri bei.

—Eure gauzea dok eta, euk irakurri egik.

—Ondo dago. Baña euki bei berorrek eskuan, ia ondo irakurten dodan ondo begiratuten daula. Beutso!

—Tirok, ba! Asi adi irakurten.

—Ta berori... begiratuten.

TXITXUK
BERE KONTZEJALTASUNA
ITXI EGIN GURA DAU

ITXI DAGIALA
EZTAGIALA ITXI (1)

(1) *Itxi dagiala* gura daun botanteak, bergantea ezpada, borrau beiz EZTAGIALA ITXI diñoen berbak. Eta *eztagiala itxi* gara daun botanteak, kokoa ezpada, borrau beiz ITXI DAGIALA diñoenak.

—Zer deritxo, ugazaba?

—Ondo irakurri doala, urrean. Beintzat, euk irakurri doan leztxe irakurri yoat neuk be.

—Neuk neure begi txiki biokaz irakurri dodan leztxe berorrek berorren lau begi andiokaz irakurri badau..., esan lei biok be ondo irakurri dogula. Baña orain beste eritxi bat eskatuten deusat. Zer deritxo *itxidatureari* berari? Ondo eginda dago?

—Bayetz esan leik. Gaubekak egin yok, eztok?

—Bai, jauna. Tira! Egin..., egin..., esan lei neuk egin dodala lenago, ta Gaubekak gero imiñi ementxe papertxu onetan eta beronen antzeko beste amairu milletan. Amairu milleok orrako zorro biotan imiñi ei deustaz.

—Amairu millegiño agindu deusak? Bayagok erri onetan ba, urretan be, orrenbeste botodun?

—Gaur, ez; baña nik neure kontzejaltasuna, oindiño artu barik daukodana, itxiteko asmoa artu dagidanean, izan leiteke orrenbeste arenbaten egotea, bularreko umeetarañoko guztiak botoa daukiela.

—I az mutilla gauzak aurretizik pentsetan!

—Nik orain gura gura neunke pentsau dagien kontzejaltasuna arturiko gizon guztiak, bein artua damututa egon ezkeru, itxiteko..., neuk pentsauta daukodan botaziño ori eskatu bear dabela. Jenteak pentsau eztagian kontzejal-bearrak eurok uste eben besteko alogera eztaula emoten ikusi dabelako itxiten dabela eurok euron kontzejaltasuna. Yarrantuko al deustie guztiak!

—Yarrantuko deue, bai, batzuk, akordaten bayakiek, arrika edo olan.

(1934-ko Iraillaren 23-an argitaratu zan)

Ondo ibili, irakurlea!

Liburu onek, gogo onez,
berba onen aurretiko orietan daukazan

49

FIRI-FIRI

gozotxuak,

Txitxuk eta neuk

gozo-gozotzat daukaguzanak,

Txitxu oraindiño kontzejal eztala

egiñak dira.

Iñoizkoren baten Txitxu berau
kontzejal izatera elduten bada eldu,

jazo leiteke,

Jainkoak alan gura izanik,

beste FIRI-FIRI gozo batzukaz

FIRI-FIRI

izen beronegazko

beste liburu bat

geuk argitaratutea.

Alan nai olan, ez geu ez zeu,
bada-ezpadan,
zer jazoko be,
ez gaitezan ibilli illunetan!

AZKENENGO ORDUAN OKERRIK ANDIENA

Liburuari azalean saneurritzat (preziotzat) zer imiñi bear yakon yakin gura daula Gaubekak aoraintxe ta, ia zer esango deutson itanduten etorri yat aoraintxe, arrapaladan, gure Txitxu bizkorra.

* * *

—Esayok imiñi yagiola *14 erreal*.

—Amalau erreal diño? Zegaitik ez *ogetalau*, irabazte-apurtxu bat atarateko?

—Esan yoat: *amalau erreal*.

—Tira, ba! Baña yakin bei orretxegaz egin daula berorrek, *azkenengo orduan, okerrik andiena*.